

Goienkaria

2006ko irailaren 15a > Egubakoitza > VI. urtea > 256. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Ekonomia ez da hain ondo egongo, eta ez dugu lorik hartu behar"

Mari Karmen Gallastegi
Ekonomilaria
> 09



G2a

Mireia Gabilondo
Zinemaldian bere
filmarekin > 43

UDAZKENA

Hezea, epela eta euri askorik gabeko udazkena iragarri dute > 06

KIROLA

Arrasatear bat, Euskal Herriko Artzain Txapelketara > 40

DISKO AURKEZPENA

Kepa Junkerak 'Hiri' diskoa aurkeztuko du Arrasaten > 45

POLITIKA > EA

Koalizioan ez joatea berbagai

EAKo buruzagiak Arrasatera etorriko dira, eta erabakiaz hitz egingo dute > 05

DEBAGOIENA > GARRAIOA

Autobusera ohitzea falta da

Autobus zerbitzu berrituaren gaineko lehen balorazioa egin du Pesak > 06

ARRASATE > INGURUMENA

Arrasate hobearen bidean

Arrasate etorkizunean hobeia izan dadin, batez ere ingurumenari dagokionez, Arrasate Iraunkorra elkarteak dabil lanean, eta oraintsu bukatu dute hausnarketa fasea. Hala, adostu dituzten ekintzak praktikara eramateko gertu daude, eta 2007an egin gura dute hori. > 15

LEHEN SEKTOREA > DEBARROA

Gizarteak landari laguntzeko Debarroa programa egin dute

AITZINDARIA Debagoien eta Debabarreneko landa garapen elkarteek antolatu dute, eta programa aitzindaria da

DENONDAKO Landa ingurunea "larrialdi egoeran" dagoela-eta, laguntza "gizarte osoari" dagokiola diote arduradunek

LEHENDAKARIA Atzo, eguena, aurkeztu zuten Debarroa Elgetan; besteak beste, Ibarretxe izan zen han > 02-03



AZKEN UKITUAK Zapaturako dena txukun eta gertu izateko jo eta ke jardun dute lanean Agorrosinen azken egunotan.

XABIER URTZELAI

Bergarako igerileku berriak zabalduko dituzte bihar, zapatua

Bihar, zapatua, inauguratuko dute Agorrosin ekintza-gunea. Gipuzkoako Aldundiko eta Bergarako Udaleko ordezkariak egongo dira inaugurazio ekitaldian, baina herriko ume eta gaztetxoak izango dira igerileku berriak estreinatzen lehenak, puzgarriak

eta ur jolasak egongo dira-eta euren dako goizetik hasita.

Eraikin berriak igerilekuak, gimnasioak, taberna, terraza, ludoteka eta herriko elkarteendako bulegoak ditu. 07:00etan zabalduko dute astelehenean. > 24-25

AURKIBIDEA

Debagoiena > 05-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-41
Kirola > 42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Telebista-Irratia > 51
Komunikazioa > 52
Non-zer > 54-55

SUPER AMARA

Opari Txekeak berriz ere

90 euro baino gehiago produktuetan DOHAINIK

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 P Bezeroentzako Aparkalekua

UGARTE
AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoak • Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 Faxa: 943 76 08 04

LEHEN SEKTOREA > DEBARROA PROGRAMA

Ibarreko landa inguruneari eusteko dei egiten diote gizarte osoari

SENTSIBILIZATZEA Landa eremuak bizirik jarraitzeko denon laguntza behar dela gogorarazten du Debarroa proiektuak

AURKEZPENA Eguenean aurkeztu zuten Debarroa Elgetan, lehendakariaren eta beste hainbat agintariren babesarekin

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Landa ingurunea bizirik dagoela eta, hala izatea jarraitu nahi bada, gizarte osoaren laguntza behar dela: hori da Debagoieneko eta Debarroaren Landa Garapen Elkarteek antolatu duten Debarroa proiektuaren helburua. Berau aurkeztu zuten atzo, eguna, Elgetako Espaloia kafe antzokian, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapenerako sailen, Mendikoi elkartearen, ibarreko udalen eta auzoen, eta lehen sektoreko hainbat ordezkariaren babesarekin.

Debarroa -Debarroa: menditik itsasora da izen osoa- proiektuaren helburua gizarte osoaren sentsibilitatea eta landa arloarekiko kontzientziakoa piztea da, eta, hasieran, proiektua 2005-2007 eperako da, baina hortik aurrera jarraitzeko jaio da. Esan behar da ere proiektu aitzindaria dela bere arloan.

GIZARTE OSOARENDAKO EKINTZAK Aspaldian zebiltzan Deba Garaia eta Debemen landa garapenerako elkarteak kezka batekin: "Ikusten genuen gizarteak bizkarra eman ziola landa ingurumenari. Debagoienak eta Debarroaren badituzte antzekotasunak, eta mehatxuak berberak ziren kasu honetan: industria asko, landa ingurumen polita baina ezezaguna... baina bi eskualdeetan bada go nekazal jarduera", azaltzen dute Debarroa programaren antolatzaileak, Agurtzane Diaz (Deba Garaia) eta Agurtzane Etxanizek (Debemen). Oro har, gizarte osoa zerbait egitera animatu nahi dute: "Landa ingurunea larrial-

Deba Garaia eta Debemen landa garapen elkarteek ekimena da Debarroa

Hamalau ekintza mota daude: bisitak, ikasmateriala, hitzaldiak...

Enpresendako Gailur izeneko ziurtagiria da berritasun nagusienetako bat

ESANAK

"Paisaia, baserriak, euskara... gorde nahi baditugu, zerbait egiten hasi behar dugu lehenbailehen"

Agurtzane Etxaniz > Debemen

"Debarroaren berritasuna da gizarteari nekazaritza hurbiltzea, eta gure arbasoen zeregina umeei irakatea"

Rafael Uribarren > Foru Aldundia

di egoeran dago. Herrialde garatuetan, arlo guztiak daude garatuta, baita landa ere; ezin da ezer baztertu. Eta hori egitea gizarte osoaren lana da, ez bakarrik base-rritarrena", gaineratzen dute.

Kontzientziakoa eta inplikazioaren helburua lortzeko, Debarroa proiektuaren barnean 14 ekintza antolatu dituzte Deba Garaia eta Debemen landa garapenerako elkarteek. Atzo aurkeztu zituzten hor erabiliko diren baliabide batzuk: hala nola, Lehen Hezkuntzako ikasleendako ikasmateriala, ikasleei zuzendutako ibilbideak, eta 14-18 urte bitarteko gaztetxoendako bideojokoa.

Ekintzak zuzenduta dauden gizarteko multzoaren arabera banatu dituzte. Horien artean, azpimarratzekoa da enpresei zuzendutako ekimena: Gailur izeneko ziurtagiria sortu dute. Agurtzane Diazek honela azaltzen du helburua: "Landa ingurunea eta enpresa bata bestearengandik urruti egon dira, eta enpresen gertutasuna eta babesak lortu nahi ditugu. Era berean, gure elkarteak ezagutarazi nahi dizkiegu, beharbada etorkizunean elkarlanean bidea zabalduz". Gailur ziurtagiriak enpresek landa ingurunearekiko erakusten duten kontzientziakoa eta konpromisoa sarituko ditu.

Lehen Hezkuntzarendako, aipatutakoez gain, argazki lehiaketa bat ere antolatuko dute; DBHkoendako, Unibertsitatekoendako eta Lanbide Heziketakoendako, hitzaldiak; administrazio publikoen konpromisoa lortzeko batzarrak; nagusiendako bisitaldiak eta argazki bilduma eta bideo emanaldiak; eta gizarte osoarendako, bideojokoa,



Aurkezpenera bidean, Gonzalo Sanz de Samaniego, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua.

komikia, Trivial antzeko jokoa, Ohitura Onen gidaliburua eta eskualdeko azoketan informazioa zabaltzeko ekintzak.

Ibilbideak ere antolatu dituzte, denetarikoa: ohizko nekazaritza ezagutzekoa (Antzuolan), gaurko nekazaritzarena (Aretxabaletan), arrantzarena (Mutri-

kun), elikagaien prozesuarena (Leintz Gatzagan), talogintzarena (Lasturren, Deban), gaztagintzarena (Oñatin), gozogintza eta okintzarena (Eibarren) eta ehungintzarena (Lasturren ere).

Gerora, beste ikuspuntu batzuk ere landu nahi dituzte: besteak beste, aurreratzen dute kon-

DEBARROA PROIEKTUA, LABUR

> ANTOLATZAILEAK

Deba Garaia eta Debemen, Debagoieneko eta Debarroaren Landa Garapenerako elkarteak.

> BABESLEAK

Udalen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Mendikoi elkartearen, Eusko Jaurlaritzaren eta enpresa eta erakunde pribatuen babesak du Debarroa proiektuak.

> HELBURUA

Landa ingurunearen gizarteratzea Debagoienean eta Debarroarean.

> NORENDAKO

Bizilagun eta erakunde guztiei dago zuzenduta: umeei, gazteei, nagusiei, enpresei... Ekintzak honako gizarte multzoendako dira: LHko ikasleak, DBHko ikasleak, unibertsitateko eta lanbide eskoletako ikasleak, enpresa

pribatuak, administrazioak, nagusiak, eta gizarte osoa.

> TRESNAK

14 ekintza proposatzen dituzte: ikasmateriala, hitzaldiak, udal agintariekin batzarrak, ibilaldiak eta bisitaldiak, argazki bildumak eta bideo emanaldiak, bideojokoa, komikia, Trivial jokoa eta ohitura onen gidaliburua.

> ENPRESENDAKO

Landa ingurunea eta enpresak elkarrengana gerturatzeko, Gailur izeneko ziurtagiria sortuko dute, landa ingurunearen aldeko jarrera eta ekintzak errekonozitzeko.

> IBILALDIAK

Zortzi ibilaldi didaktiko prestatu dituzte LHrako, eta izenematea zabalik dago irail osoan, 94 630 07 30 telefono zenbakian.



...ria; Juan Jose Ibarretxe, lehendakaria; eta Patxi Basauri, Elgetako alkatea. AMAGIOIA LASAGABASTER

tu polita da, eta etorkizunerako interesgarria. Bestalde, baserritarra pieza klabea da gure lurralde antolaketan, eta bere lekua eman behar diogu".

Debarroak ibarreko kirol, hezkuntza eta kooperatibismoko pertsona ezagunen babes bere badauka, Arteman komunikazio enpresak egindako bideoan agertzen den moduan.

Hona hemen adierazpen batzuk: "Baserriaren benetako balioa ez dugu behar bezala estimatzen. Uste dut askoz sentsibilizazio handiagoa eduki beharko genukeela guztiok" (Alberto Iñurrategi); "Debagoienean eta Debarreanean, landa ingurunerik eta baserririk ez balego, eskualde honen historiak eta izaerak asko galduko luke". "Industria guneen garapena uztartu daiteke landa eremua errespetatuz. Posible da azpiegiturak egitea eta landa eremua bultzatzea eta haiekin sentsible izatea" (Javier Retegi, Mondragon Unibertsitatea); "Landa ingurunea gure gizarteko parte inportantea da, eta astakeria galanta izango litzaiteke garrantzirik ez ematea. Guztiok egiten dugu poesia mendiekin, zelaiekin, gure ingurunearekin, baserriekin... zein ederrak diren eta horrelakoak. Bestalde, hori mantentzeko dirua eskatuz gero... aldatu egiten da jarrera. Esango nuke hipokrisi apur bat orain eta beti egongo dela" (Alfontso Gorroñoitia, MCCren sortzaileetako bat).

Gure herrietako baserritarren eta basozaleen interesa ere piztu du Debarroak. Arrasateko Uribarri auzoko Jone Bergaretxe baserritarrak jakin-min handia zuela onartu zuen, eta landa arlorako lor daitekeen laguntza guztiaren premia dagoela esaten du: "Laguntza behar da baserritik bizi izateko. Uribarrin, Udalan... ez dago horretarako lurrik, dena da industria". Debarroa programak eskaintzen duen jakiteko irrikaz zen bera Elgetara inguratzekoa. Bestetik, Oñatiko Udala Nekazaritza Batzordeko eta Deba Garaia elkarteak Bixente Untzurrunzagak dio atzoko ekitaldira "joan beharra" zegoela:

"Oso programa positiboa eta aberatsa iruditzen zait, bereziki, enpresendako ziurtagiriarengatik eta ikasmateriarengatik. Jendearen kontzientzia falta igartzen dut, bai. Jende askok ez daki zein auzo dauden hemen eta bakoitzean zer dagoen".

ASPALDI HASITAKO LANA

Debarroa proiektua berria eta aitzindaria da, baina baserritarren kezka aspalditik dator. Horren bidetik, zenbait urrats eman dira orain arte.

Hala, 1998an Landa Garapen Legea egin zen, Estatu osoan. Honakoa diote Diazek eta Etxanizek: "Lege hori fruituak ematen ari da, bai. Horren ondorioz, lehen nekazaritza zena landa kontzeptuan sartu zen, askoz kontzeptu zabalagoa; eta hortik sortu ziren landa garapen elkarteak". Elkarte horiek urte osoan daude baserritarrei laguntzeko, eta denetarikoa gaiez arduratzen dira: azpiegiturak eta teknologia berriak eramateaz -azkenaldian, Interneteko banda zabala-, kultura eta kirol ekipamenduetaz, turismoaz, nekazaritzako udal arduradunekin koordinatzeaz eta aholkularitza zerbitzua emateaz.

Beste urrats garrantzitsu bat Itun Soziala izenekoa da, 2002ko itun bat. "Landa bizi zirenek kalitatezko produktuak egiteko eta lurra gestionatzeko konpromisoa hartu zuten, eta gizarteak, administrazioari baliabideak ipintzeko eta landako produktuak erabiltzeko". Itun hori 2004an berretsi zen. Izan ere, Debarroa proiektua itunaren jarraipen naturala da, eta horko helburuak gauzatzeko modua.

Administrazioak egin duen lanarekin pozik daude Debarroko arduradunak. Eta erakundeen inplikazioa lortuta, enpresarena eta gizarte osoarena lortzea da oraingo erronka. Eta hauxe gogorarazten du Agurtzane Etxanizek: "Paisaiarik, baserririk, euskararik... gabeko Euskal Herria nahi badugu, ez dezagun ezer egin; baina gorde nahi badugu, zerbait egiten hasi behar dugu lehenbailehen".

KOPURUAK

9.500

LAGUN

Debagoien eta Debarreanean 99 landa auzo dago, eta horietan 9.500 lagun bizi dira. Biztanleriaren %2 da hori.

3.153

ETXALDE

Debarroko 3.153 etxaldek dute nekazari jarduera, eta horien artean 48.850 hektarea gestionatzen dituzte.

%1

BIZTANLERIA GUZTITIK

Debagoieneko eta Debarreko biztanleri guztiaren %1 bakarrik bizi dira lehen sektoreko jardueretatik. Bestalde, populazioaren %2k zaintzen du luraren %80.

%94

DA LANDA-GUNEA

Gipuzkoa osoko azaleraren %94 da landa-gunea. Natur parkeak eta gune babestuak %22 dira; basoak, %62.

61

GAZTE PROIEKTU

Diputazioaren GazteNek laguntza planera 61 proiektu aurkeztu ziren, denak lehen sektorean lan egin nahi duten gazteenak. Debagoienekoak sei bat ziren.

tsumitzailearendako ekintzak ere etorriko direla, landako produktuak eta zerbitzuak erabiltzera animatzeko.

ASKOREN BABESA

Debarroa planeko ekintza asko ume eta gaztetxoei daude zuzenduta. Hezkuntza helburuaz hau-

xe esaten du Rafael Uribarren arrasatearrak, Nekazaritza eta Landa Garapen diputatuak: "Berritasuna da gizarteari nekazaritza hurbiltzea, eta gure arbasoen zeregina umeei irakastea, eta esatea hortik datorrela gure kultura, hizkuntzaren transmisioa eta nortasuna. Oso proiektu-

Agurtzane Diaz eta Agurtzane Etxaniz > Antolatzaileak

"Laguntza ez da dirua soilik, errekonozimendua ere bada"

L.K. > ELGETA

Agurtzane Diaz eta Agurtzane Etxaniz dira Deba ibarreko landa garapen elkarteetako ordezkariak eta Debarroa proiektua sortu dutenak.

Material didaktikoa gertu daukazu, ezta?

Bai. Izan ere, Lehen Hezkuntzan banatu dugu zati bat: fitxategiak, hain zuzen; gero, CDa banatu dugu. Oso harrera polita izan dugu, eta eureiesker konturatu ginen DBHra ere zabal genezakeela. Horrez gain, gertu daude ere ibilaldiak, tailer batzuk eta bideo-jokoa, eta ekintza gehiago sortuko ditugu.

Kontsumitzailearen ikuspuntua ere landuko duzue. Zelan?

Baserriko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzera bultzatu nahi dugu. Produktuei dagokienez, bada-kigu prezioak igo egiten direla bitarteko bidean eta baserritarrak irabaziaren zati txiki bat jasotzen duela, baina horiek dira merkatuko arauak. Gure kontsumitzaileak badaki hemengo produktuak gertutasuna eta kalitatea batzen dituela, eta prest dago prezio hori ordaintzera.

Zerbitzuei dagokienez, urtero milioi eta erdi bisitari datoz landa inguruna, eta hori ahalbidetzen dutenei errekonozimendua zor diegu.

Zer esan nahi diozue jendeari?

Landa inguruneari esker, gauza asko ditugula: gure zelaiak eta basoak, gure paisaia, luraren gestioa, baserriak eurak, euskara... hori guztia gordetzen lagundu du landak; eta horri eustea ez dela bakarrik baserritarren lana, gizarte osoarena baizik.

Zein laguntza mota da zuendako garrantzitsuenak?

Laguntza ez da bakarrik dirulaguntza. Errekonozimendua eta sentsibilitatea laguntzeko beste modu batzuk dira.

Lehen sektorean lan egiteko gertu badaude gazteak?

Bai, egon badaude. Kontua da lurak lortzeko oztopo asko izaten dituztela. Baina, datu moduan, Aldundiak jakin zuen Gipuzkoan badaudela 60 bat gazte lanera sartzeko moduan. Baiorak gara.





DATORREN ASTEAN Irailaren 23an sartuko gara udazkenean baina eguraldiak eta inguruneak jadanik udazkeneko itxura hartu dute.

XABIER URZELAI

grupo
amuebladora
mondragonesa

TRUKE OPERAZIOA

Ekar ezazu koltxoia
eta 100 €-rainoko
deskontua izango duzu
FLEX koltxoietan.

Banatzailerik
ofizialak:

FLEX
TEMPUR
SWISSFLEX
www.swissflex.com
BULTEX
ipardo
SWISS confort
Sealy

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Irailaren 23an, goizaldeko laurak inguruan, sartuko gara udazkenean. Hala ere, udazkenak berebarea duen giroa sumatzen hasi gara gurean.

Abuztua ere ez da hain eguzkitsua izan gurean, baina uda beroa izan dugu oro har. Uztailean 37 gradura arte igo ziren termometroak. Abuztuko altuena, berriz, 34 gradukoa izan zen. Luis Mari Agirrek Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak dira hauek. Bere esanetan, batz bestekoa eginez azken urteotako temperaturarik altuena izan dira aurten uztailean, 23,4 gradu, hain zuzen ere. "Minimoak oso altuak izan dira eta horrek eragin du igoera", dio.

Joxe Landa eguraldi adituak esan digu zaila dela udazken osoarako aurreikuspena egitea, baina eguraldiaren nondik norakoa azaldu dizkigu.

KARIBEKO URAKANEN ERAGINA
Landaren esanetan, Karibeko urakanek askotan markatzen dute nolakoa izango den udazkeneko eguraldia. "Orain ere badira indarrean batzuk, nahiz eta

Zigarrola 1, 6. pabilioia
Tel.: 943 77 14 92

koltxoi leku

www.grupo-aeme.com • grupoam@grupo-aeme.com

EGURALDIA > UDAZKENERAKO AURREIKUSPENAK

Udazkena epela, hezea baina euri askorik gabea aurreikusi dute

Hego haize ustela eta mendebala izan gabe, zehar haizea edo haize gallegoa edukiko dugula aurreratu digu Joxe Landa eguraldi adituak

beste batzuetan baino leunagoak izan. Gero honantz etortzen dira zurrumbilo horien hondarrak Atlantikoaren goiko aldetik. Aurten oso iparretik ari dira pasatzen, beraz, ez gaituzte bete-betean harrapatzen. Hori da udazkena nahiko leuna izango dugun seinalea", dio Joxe Landak.

Bestalde, esan digu eguratsaren goiko geruzetan aurten ez dela mugimendu askorik sumatu, azken egunetan izan ezik.

Joxe Landaren esanetan, "normalean, udan, goiko eta beheko geruzak bakoitza bere aldetik joan ohi dira, eta udazkena iristen ari den heinean nahastuz joaten dira; baina oraingoz apenas nahastu dira".

EURI ASKORIK EZ

Faktore horiei erreparatuta, landaren esanetan, "badirudi udazkenean ez dugula hego haize zakarrik izango, lehen partean ez behintzat. Hego haize ustela eta mendebala izan gabe zehar haizea edo haize gallegoa edukiko dugula. Horrek hezetasun dezentetik ekarriko du, baina hotz handirik egin gabe, udazkena aurreratu sartu artean gutxienez".

Udazkena euri urtaroa izan ohi da, neguaren atarian batez ere. Baina Landak oraingoz ez du uste euri askorik izango dugunik. "Goiko geruzetan sortzen dira euri joera nabarmenenak eta oraingoz horrelakorik sumatzen ez denez badirudi ez duela euri askorik botako".

Udazkena, beraz, epela, hezea baina euri askorik gabea izango da, adituen esanetan.

POLITIKA > EUSKO ALKARTASUNEN BURUAK ARRASATEN

Koalizioan ez joateko erabakia berbegai izango dute domekan, Alkartasun egunean

Begoña Erraztik eta Unai Ziarretak hitz egingo dute eguerdian egingo duten mitinean

Musakolako kiroldagian egingo dute bazkaria eta 1.500 lagun joango dira gutxi gorabehera

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Alkartasun eguna egingo du EAK domekan Arrasaten, eta hurrengo hauteskundeetan EAJrekin koalizioan ez joateko exekutibak hartu duen erabakia berbegai izango dute orduan ere.

Atzo, eguna, nazio batzarraren egin zuen EAK eta zerrendako gaitako bat zen kideei azaltzea exekutibak zergatik hartu duen erabakia hori. Baina erabaki hori oraindik bestelakoa izan daitekeela dio Jose Luis Aranburu Arrasateko EAKo presi-

denteak. "Kideen gehiengoak erabaki dezake ezohiko batzarrak egitea gai horri buruz. Orduan, Arrasaten ere batzarrak egingo genuke, gure iritzia ezohiko batzar horretan emateko", azaldu du Jose Luis Aranburuk. "Estatutuek jasotzen dute aukera ezohiko batzarrak egiteko gehiengoak eskatzen badu, eta hori ere gerta daiteke", dio.

HAUTESKUNDE OSTEN KOALIZIOA

Jose Luis Aranburu bera edozein alderdi hauteskundeetara baka-

rik joatearen aldekoa da, "hori da eta normalena. Alderdi bakoitzak bere egitaraua du eta hori hel arazi behar dio jendeari, hark bata edo bestea aukera dezan. Alkatetza edo beste posturen bat lortzea gura bada, zentzuzkoagoa

da hauteskunde ostean koalizioa egitea". Baina beti hori horrela ez dela gertatzen dio, "interesak daudelako". Aurrerantzean zer gertatuko den galdetuta, berriz, Aranburuk dio exekutibak koalizioan ez joateko erabakia hartu izana dela garbi dagoen bakarra, "gero etorriko dena ez dago jakiterik", jarraitu du. Hala ere, ziur dago domekako Alkartasun egunean berbegai izango dutela gai hori Arrasatera joaten diren guztiek.

MONTERRONEN ETA MUSAKOLAN

Monterronen egingo dute eguneko ekitaldi nagusia eta eguerdirako bazkaria antolatu dute Musakolako kiroldagian; 1.500 bat lagunek bazkalduko ei dute han. Euskal Herri osotik etorriko da jendea, eta horietako asko autobusetan.

Begoña Erraztik eta Unai Ziarretak hitz egingo dute

12:00etan da ekitaldi politikoa Monterrongo parkean eta Begoña Erraztik eta Unai Ziarreta etorriko dira hitz egitera. Eguraldi txarra eginez gero, Uarkapen egingo dute. 11:00etan, umeendako puzgarriak eta tailerrak jarriko dituzte Monterronen.

Hiru GKErendako Mundumirako kamisetekin jasotako 3.000 euro

Hiru GKErendako izan da aurtengo Mundumira jaialdiko kamiseten salmentarekin jaso dituzten 3.000 euroak. Eguaztenean hartu zituzten txekak Antzuolako Anelkar elkarteak, Oñatiko Misisio Taldeak eta Aretxabaletako Felix Iñurrategi-Baltistan erakundeak. *Euskal Herria* aldizkari eta Ternua arropa etxeko ordezkariak eman zizkieten (denak argazkian). Dirua zein proiektutan inbertituko duten azaldu zuten erakundeetako ordezkariak: Oñatiko Misisio Taldeak biltegi bat egingo du Haitin, Felix-Iñurrategi Baltistanek ur edangarria izateko azpiegitura egiten erabiliko du Baltistanen eta Anelkarrek Senegalen umeendako mediku zerbitzua hobetzeko.



ANA ERIZ

> ARRASATE

Zahar Berri egitasmoa abiaraziko dute berriz ere Arrasaten

Zahar Berri egitasmoa jarriko dute abian beste behin Arrasaten. Euskaldun zahar eta berrien arteko tertuliak egitea da asmoa, irakasle rolik gabe.

Bestalde, Bergako Jardun elkarteak ere badu asmoa Berriketan egitasmoa ikasurte berrian egiteko.

> BERGARA

Alderdi Egunerako autobusak jarriko dituzte Bergaratik

Eusko Alderdi Jeltzaleak Alderdi Eguna egingo du irailaren 24an Forondan eta autobusak egongo dira Bergaratik joan nahi dutenentako. Autobusean joateko izena eman behar da datorren astean. Batzokian bertan eman daiteke edo telefono honetara deituta: 943 76 47 00.

> BERGARA

Ikasturte berria aurkeztuko du UNEDek Donostian

2006/2007 ikasturtea aurkezteko hitzaldia egingo du UNED ikastetxeak astelehenen, irailak 18. Donostiako Koldo Mitxelena kultura etxean egingo dute, 19:00etan, eta departamentu bakoitzeko ordezkariak izango dira. 30 karreratik gora eskainiko dituzte Bergaran.

> ARRASATE

Alzheimerren aurrean zer egin izango dute berbegai

Datorren egunean, irailak 21, alzheimer gaixotasunaren nazioarteko eguna da eta hainbat hitzaldi antolatu dituzte gaitz horri buruz. Horietako bat Arrasaten egingo dute, martitzenean, Monterronen, 18:00etan. Hauxe da izenburua: *Zer egin dezakegu alzheimerren aurrean?*



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Euskadiko erreferente nagusia industria horniduran

ARRASATE • TEL.: 943 712 425 • FAXA: 943 71 22 98 | ARETXABALETA • TEL.: 943 71 24 11 • FAXA: 943 71 20 04 | OÑATI • TEL.: 943 71 80 80 • FAXA: 943 71 80 45

GARRAIOA > LURRALDEBUS PLANAREN BALORAZIOA

Jendea oraindik ez da ohitu autobus zerbitzu berrietara, Pesaren esanetan

Herritar askok eskatu dute autobusak geltoki guztietan geratzeko, ez bakarrean

Jendeari zerbitzuaren aldaketak azaltzea konplexua dela dio Pesako logistika arduradunak

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Hilaren 1ean ipini zuten abian Lurraldebus autobus zerbitzu berria. Gipuzkoa osoan, autobus zerbitzua hobetzeko egiten den lehen saiakera da Debagoienekoa. Foru Aldundiak, Debagoieneko udalek eta Pesa Garraio enpresak bideratu dute plana.

15 egun pasa dira zerbitzu berriua abian ipini zutenetik, eta askotariko iritziak entzun dira ibarreko herrietan. Zerbitzua hobetzeko hainbat iradokizun jaso dituzte, baita kexak ere, hala nola: autobus batzuk herrietan geltoki bakarrean geratzen direlako; joan den domekan Donostiarako autobusa beteta zihoalako eta Arrasaten gidariak sartzen utzi ez zielako; eta Antzuolan autobus berriek hainbat auto markatu dituztelako.

ERABILTAILEAK OHITU BEHAR

Pesa autobus konpainiako logistika arduradunak esan digu oraindik goiz dela zerbitzuak zein harrera izan duen



GELTOKIAK Antzuolan tokiz aldatu dute geltokia eta beste herri batzuetan kexu dira autobus batzuk geltoki bakarrean geratzen direlako.

UBANE MADERA

esateko. "Lehen hilabeteak zerbitzuan aldaketa txikiak egiteko, ezagutzera emateko... erabiltzen dira. Eta aldaketa guztiek ohitura aldaketak eragiten dituzte", esan digu Alejandro Nayak.

Garraio zerbitzu hobea edukitzeko beharraren aurrean ipini zuten abian Lurraldebus, eta neurri batean lortu egin dutela uste dute: "Orain dela urte gutxi ezinezkoa zirudiena gauzatu dugu. Orain herritarrek esan

beharko dute zerbitzuarekin konforme dauden ala ez. Kontua ez da kexak bakarrik aurkeztea", dio Nayak.

Jendeari zerbitzuaren nondik norakoak azaltzea konplexua dela gaineratu digu. "Publizitate kanpaina berandu hasi zen, eta herritarrek oraindik zalantza asko dituzte". Hala ere, Nayaren esanetan, "hasierako balorazioa positiboa da".

KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

Pesatik esan digutenez, kexa gehien Sorluzetik jaso dituzte: "Plana ez zaie gustatu, baina argi utzi behar da plana Debagoienarako dela; beraz, kanpoan geratzen da, oraingoz, Sorluzen".

Beste herrietan jende askok eskatu du zerbitzu arina ez egiteko, eta geltoki guztietan geratzeko autobusak. Nayaren ustez, "azkartasuna eman nahi zaio zer-

bitzuari eta herri arteko bidea azkarrago egin nahi dutenei aukera eman. Kexa baino gehiago, herritarren aldetik egindako eskaria da geltoki guztietan geratzeta. Baina badira zerbitzu arina ipini dugulako zoriondu gaituzten erabiltzaileak ere. Gainera, pixkanaka jendea ulertzen ari da zerbitzu berriaren filosofia, eta kexak eta iradokizunak gutxituz doaz".

ENPRESA > KALERATZEAK IRABI LANTEGIAN

Bergarako Irabi lantegiko hiru langile kaleratu dituztela salatzeak bilkura egin dute

ELA sindikatuak lantegian dagoen "egoera errepresiboa" salatu du; baita protestekin jarraitzeko asmoa azaldu ere

I.A. > BERGARA

Mantenurako errodamenduak, aire eramaileak eta jasotzeko makinak egiten dituzten Bergarako Irabi lantegian hiru langile kaleratu zituzten uztailan. Bada, kaleratzeok salatzeak, ELAk deituta bilkura egin zuten

egunean lantegiaren aurrean. Iraundiko enpresa komiteak ere bat egin zuen deialdiarekin.

Enpresak langileak kaleratzeko emandako arrazoia izan da lan gutxi dagoela. "Baina lan asko dagoenean eta ustez lan egoera hobea dela dirudienean ere, langileon egoerak ez du hobera egiten; eta lantokian dagoen errepresioa salatu nahi dugu", adierazi du Iker Alustizak, Debagoieneko ELAko metal arloko arduradunak.

PROTESTA HERRIRA ZABALDU

Gaurko bilkuraren ondotik, egoerak hobera egin ezean protestekin jarraituko dutela jakinarazi

digute; eta herrira ere zabaldu nahi dute euren kasua.

Irabin 12 langile daude eta ELA sindikatuak bakarrik du ordezkaritza. Jabe berarena den Iraundi enpresan 62 langile daude eta horretan LABek ere badu ordezkaritza. Asmoa da sindikatuek bat egitea arazo horren aurrean euren ezinezgona azaltzeko. Horren harira, protesta ekintza gehiago egitekotan ELAtik sindikatu guztiei deia zabaltzeko asmoa jakinarazi digute.

GOIENKARIA Irabi eta Iraundi enpresetako arduradunekin harremanetan jartzen saiatu bada ere, ez du haien erantzunik jaso.

Herran

BERGARA

Etxetresna elektrikoak : Matxiategi 3 • 943 76 12 22
Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53

Lehenengo egunean bezala

12 urteko garantia
vegasa

Gura bezain laster

Aitaitaren oparia ikusteko irrikan nago! Amamak nire plater gustukoena prestatako zuen. Laster batean denok elkarrekin egongo gara.

Lurraldebusek, Debagoieneko autobus zerbitzu berriak, **30 minuturo** eramango zaitu **Eibartik Eskoriatzara**.

LURRALDEBUS



Gipuzkoa hiria
gero eta hurbilago!

gure artekoak

AKORT > Pertsonalizatu egiten dituzte kaleko eta laneko arropak zein oparitarako gauzak Bergarako Akort enpresan. Horretarako, norberak aukeratutako irudiak erabiltzen dituzte, eta baita sistema aproposenak ere.

Juan Moreno

"Norberaren gustuko irudiak ipintzen ditugu arropetan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Serigrafia, tanpografia, transferra, bordatua, laserra... dira teknikak. Bezeroak, ere askotarikoak: eskolak, kirol elkarteak, lagun taldeak, lan-tegiak, gobernuz kanpoko erakundeak... Arropa, batez ere, norberaren gustuko irudiekin janzten dute.

Nolatan ipini zenuten abian?

Aldizkari batetik izan genuen trasfer sistemaren berri. Maki-na batekin marrazkiak kamisetetan estanpatzen dira. Ideia gustatu eta lokal txiki bat genuenez transferrarekin hasi ginen. Pixkanaka teknika gehiago sartu ditugu. Esaterako, fotokopiagailu batekin argazkiak handitu eta kamisetetan jartzen hasi ginen.

Zer eskaintzen duzue?

Serigrafia lanak egiten ditugu norbanako, talde eta enpresendako. Dendaren azpiko aldean dugu tailerra; beraz, edozein motatako produktuak serigrafiazko aukera dugu, eta azkar.

Zein produktu dituzue?

Denetarik. Garraio agentzia batek eskatu digu bere logoa ipintzeko kamioi batean, ile apaindegi batetik orrazi edo ispiluetan, metxeroak ere egiten ditugu... Baina dendak kanpotik duen itxurarengatik, batez ere arropen bila



Juan Morenok Bergarako tailerrean egiten du lan Fatima Verarekin.

I.A.

FITXA TEKNIKOA

> ELKARTASUNA

Ruandarako dirua ateratzeko egin zituzten kamisetak; soberan daudenak ere bidali izan dituzte herrialde txiroetara.

> ESKARI BITXIAK

Oparitarako hainbat telebista aparailu markatzeko eskatu zieten.

> WEBGUNEA

www.akort-publicidad.com helbidean ikus daitezke produktuak, tarifak, sistemak...

etortzen da jendea. Gainera, arropetan aukera zabala dugu. Zaharren egoitzetarako markatu izan dugu arropa, baita txirrindulari federazioarendako arropak bordatu ere. Laneko arropak saltzen dituzten biltegiak ere ekaritzen digute arropa markatzeko.

Nolako bezeroak dituzue?

Aukera zabala izanik bezeroak ere mota guztietakoak daude: umearen argazkiarekin datozten gurasoak, koadrilak ezkon aurreko afarietarako opari bila, kirol taldeak, enpresetako eta dendetako jendea...

etxeke leihotik



Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Garajea, etxeke egongela baino nahiago

Gauerdia zen, baina begiak ezin bildu nengoen. Isiltasuna apurto zuten gazte-koadrila baten ahotsak entzun ziren. Nire etxe-azpiko garaje batetik ateratzen ari ziren. Hilabete dela-edo *okupatu* zuten.

Ez da nire asmoa gazte hauei nire lo-eza leporatzea. Akaso, eskerrak eman beharko nizkieke, tarte honetarako gaia proposatzeagatik. Ez dut jardungo, baina, bizilagun eta koadrila hauen arteko tira-birez. Azkenaldian buruan dudak galdera egin gura dizuet: konturatu zarete nolako gizartea ari garen eraikitzen?

Garai baten, kalera ateratzen ziren lagunekin egoteko. Orain tabernariak kexu dira hutsik daudelako. Elkarteak, betiko sozietateak, lehen derri-gorrezko elkar-tokiak ziren; egun, askorentzako, asteburuetako ordu txikienetan bakarrik joateko aterpeak dira. Lehen autoak, besteak beste, konpartitu egiten ziren; orain, bakoitzak berea nahiago du.

Lehen, Euskal Herria eta Europako beste herrialdeak oso ezberdinak ikusten nituen; orain, berriz, antzekotasun asko aurkitzen dizkiet; eta horietako asko ez ditut oso atsegin. Nortasuna galtzen hasiak ote garen susmoa dut!

"Ez dut oso gustuko Euskal Herria Europara horrenbeste gerturatzea"

> Arrasateko gazte batek esan dit hilero 500 euro inguru ordaintzen dutela 80 bat metro koadro dituen garaje bategatik. 16 lagun artean alokatu dute; hain zuzen ere, hiru koadrilaren artean.

> Etxeko egongela baten itxura dute. Kapritxo guztiekin, hori bai! Jarleku erosoak, telebista (sarritan bat baino gehiago), PlayStation-a... Eta badira ping-pong mahaia dutenak ere.

begi-bistan



Pilotalekua berrituta (Bergara) 2006/09/14

Argazkia: Xabier Urtzelai.
Testua: Irati Agirreazaldegia.

Pilotalekua gaur zabalduko dute ekainetik itxita egon ostean. Zapaia eta teilatua berritu dituzte, baita aldagelak ere. Hauetan frontoi txikia ipini dute berotzeko. Jarlekuak ere berriak dira.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Jon Odriozola
TXIRRINDULARI OHIA



Aitor Zabaleta
AUTO GIDARIA



Fran Iturbe
MUSIKARIA

Euskaltel-Euskadi taldeko hirugarren zuzendaria izango da txirrindulari ohi oñatiarra, baldin eta arazo batzuk konpontzen baditu. Astelehenean dira Odriozolarekin elkartzekoak Euskaltel-Euskadikoak eta aurki jakingo da Igor Gonzalez de Galdeanoren aldamenean jardungo duen.

Bergarako Erreileño eta Tostoiñen Kofradiak ospakizuna egingo du domekan. 22 kofradia etorriko dira eta kofradekide berriak izendatuko dituzte: Aitor Zabaleta auto gidaria; Antxoni Zumelaga sukaldaria, Bixente Lazkano musikaria eta Pol-Pol mendizale elkarteak.

Gitarra jole bergararrak Bide Ertzean taldearen azken diskoan hartu du parte. Ubeda anaien taldeak seigarren disko kaleratuko du urriaren hasieran, *Non dira* izenburupean. Garate estudioan grabatutako lanada, Kaki Arkarazorekin. Gaztelupeko Hotsak-ek kaleratuko du.

Kimika edo Medikuntza ikasi gura zuen Mari Karmen Gallastegik gaztetan, baina eginda-ko ikasketek hiru aukera ematen zizkieten: Ekonomia, Zuzenbidea eta Filosofia. Aitak esan zion Zuzenbidea ez egiteko, asko sufrituko zuelako, eta Filosofia ez zitzaion gustatzen. EHUko ekonomia katedraduna da gaur egun. Eta 1991n Ekonomia sailburua izan zen.

Mari Karmen Gallastegi > Ekonomilaria

"Ekonomia ez da hain ondo egongo epe ertainera, eta ez dugu lorik hartu behar"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Ekonomia eta ingurumena uztartu eta aztertzeagatik, bi sari jaso ditu Mari Karmen Gallastegik (Bergara, 1945): Ekonomia eta Ingurumenaren Sari Nazionala eman zion Cristina Narbona Ingurumen ministroak 2005ean eta Euskadi saria aurrean eman diote. Ingurumenak eta baliabide naturalek euren balioa dutela defendatzen duen neurri berean kezkatzen du gaur egungo gehiegizko kontsumoak.

Nola uztartzen dira ekonomia eta ingurumena?

Batzuetan zaila da, ingurumena errespetatu gura baduzu, gizakioi edukitzea gustatzen zaizkigun gauza batzuk sakrifikatu egin behar dituzulako: kalitate maila altua, errepide onak eta aire girotua, adibidez. Ingurumen ekonomiak aztertzen du lehenengo zergatik gizakiok erabiltzen ditugun baliabide naturalak modu desegokian: zergatik ustiatzen ditugun horrenbeste arrantza baliabideak edo lurra zergatik ari den berotzen, adibidez.

Zein da emaitza?

Konturatu garena ingurugiroaren baliabide edo aktibo guztiak ez dutela jaberik. Guztionak dira eta guztiok dugu modu neurrigabe erabiltzeko tentazioa.

Posible da ingurumena errespetatu eta etekin ekonomikoak izatea?

Bai, baina biak ondo uztartzen jakin behar da horretarako. Konturatu behar dugu baliabide horiek mugatuak direla eta jakin behar dugu ahalik eta ondoen erabiltzen, enpresaburuek etekinak atera ditzaten, baina kontsumitzaileak ere ondo bizi daitezten. Horretarako, sektore publiko batek egon behar du, hezkuntza unibertsala, azpiegiturak eta osasuna eskaintzeko. Baina funtzionatzeko modu horretan, ez ditugu kontuan hartu urte askoan baliabide naturalak, klima, ozono geruza, arnasten dugun airea eta itsasoak ematen duen dituen aktiboak, besteak beste.

Baliabide naturalei prezioa jarri behar zaie orduan?

Noski, jendeak ez dituelako modu egokian erabiliko bestela. Implizituki jarri behar dira prezioak. Adibidez, berunik gabeko erregaia beruna duena baino merkeagoa izango da, kutsatzen duenari kalte-ordaina ordainaraziko zaio edo arrantzaleei esan



Leioan bizi da Mari Karmen Gallastegi.

GOIENKARIA

beharko zaie ezin dutela gura duten beste arrantzat.

Antxoarik gabe geldituko gare-lako bestela?

Bai.

Garapena izan daiteke jasangarria, iraunkorra?

Zaila da, baina bai. Uste dut ez zaigula produkzio garapena soilik axola, baizik eta kalitate mailaren garapena. Nahiz eta diru asko izan, ez dut uste oso gutxoa izango dugunik aire zikina ez arnasteko maskarekin ibili behar izatea herriko kaleetan. Itsasertzean etxerik onena izateak ere ez du askorik balioko hondartza kutsatuta baldin badago eta ezin bagara bainatu.

Gazteak sentiberagoak dira gai horrekin eta balio horiek erakutsi behar ditugu hezkuntza sisteman. Jendeak eskatu behar du erabiltzen dituen produktuak ez izatea kaltegarriak ingurumena-

PREZIOA

"Denak du prezioa; haize hotza ere ordaindu egingo dugu aldaketa klimatikoagatik"

BIZI KALITATEA

"Baliabide natural eta ingurumen barik ezin dugu izan egun dugun bizi kalitate maila"

KONTSUMOA

"Izugarri kontsumitzen dugu eta gauzak bizitzan zehar egitea egokiagoa da dena batera baino"

rendako. Duela urte batzuk, adibidez, esan zuten aerosol produktuek ozono geruza zulatzen laguntzen zutela; produktu horien salmenta asko jaitsi zen eta beste mota batekoak erabiltzen hasi da jendea.

Baliabide naturalik gabe, beraz, ezingo gara gaur bezain ondo bizi?

Ez, ezinezkoa da. Seme-alabak ditugunok ez dugu gura eurak gu baino okerrago bizi izatea, eurek ere disfrutatzen mendiak eta hondartza garbiak izatea gura dugu. Belaunaldi bakoitzak hurrengoaren ongizatea zaindu behar du.

Zer da ekonomiaz ikasi behar dugun lehen gauza eta ahaztu egin behar ez duguna?

Ez dagoela ezer doan mundu honetan. Guztiak du bere balioa eta erabakiak ondo pentsatuta hartu behar dira.

Gure amandreak zioen haize hotza zela doan ematen zuten gauza bakarra.

Laster, hori ere ez. Aldaketa klimatikoagatik, ordaindu egingo dugu laster haize hotza izatearren.

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak esan du egun hauetan inoizko sasoirik onenean dagoela ekonomia. Zer uste duzu?

Egia da hazkunde ona izan dugula, baina epe ertainera ez dut uste hain bide onetik joango denik. Euskal ekonomiak ez du hazkunderako behar den eredu egokiena. Zerbitzuen arloan eta industria zerbitzuan lanpostuak sortu dira, baina eraikuntzan asko ari dira inbertitzen. Politikari batek baikortasuna adierazi behar du, baina unibertsitatean dihardugunok derrigorrez azaldu behar dugu orain sasoi onean gauden arren ziklo edo etapa berri bat datorrela. Interesak igotzen jarraituko duen sasoi dator, lehiakortasuna ere inoiz izan den handiena izango da eta erabakitzaileak izango diren gauzak inportatuko dituzte, hala nola: kontsumitzaile sofisticatuak, lehen mailako ikerkuntzak egiteko ahalmena eta hezkuntza ezin hobea. Euskal ekonomian demografiarekin ere arazoa dugu; Osakidetza eta EHU langile gazteak behar dituztela uste dut, urte gutxian askok hartuko dugu erretiroa. Euskaldunok langileak gara, baina ez dugu lorik hartu behar.

Bitartean, gero eta zorpetuago bizi gara.

Bai, eta beste arazo bat da hori. Euskalduna beti izan da aurreztaile handia eta hori dohaina dela uste dut, baldin eta diru hori ondo inbertitzeko bada, eta ez koltxoi azpian gordetzeko. Larrialdietarako edo inbertitzeko aurrezten duten gizarteak zorpetuta daudenak baino segurua goak direla uste dut. Eta iruditzen zait aurrezteko euskaldunok izan dugun dohain hori galtzen ari garela.

Baina nola aurrezten da?

Izugarri kontsumitzen dugu. Gazteei begiratzen diet, eta auto handia, etxe ona eta oporretan urrutitu joan gura dutela ikusten dut. Ondo iruditzen zait irabazten dutena gustatzen zaien gauzetan gastatzea, baina uste dut dena batera egitea gehiegi dela; bizitzan zehar banatuta, hobeto.

plazara

Aralarko ordezkaria kritikoa da gaur egungo errepide ereduarekin eta batez ere errepideak finantzatu eta mantentzeko Foru Aldundiak dara-

bilan tarifakazio sistemarekin, "ez delako eraginkorra" egungo arazoei aurre egiteko. "Bidesari politika ezin da negozio bihurtu", dio.

Horretaz gain, proiektu erraldoiei uko egin behar zaiela dio, "gure lurraldeak ezin duelako jasan errepideen hedapen gehiago".

Rebeka Ubera *

Gaur egungo bidesariak ez dira eraginkorrak

Gure herrialdeko diru publikoaren ia %40a bide azpiegiturretan gastatzen dugun arren, pertsonen eta merkatzen mugikortasuna Gipuzkoako arazorik larrienetakoa izaten jarraitzen du.


TARIFIKAZIO SISTEMA

Gurean ez bezala, Europako autobide eta bide azkarretan, badira finantzaketarako eta mantentmenturako ereduak erabiltzaileentzako hainbesteko diru-karga izateke.

Austrian, esaterako, txartel bat erosi behar izaten da autobidea erabiltzeko eta horretarako hiru aukera daude: urteko txartela (2006an 72,60 euro autoko), bi hilabetekoa (2006an 21,80 euro autoko eta 10,90 euro motorrek) eta 10 eguneko (2006an 7,60 euro autoko, 4,30 euro motorrek). Kamioiek, berriz, kilometroko eta kategoriaren arabera ordaintzen dute. Suitza, aldiz, urteko txartela autobide, bide azkar eta errepide nagusiek dute; 2006an 27,00 euro autoko.

TXOSTENAREN ZAIN

2004ko urtarrilaren 24an Aralarrek Gipuzkoako errepideen tarifakazioa aztertzekeko ponentzia sortzea proposatu zuen. EAJ eta EARekin adostu egin genuen errepideetako kanonak eta erregulazioa zuzentzeko azterlana egitea eta azterlana Batzar Nagusietan aurkeztea. 2004ko martxoaren 2an Bide Azpiegiturako batzordean adostu, bozkatu eta onartu egin zen. Hala ere, harrezkero birritan galdetu behar izan dugu azterlana zertan den, baina ez dugu emaitzarik jaso. Eginda



MIKEL ARROIABE

dagoela badakigu, baina aurkeztu ez digutenez, pentsatzen hasiak gara Foru Aldundiaren gustuko emaitzarik ez duela jasotzen azterlanak; eta, beraz, ez dagoela inolako interesik legealdi honetan gaiari heltzeko.

MUGIKORTASUN EREDUA

Errepide-azpiegituren gaiak ekonomia, gizartea, ingurumena edo lurralde antolaketaren arloetan eragiten du. Hortaz, argi dago azterketa integral bat egitea derri gorrezkoa dela. Foru Aldundiak ekarriko duen azterlan horren esperoan, Aralarrek landuta dituen errepide-azpiegituren finantziario eta mantentmentuari buruz hainbat irizpide:

"Konpondu egin behar da Gipuzkoako errepide guztiak kolapsatzen dituzten kamioien arazoa"

"Gipuzkoarron artean diskriminazioa sortzen dute bidesariak; ez dira eraginkorrak eta gehiegizkoak dira"

- Autobideen finantziarioan eta mantentmentuan aurrekontu publikoak ez du kostu guztia bere gain zertan hartu.

- Erabiltzailearentzako ez da hainbesteko gastua izan behar; izan ere, autobidea erabiltzera behartuta dagoena ez dago zertan zigortu; aukeran, beti izango da hobe garraio publikoa bultzatzea.

- Proiektu erraldoiei uko egin behar zaie. Gure lurraldeak ezin du jasan errepideen hedapen gehiago. Beraz, errepide berrietarako finantziario kopurua errotik murriztu behar dugu, epe erdira.

- Konpondu egin behar da Gipuzkoako errepide guztiak kolapsatzen dituzten kamioien arazoa. Egunero milaka eta milaka kamioi igarotzen dira Iparralderantz, baina horietako askok ez dute parte hartzen errepideen finantziarioan, N-letik pasatzen direnak, esaterako.

- Gaur egungo bidesariei ez. Gipuzkoarron artean diskriminazioa sortzen dute bidesariak; ez dira eraginkorrak eta, gainera, gehiegizkoak dira. Bidesari politika ezin da negozio bihurtu.

Herritar asko autobidea hartzera behartuta daude eguneroko bizimodua egin ahal izateko errepide alternatibo egokirik ez dutelako. Debagoieneko, Debabarreneko eta Kostaldeko zenbait herririk eduki badaukate beste aukerarik, baina ez dira eguneroko zereginetarako erabilgarriak erakundetatik ez delako behar bezalako aldeko apustua egiten.

* Aralarko batzarkidea Gipuzkoako Batzar Nagusietan

zer deritzozu?

www.goiena.net

Gehiago erabiliko duzu busa orain?

BAI	%100
EZ	%0

> ERABILIKO DOT

Bai, nik erabiliko dot eta gonbidatzen dot jendea bus zerbitzu publikoa erabiltzera. Koldo K.

> ERABILI DEZAGUN

Orain daukagu aukera erabiltzeko autobus zerbitzua. Gero ez etorri negarrez. Ez dagoenenean ez dagoelako. Ba orain badaukagu. Erabili dezagun. Ainhoa

> BONOBUSAK

Oso gustora nago jarri dabelako autobus zerbitzu berrixa eta, behingoz, nahiko ona. Baina, nik uste, jendia erabiltzera animatzeko bonobusak edo holako zeeze jarri biko litzake. Garazi J.

> GERALEKUAK BE BAI

Geraleku eta zenbaitetan aipatu dan txartel berezixan kontuan aldaketak, onddiokan guztiz erreala ez dan zerbitzuan hobekuntzan lagunduko ebela uste dot. Ikaslea

DATORREN ASTEKOA: Ikasurte berrirako plan berririk egin duzu?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen, erantzun interesgarrienak.

-top

Antena 3ko buru

Urtzi Urkizu
www.berria.info/blogak/urtzi

Antena 3 makroenpresako buru izendatu dute Mikel Lejarza. Arbol-Globomediako kontseilari zen Lejarza eta Hostoil (Globomedia Euskadi) ekoiztetzeko administratzaile, beste gauzen artean. EITBko hainbat kargu eta Tele 5eko zuzendari izandakoa da Lejarza. Ikus-entzunezkoetan *guru* handizat joko nuke. Euskal profesionalen artean behintzat ez dut halakorik ezagutzen. Bilbokoa da eta euskaraz ondo

moldatzen da. Bere hitzaldietan egon naiz eta beti bada zer ikasia. Sektorea goitik behera menperatzen du.

Euskara Osakidetzan

Asel Luzarraga
www.goiena.net/blogak/asel

Inclanen aburuz, Osakidetzan bost langiletik batek euskaraz jakin beharra ez da gutxi. Ados nago; are gehiago: bost langiletik bat hitz egiteko gai izan beharra nahikoa da.

Beste laurek keinuka konponetzea daukate. Beraz, kontrata ditzagun langile euskaldun bat eta lau gor-mutu. Horrela inon baino hobeto tratatuko ditugu holako ezintasunak dituztenak.

Geratzen zaidan zalantza: euskaraz dakienak gazteleraz edo beste erdararen batez ere jakin beharko du? Nik ez dut horren premiarik ikusten, horretarako egongo dira keinuak, baina tira, aniztasunari trataera egokia emateko...

Neurria egokia dela ikusten bada, Legebiltzarrerara ere eraman dezakegu. Esaten dituzten gauzetarako, nahikoa euskaldun bat eta lau gor-mutu!

koplak

Maitane Azkarate-Askasua

Hurrengo udarako gutxiago

Ohartu gabe iritsi zaigu udararen amaiera. Langile denak berriz lanera, ikasleak ikastera.

Betiko bizi modura bueltan hainbeste estres ta kaos. Hala ta guztiz, lasai gaitezen San Martin festak badatoz!

Festarik festa ibili gara handik hona, tirri-tarra. San Martinetan agor dezagun gelditzen zaigun indarra

Baina guztia ez da parranda beste hainbat gauza bada; musika, dantza, lagun giroa ta nola ez danborrada.

Asteburua pasa ostein orduan bai komeria. Albo batera utzi beharko daukagun alferkeria.

Koplak amaitzen noanez gero hona hementxe postdata: Pozik nago hurrengo udarako gutxiago falta da ta!

Igerilekuen inaugurazioa eta beste batzuk

Jesus Mari Garitano, Mila Elortza, Mikel Eguren eta Maite Guridi
(Bergara Aurrerako hautetsiak)
Bergara

Orain dela lau urte, 2002ko irailean, Udalak igerilekua ixten du hauen egoera jasan ezina delako. Nahiz eta bukaera hau ikusia egon hainbat urte lehenago, Udal Gobernuak ez dituzte beharrezkoak diren neurriak hartzen eta momentua heltzen denean aurreikuspen falta honek ondorio larria ekartzen du: bi urte luzeetan ez da ezer egiten Agorrosinen, ezta igerileku zaharraren botatze lanak ere.

Honen aurretik, Udal Gobernuak igerileku berria eraikitzeke ideien lehiaketa martxan jartzen du, obrarako 4.500.000 euro aurreikusten duelarik. Lehiaketa irabazten duen proiektuak kanpoko eta barneko instalakuntzak aurreikusten ditu eta Ipintza futbol zelaiaren terrenoak barne ditu, honek Bergara Kirol Elkartearekin negoziazio prozesua eskatzen duelarik. Proiektu honek luze gainditzen du Udalaren aurreikuspen ekonomikoa.

Legealdi honetan Udalak proiektua hainbat fasetan exekutatzea erabakitzen du,

Estropada zaleek ere badute euren kirola ikusteko eskubidea

Arantza Galdos > Oñati

Oraindik ere haserre samar nabil joan den astean GOIENKARIAn nire herrikide batek idatzi zuen gutun batengatik. Estropaden gainekoa zen, edo, hobeto esanda, estropaden kontrakoa.

Erantzun gura diot neu ere ez naizela ez estropada ezta pilota zalea ere. Eta egia dela estropada sasoiaren hura dela errege telebistan. Pilota, berriz, urte guztian ematen dute, eta ez ETBn bakarrik, T5en ere bai. Baina zer nahi du?

Kirolak asko saltzen du; ikus-entzuleek kirola ikusi gura dute. Bada, zein da kontua: futbola bakarrik ematea? Eta bide batez futbol jokalariek lotsagarri aberasten laguntzea?

Ba nik ez dut hori uste. Are gutxiago estropadak eta pilota euskaldunonak direnean. Sasoiaren sasoiak eman beharko luketela pentsatzen dut: futbola, txirrindularitza, estropadak, pilota... Eta geure kirolak indartu. Are gehiago, niregatik balitz futbolari tartea kendu egingo nioke, beste kirol batzuen mesedetan. Dopin kontuari buruz, berriz, esango nioke sentsazioa dudala kirol batzuetan bai arakatzeko dutela, baina beste batzuk, aldiz, *ahaztu* egiten dituztela. Kirol guztiak berdin aztertuko balituzte... ikusi behar!

eta azkenik lehen fasea martxan jartzen da (bakarrik barruko instalakuntzei dagokiena).

San Martin egunean inauguratuko den lehen fase honen obrek 7.800.000 euroko gastua suposatuko dute (proiektu osorako hasierako aurreikuspena 4.500.000 euro), eta oraindik ez dakigu noiz eta nola burutuko den falta dena (epeak, finantzazioa, Bergara Kirol Elkartearekin negoziaketa...).

Foru Aldundiak kostu guzti honen finantzazioaren %26,7 besterik ez du bere gain hartu. Kopuru barregarria kontuan hartuta, esate baterako, proiektu erraldoiek (autopista, AHT) gure eskualde eta herrian izango duten eragina.

Igerilekuak dira PNV eta EA alderdiek, azken agintaldian Aralarren laguntzarekin, Udal Gobernuan burutu duten gestio eskasaren adibiderik

garbiena, baina kudeaketa honen ondorioak beste batzuk ere badira: Ertzaintza duela hainbat urte joan zen Arrizuriagatik eta ez da ezer egin, auditorioa, zine aretorik ez izatea, Zabalotegiko lokalen proiektua, Urteaga kalea luzaroan itxita...

Hori bai, Bergaran 1.000 etxebizitza inguru hutsik egonik, arau subsidiario berrietan 1.400 etxebizitza berri eraikitzea planteatzen da, ditugun berdegunerik garrantzitsuenetarikoa erditik mozten dira eta auzo batzuen bizi kalitatea nabarmen murrizten da. Eta San Martin egunean igerilekuen inaugurazio ponpoxoa. Aupa, Etxebeste!

Bihar, zapatua, 12:00etan igerilekuen inaugurazioan aukera paregabea dugu hau guztia salatzeke. Bertan elkar ikusiko dugu.

Gora, arrauna!

Joseba Iturraspe
(Isuntzako arraunlari ohia)
Arrasate

Ikasketa eta lana tarteko, azkenaldian Arrasate eta Oñati bitartean dabilen kostaldeko gazte bat naiz. Astero ez izan arren, noizean behin GOIENKARIari begiradaxo bat ematea gustatzen zait. Aste honetan kafetxo baten konpainiaz GOIENKARIA zabaldu eta hara non

arraunari buruz jarduten duen eskutitz bat irakurri dudana.

Berton gogor kritikatzeko zen arraunak udaran telebistan daukan presentzia masiboa. Uler dezaket kirol hau ez gustatzea edo azkenaldian Kontxa dela-eta sortu diren iskanbilekin nazkatuta bukatzea. Ez dut uste, ordea, kirol honek medioetan duen presentzia beste kirol askoren gainetik dagoenik. Denboraldiak irauten duen hiru hilabete horietan Euskal Telebistak asteburuetan estropadak ematea gehiegizkoa al da akaso? Urtearen gainontzeko hilabeteetan ikutuan mantentzen den kirol honek errespetu gehiago merezi duela uste dut.

Barregura sartzen zait eskutitz hori irakurri ostean Realeko jokalarien entrenamenduaren nondik norakoak notizia lez marrazten dituztela gogoratzen dudanean. Kirol albisteetan futbolariak gaurkoan masaje sesioa izan dutela adieraztea arraun konpetizio baten emaitzak ematea baino garrantzitsuagoa al da? Ez dakit, *nunca llueve a gusto de todos*. Horretarako dago telebistaren mandoa.

Pozgarria da, nire ustetan, folklore lez ikusten zen jarduera hau gutxika kirol lez suspertzen ikustea eta arraunlariak urte osoan daramaten prestakuntza gogorra aitortzea. Geure kirola delako, Gora arrauna!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

12



Egin zaituz harpidedun orain eta urte amaierara arte etxean jasoko duzu Asteleheneko Goienkaria. Dei bat egin eta kitto!



Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Harremanetan sinistea eskatu aurretik ematea da.

Aurre-igarmena dei geniezaioke, baina hori baino gehiago da. Harreman batean denok bilatzen duguna. **Kutxa**n, hain zuzen ere, gure bezeroen premiei aurrea hartzea garrantzi handikoa dela uste dugu. Plangintza eta azterketa baitira gure lanaren oinarri. Horrela bakarrik ahal izango zaitugu harritu, irtenbiderik onenak eskainiz.

zer nahi duzu bihar?

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

Eskaintza honek 06/09/01etik 06/10/31ra arte balio du. Fashion, Giulio Tabacchi, Amichi, Pepe Jeans, El Caballo, Ami&chis eta Mis lupos marketako armarioentzat eta ± 4 esf.ko eta ± 2 zirk. lenhezun gogortu foku bakarentzat. www.multiopicas.com

MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

J. Carlos Guerra, 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva, 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko, 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

matrikula zabalik

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza 2
(Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Fax: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

HABEren dirulaguntzaz.

UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikasteko biderik gertukoena, erosoena eta errazena

etxean bezala


25 urte
43 zentro
Todos los niveles
Horarios personalizados
Bekak. HABEko
diplomak...



Cristina López (Elgoibar), Oscar Tena (Tolosa), Leticia Viafara (Leintz),
Juan Andrés Rodríguez (Azpeitia), Mari Carmen Barreiro (Pasaia), José Valdivielso (Legazpia), Jesusa Esnaola (Lasarte).

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Herrirako eskultura berria bozkatzeko aukera dute herritarrek > **20**



> **BERGARA**
Danborradak, globo aerostatikoa eta herri bazkaria San Martinetan > **26**



> **ARETXABALETA**
Liverpool Taldea Xabi Alonso izeneko taldea sortu dute > **33**



> **ELGETA**
Herriko produktuak eta sagardoa, bihar plazan > **37**

ARRASATE > ARRASATE IRAUNKORRA EGITASMOA

Gura dute 2007an abiarazten hastea Arrasate hobea lortzeko neurriak

HAUSNARKETA

Hausnarketaren ostean, praktikan ipintzeko ekintzak zehaztu behar

ARRASATE

Arrasatera begira eta Arrasaten garatzeko plana abiaraziko dute

DEBAGOIENA

Baina izango dira ekintza batzuk ibar osoan abiaraztekoak

UBANE MADERA > ARRASATE

Oso balorazio positiboa egin dute sei hilabeteotan Arrasateren etorkizunaren gaineko hausnarketa egiten ibili diren eragileek. Balorazio positiboa, ezen arlo guztietako 58 eragileri dei egin zien Udalak Arrasate Iraunkorra egitasmoan parte hartzeko, eta oso erantzun



ERAGILE SOZIALAK Sei hilabetean ibili dira egoera hausnartzen 50 eragile sozial baino gehiago.

VERBAX

ona izan du egitasmo horren aurreneko pausoak. Ekimenaren dinamizatzaile Juan Luis Moragesek adierazi digun moduan, oso

garrantzitsua da hori: "Ordezkaritza zabala izan da eta lan horrek izan dezakeen arrakastaren zati handi bat horri esker emango da".

Izan ere, planaren bultzatzaileek hasieratik oso garbi zuten Arrasateren egoeraren eta egoera hori hobetzeko hausnarketaren

derrigorrezko ondorioa izan behar dela ekintza planak zehaztea, eta gero haiek abian jartzea.

EPE MOTZEAN

Hain justu ere, joan den astean egin zuten hausnarketa prozesu horren azkeneko batzarra, Eskoriatzako Mendigoia hotelean. Orain, lan horretatik eratorritako helburuak eta helburu horiek lortzeko ekintza planak bateratu behar dituzte. Hala, hurrengo hitzordua da urriaren 4an: "Hausnarketa prozesuan parte hartu duten eragileei aurkeztuko diegu landutako dokumentua eta aha-legenduko gara haiengandik behin betiko onespina lortzen. Behin hori egin ostean, Iraunkortasun Planaren kontrola eta jarraipena egingo duen foro permanente bat sortzeko nondik norakoak zehaztu beharko ditugu".

Azken batean, lortu gura dutena da 2020ra bitartean, Arrasate hobea (iraunkorra) lortzeko beharrezkoak diren ekintzak abiaraztea; eta horretarako hitzarmenak egin beharko dituzte herriko arlo gehienetako eragileekin.

(19. orrialdean jarraitzen du)



Inazio Lakuntza
Arrasateko alkatea

"Oso positiboa izan da; oporren osteko asistentziak erakusten du sortu duen interesa. Oso giro ona izan da, alde batera utzi ditugu norbere iritziak, eta lan handia egin dugu. Ondorioak teorian uztea ezin da onartu; sortu behar da kontseilu bat jarraipena egiteko eta adostasun zabalagoa lortu behar dugu: plana osokoak onartu beharko du eta lortu behar dugu hemen ibili diren enpresen-eta inplikazioa, abian ipintzeko".



Albaro Arregi
Arrasateko alkate ohia

"Nik uste dut esperientzia moduan oso positiboak eta aberasgarriak izango direla gure herriarendako ekimen honetatik aterako diren deliberamendu edo konklusioak. Gainera, esperantza daukat hau ez dela izango egun birako lorea, baizik eta lan honek ekarriko duela berorren erabakiak hartzea eta haiek praktikan jartzea; bestela neu, behintzat, ez nintzateke etorriko".



Jabier Mar
Debagoieneko Ospitalea

"Inportantea dela uste dut, planteamendu berria delako. Gainera, ez da bakarrik izan esateko zelan egon behar duen etorkizuneari Arrasatek, baizik eta planteatzen da, baita ere, zeintzuk izango diren arazo garrantzitsuenak Arrasate Iraunkorra lortzeko. Uste dut ondorio batzuk praktikan jarriko direla, bereziki garraioan eta zenbait arlo antzerkotan, errazagoa izango delako praktikan jartzea".



Jabier Retege
Mondragon Unibertsitatea

"Balorazioa oso positiboa da. Lortu du Arrasateren inguruko hainbat erakunde gai zehatz baten gainean hausnartzen jartzea, sakon. Garapen iraunkorraren inguruan erroka handiak datoz eta hainbat erakundek horren inguruan irtenbideak definitzea oso positiboa izan da. Hemendik aurrera, bakoitzak dagokion eremuetan planak egin beharko ditu eta aurrera eraman. Lagunduko du Arrasate aitzindari izaten halako gaietan".

kale inkesta

Sumatu duzu puntukako gidabaimenaren eraginik?



Jose Muxika
Erretiratua
Antzuola

Bai, jendea motelago dabil, baina nik neuk ez dut gidatzeko modua aldatu. 50 urtetik gora daramatzat gidatzen eta isunak abiadura muga pasatzearen ipini dizkide; orain ezin dut pasa.



Gerardo Muñoz
Erretiratua
Antzuola

Bai, autobidean 120 km/h-ko abiaduratik ez da jende askorik pasatzen. Nik neuk ez daukat gidabaimenik, baina autoan ibili naizenean hori sumatu dut, gidariak polikiago dabiltzala.



Inaxio Peñagarikano
Langilea
Antzuola

Bai, jendea polikiago dabil. Hala ere, eskuko telefonoaren araua askok ez duela betetzen ikusi dut. Ni neu gutxi ibiltzen naiz autoan baina oportetan autobidean sumatu dut aldaketa.



Mari Beni Larrea
Langilea
Antzuola

Bai, eta nik neure buruari ere gogor egiten diot, zein abiaduratan noan begira, seinaleei gehiago erreparatu... Badakit, gainera, batek bi puntu galdu dituela abiadura muga gainditzeagatik.



Mariipi Iturbe
Langilea
Antzuola

Bai, eta norbera ere pixka bat polikiago dabil errepidean. Edaria ere beti kontrolatzen da gehiago eta seme-alabei esaten diegu autoa hartu behar badute edanarekin kontuz ibiltzeko.

5 galdera...

Maria Dolores Lete

Udal Euskaltegia
Bergara

1. Etorkinei 60 orduko euskara eskolak eskaintzen dizkiezue; ohiko ikastaroak baino egokiagoa da hori?

Ikastaro horien helburua etorkinak euskara ikastera bultzatzea da. Hortik ikastaroaren izena: AISA harrera-ikastaroak. Etorkinek hemengo gizartea, ohiturak... ezagutu eta euskara ikasteko lehendabiziko urratsak eman ditzaten diseinatu da.

2. Publizitatea sei hizkuntzatan egin duzue; horiek dira etorkin multzo handienak gurean?

Gaur egun Bergaran dauden etorkin gehienak herrialde hauekoak dira: Pakistan, Bolivia, Portugal eta Maroko; nahiz eta beste herrialde batzuetako jendea ere badagoen. Orain arte izan dugun eskarmentuaren arabera, ama-hizkuntza gaztelania dutenak dira euskara ikasteko motibazio handien agertu dutenak.

3. Horrenbeste hizkuntzarekin, zela bideratu behar dituzue eskolak?

EAEEn bizi diren etorkinendako bereziki diseinatutako eskolak izango dira. Ikastaro honetan hizkuntza dibertsifikazio hori kontuan hartuta, berariaz sortutako materialak erabiliko ditugu.

4. Oraindik badago ikastaroetan izena emateko aukerarik? Noiz arte?

Izena emateko epea irailaren 22ra arte da. Beraz, oraindik garaiz daude izena emateko. Udal Euskaltegiara deituta (943 76 44 53) edo Udaleko Euskara Zerbitzura deituta (943 77 91 31) egin daiteke.

5. Berez dituzten kezka guztiekin, zela lortu etorkinak euskarara gerturaztea?

Badakigu oso lanpetuta dabiltzala eta mila arazo dituztela. Beraz, erraztasun guztiak eman nahi dizkiegu: ikastaroa doan izango da, eta gainera oso laburra (60 ordu). Bestalde, eskolak bereziak izango dira eta gure gizartearen ohiturak-eta ezagutzeko aukera emango dieten hainbat gai motibagarri landuko ditugu: aurkezpenak, familia, zenbakiak...



txaloak eta txistuak



Ondo ikustea galarazten duen aparkalekua



Arrasateko Otalora kaleko biribilgunearen osteko aparkaleku batek traba egiten duela dio irakurle batek. Batetik, han aparkatuta dagoen autoa saihesteko berezkoa baino bihurgune handiagoa eman behar izaten duelako; eta bestetik, zebraidea ikustea zailtzen diolako.

asteke datua

913.000

Horixe da Bergarako igerileku berriak duen ur kopurua: 913.000 litro. Ur asko da, eta hori guztia berotzea gastu handia izango dela aurreikusita, eguzki-xafla sistema ipini dute. Hala, uraren %50, gutxienez, berotuko dute eguzki energiarekin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

OBRAK > AP1 AUTOBIDEA

Astelehenean zabalduko dute Mugarritetik Arrasaterako sarrera

Uztailean lur-jauzia izan zen han, eta horregatik itxi zuten; orain arte ez dute zabaldu, pareta batzuk indartzeko lanak egiten ibili direlako

UBANE MADERA > ARRASATE

"Aurreikuspenen arabera, oraingo astean bukatuko ditugu pareta konpontzeko obrak eta datorren astelehenean (hilak 18) zabalduko dugu bide hori. Lehenago ahal bada, lehenago zabalduko dugu, baina astelehena da gure aurreikuspena". Hala adierazi digu Bidegiko prentsa arduradun Oskar Rekaldek. Obrakoek, berriz, jakinarazi digute lan guzti-guztiak ez dituztela bukatuko astelehenerako, baina bide hori zabaltzeko moduan izango dela.

Pozik hartuko dute, bada, albiste Aretxabaletatik Arrasaterako bidea egiten dutenek, orain arte bide zaharretik edo Bedoñako sarreratik ibili behar izan dute eta joan-etorria egiten.

Joan den uztailean 6an itxi zuten Aretxabaletatik Arrasate-



ARRISKUA Lur-jauzi arriskua saihesteko lanak egiten ibili dira.

U.M.

ra sartzeko saihesbidearen lehenengo sarrera, Mugarritekoa, lur-jauzi bat izan zelako han. Bidegitik jakinarazi digutenez, saihesbidera jausi zen lurra berehala batu zuten, baina segurtasun moduan, erabaki zuten lur-jauzi gehiagorik ez izateko konponketa lanak egitea; hain justu

ere, besteak beste, Mugarriten dagoen 500 metroko pareta bat egonkortzen ibili dira orain arte.

Osterantzean, Arrasate-Eskoriatza arteko autobide zatiko lanak bide onetik doazela esan digu Rekaldek; aurreikusitakoa bete eta 2008ko urtarrilaren leian zabalduko dute.

INGURUMENA > MUGIKORTASUN ASTEA 06

Modu efizientean gidatzeko ikastaroa antolatu dute Mugikortasun Astean

Datorren barikuan eta zapatuan izango da; izenematea, berriz, martitzena baino lehen egin behar da, BAZen

ta ere, 16:00etatik 20:00etara. Martitzena, hilak 19a baino lehen eman behar da izena, Biztanleen Arreta Zerbitzuan. Ikastaroen helburua da autoek kontsumitzen duten erregai zela murriztu erakustea. Izan ere, %20 murriztu daiteke erregai eta atmosferara isurtzen ditugun partikula kutsatzaileak ere neurri berean gutxituko dira.

U.M. > ARRASATE

Gaurtik irailaren 24ra arte Mugikortasun Astea ospatuko dute Arrasaten, Udalaren eskutik. Iragarritako ekitaldien artean, datorren egubakoitzean hasita, *Gidatzeko era efiziente-ekonomikoa* ikastaroa izango da.

Hamabost pertsonako hiru talde antolatu gura ditu Udalak: egubakoitzean, hilak 22, 17:00etatik 21:00etara; zapatuan 10:00etatik 14:00etara eta zapatuan, bai-

URBANOAN ERABILTZEKO BONOIA

Horrez gainera, bestelako ekitaldiak ere izango dira. Esaterako, 18tik 24ra etxez etxe banatutako bonoekin urbanoan doan ibil daiteke; eta Autorik Gabeko Egunean, irailaren 22an, egun osoan doan izango da urbanoa. Hilaren 20an, berriz, herrian bizikletan ibiltzen ikasteko praktikak egingo dituzte, Laubiden, 17:00etan.

> PRESOK

"Bizi arteko espete zigorraren kontra" mobilizatzeke dei egin du Askatasunak

Arrasateko zenbait preso politikoren egoera salatu zuten martitzenean prentsaurrekoan. Askatasunak gogorarazi zuen Iñaki de Juana presoak 37 egun (gaur, egubakoitzea, 40 egun) daramatzala gose greban "askatasun eskubidearen defentsan". Eta salatu zuten De Juanaren egoera berean daudela Arrasateko *Gazta*, Unai Parot, Jon Agirre eta Josu Uribebarria preso politikoak; hau da, haiek ere, "askatasun eskubideak urratuta" dituztela. Hori salatzeko, atzorako (eguna) manifestazioa deitu zuten; eta bihar Euskal Herriko hiriburu guztietan izango diren manifestazioetan parte hartzeko dei egin zieten herrikideei.

Herriko dantzari taldeen aldeko HARAGI PINTXO DASTAKETA

Arrasateko Enparantza Nagusian
zapatua, 2006 - 09 - 16
arratsaldeko 7etan

Antolatzaileak

Agirre-Etxe Harategia
Zarugalde, 33Gorka Harategia
Merkatua, 15. postuaKajoi Edaritegia
Erdiko kale, 20J.Elorza Harategia
Juan Bengoa, 1J.R.Otamendi Harategia
Olarte, 13-B

www.arrasate-mondragon.org

Bidaiarako automobila beste batekin banatzeko interesa duten **personak elkartzeko zerbitzua**

Arrasateko datu esanguratsuak:

	2004	2005
Autoak	10.712	10.845
Ibilgailuak	12.128	12.279
Motorizazioa (ibilgailu pertsonako)	0,523	0,543

Mugitzeko era

	Barne mugikortasuna	Eragindako mugikortasuna
Norberaren ibilgailua	%56	%82
Oinez / bizikletaz	%38	%17
Garraio publikoa	%6	%1



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Ingurumen Saila ■

(15. orrialdetik dator)

Edozelan ere, epe motzera begira hasiko gara igartzen ekimen horren emaitzak: "Plana epe luzerako da, 2020ra artekoa; baina zenbait ekintza egingo ditugu 2007an, 2009an eta 2012an, esaterako; hau da, apurka-apurka garatzen joango garen plana da".

ZER AZTERTU DUTE

Moragesek jakinarazi digunez, 71 aldagai aztertu dituzte sei hilabeteotan: sozio-ekonomikoak, ekonomikoak, ingurugirokoak, energetikoak, garraiokoak eta administrazio politikakoak, esaterako. Zehatzago esanda, aztertu dute adibidez, biztanleriaren zahartzea, bizikaltatea, ekonomiaren globalizazioa, Arrasateko merkataritza eta zerbitzu sektorearen eboluzioa, energia berriztagarriak, klima aldaketaren eboluzioa, petrolioaren mendekotasun maila eta zirkulazio pila-ketaren maila.

Hori guztia abiapuntu izanda, zenbait helburu proposatu dituzte, azterketarako. Adibidez: 2009an zabaltzea biomimesia sistema industrian; hau da, erabiltzea ahalik eta gehien baliabideak (hondakinak eta isuriak baliatzea). Edo 2010ean Udalak ipintzea 1.000 etxebizitza alokairu sozialean. Edo 2010ean, baita ere, etxebizitzaren %90ean kablea sartzea eta horri esker zenbait langilek lan jardunaren %30 etxetik egin ahal izatea.

Edo 2010erako familien %50ak erosketak egitea Arrasateko komertzioetan eta saltzen diren produktuen %70ek etiketa berdea izatea (iraunkortasun labela).

Dena den, lehen esandako moduan, horiek proposamenak besterik ez dira. Behin betiko helburuak, praktikan ipiniko dituztenak onartuko dituzte datorren urriaren 4an.

ZEINTZUK IBILI DIRA LANEAN

Lan hori guztia egiten ibili dira, lehen esandako moduan, Arrasateko bizitzan eragina duten arlo guztietako 50 eragiletik gora: industria sektorekoak, merkataritza, eraikuntza, zerbitzuak, politika, osasuna, kultura, sindikatu eta beste hainbat erakunde eta elkarteetako ordezkariak, Arrasaterako plana egituratu nahian. Edozelan ere, izango dira zenbait ekintza bailara mailan abiaraziko dituztenak: "Gure lana udalerrri mailan egin arren, zenbait aspektu ibar mailakoak dira; ondorioz, zenbait helburu eta ekintza ibar mailan abiaraziko ditugu, beti ere, Mankomunitateak onartzen baditu", adierazi digu Moragesek.

Kontuak kontu, orain Arrasateren etorkizuna hobetuko duen plan bat osatu behar dute datozen hilabeteotan. Euskal Herrian halako zerbait egiten duen lehen herria da Arrasate. Atzera ere erdugarri, beraz.



U.M.

Zerkaosteta kalea oinezkoendako bihurtu guran

Oraingo astean erabaki du Udalak dirulaguntza eskatzea Jaurilaritzari Zerkaosteta kalea oinezkoendako bihurtzeko. Udalaren asmoa da herriko merkataritza indartzea, eta hori oinarri, azken urteotan dabil zenbait egitasmo gauzatzen. Esaterako, Arrasateko erdigune guztia oinezkoendako egokitu zuten eta apurka-apurka handitzen dabiltza oinezkoendako gune hori erdigunetik gertuko kaleetaraino. Jaurilaritzak erantzuna ematen duenean zehaztuko dituzte Zerkaostetako proiektuaren nondik norakoak.

OBRAK > MANKOMUNITATEA

Lau urte barru lekuz aldatuko dute

Oraingo egoitza txikia eta desegokia da; hori dela-eta, lokal berria egokituko diote Mankomunitateari, Nafarroa etorbidean

egoitza, Lanbide Hastapena dagoen eraikineri. Nafarroa etorbidearen 17, 19 eta 21 zenbakiak hartuko ditu Mankomunitateak.

ZENTRALIZATZEA HELBURU

Mankomunitateko idazkari Belen Txintxurretak esan digu helburua dela Mankomunitatearen zerbitzuen arduradun guztiak egoitza berean bateratzea, eta egoitza hori, Arrasatenegongo dela, orain moduan; hala, Garapen Ekonomikorako Agentzia Nafarroa Etorbideko eraikin horretan dago. Eta Suradesa ere Nafarroa etorbidera eramango dute, Mankomunitatearekin batera.

Dena den, leku aldaketaren arazoi nagusia da oraingo lokal txiki geratu zaiela eta gainera ez dela egokia, oztopo arkitektonikoak dituelako.

U.M. > ARRASATE

LKSri esleitu diote Mankomunitatearen egoitza berria birgaitzeko proiektua. 170.000 euroko aurrekontua eta bost hilabete epea ezarri diote LKSri proiektu hori idazteko, beraz, urtarrilerako gertu izan behar dute. Gero, Mankomunitateak berak lau urteko epea zehaztu du leku aldaketa egiteko. Hain justu ere, Arrasate Pasealekutik Nafarroa etorbidera aldatuko dute Mankomunitatearen

> ERLIJOIA

Katekesirako izenematea datorren astean izango da

San Juan parrokiatik jakinarazi digute aurtengo ikasurtean katekesian ibili nahi dutenek irailaren 20an eta 21ean (eguztiena eta eguena) eman beharko dutela izena; 17:30etik 19:00etara bitartean. Katekistak izango dira harreraren egiten, izan ere, ikasleek fitxa bat bete beharko dute.

> KINTOAK

1949an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute

1949an jaiotakoendako urteko bazkaria deitu dute datorren urriaren 21erako. Parte hartu gura duenak Lore edo Zabaleta lurrindegietan eman behar du izena eta 30 euro ordaindu. Egitaraua ere zehaztu dute: 13:00etan meza San Frantziskon eta gero, bazkaria Batzokian.



HERRIAN Familien %50ak herrian erosi beharko luketela aztertu dute. I.B.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

AGR
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711762

ESKULTURA LEHIAKETA > HERRITARREN AUKERAKETA AINTZAT HARTUKO DUTE

Herrira zabaldu dute kooperatiben gaineko eskultura bozkatzeko aukera

Udalak esku-hartzea bultzatu gura du kooperatiben gaineko eskultura aukeratzeko; Monterronera joan eta bozkatzeko gonbita egiten dihardu

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Aurreko astean iragarri genizuen Udalak kooperatiben gaineko eskultura lehiaketa antolatu zuela. Horren helburua da Arrasateren eta kooperatiben arteko lotura irudikatzea, ibarraren berrikuntza eta garapena azpimarratzea eta kooperatibismoari omenaldia egitea. Deialdia Espainiako Estatuan egin zuten, eta dagoeneko bukatu da izena emateko epea. Hamaila lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta horietako gehienak Euskal Herriko eskultoreenak diren arren, bada tartean Madrilgo artistaren bat ere.



URBANIZAZIO BERRIAN Eskultura irabazlea Biteri plaza berrian jarriko dute.

I.B.

Gaurtik, egubakoitza, hilaren 22ra arte lan horiek guztiak ikusgai egongo dira Monterrongo erakusketa aretoan, goizez eta arratsaldez. Erakusgai egongo

direnak ez dira behin betiko lanak izango, baizik eta tamaina txikiagokoak. Aukeratua izango den lana benetako tamainan egin beharko dute.

HERRITARREI GONBITA

Erakusketa horrekin lotuta, Udalak posta bidez esku-orri bat zabaltzen dihardu, ekimenaren berri eman eta herritarrei gon-

bita egiten erakusketa ikusi eta gustuko den eskultura bozka dezaten. Hain zuzen ere, postaz jasotako esku-orri bera erabili ahal izango da Monterronen botoa emateko.

HERRITARREN ARTEAN, ZOZKETA




Aukeraketan esku hartuko duten herritarren artean eskultura irabazlearen hiru erreplika zozkatuko dituzte.

Hala ere, herritarrena ez da izango aukeratzeko balio duen ahots bakarra. Hain zuzen ere, bozkatuko duten herritarren iritzia %30ean hartuko da aintzat. Gainontzeko %70a Udalak aukeratutako epaimahai batek erabakiko du. Epaimahai hori eskulturren gaineko adituek eta udal ordezkariak osatuko dute.

BITERIN JARRIKO DUTE

Hilaren 22an emango dute epaia Monterronen, eta irabazleak azaroaren 22ra arte izango du behin betiko lana egiteko aukera. Biteri plazan jarriko dute, aparkaleku berrien gainean, Maalako sarreraren parera.

LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO LANAK

LOKA III
Esteban Kerexeta JausoroESFERAREN AZTARNA
Paco San Miguel AsensioARGI
Mikel Lertxundi ArgoitiaSEIKOTE BIZIA
Luis Akizu OlanoBOSTEKO
Mikel Azkuna Mendiola.IRAUTEN DUEN LAN NAGUSIAN
SINFONIA Iñaki Albisu AparicioDE-CONSTRUCCION / NUMERO 5
Juan I. Ayesta OñateARRASATEKO BIKOTE
Jon Balentziaga LarrañagaDENOK BATERA
Carlos Lopez de CeballosHITZA, HITZA DA
Aitor Urdangarin Unzueta

MEHER

BaÑez dokorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Maritxutarako eskaintza zabala
arropa eta osagarrietan.



BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

AIZEA
Marta Salinas Font

Hizkuntza gehiago denontzat haur, gazte, helduentzat

txinera - frantsesa - alemana - ingelesa - italiera

Beste zerbitzu batzuk

- itzulpengintza eta interpretaritza
- ikastaro trinkoak
- murgiltze ikastaroak
- atzerriko ikastaroak
- ikastetxeko irakasgaietarako laguntza-eskolak

matrikula epea zabalik

Klaseak:

Aramaion, Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan, Oñatin



Arrasate

Araba Etorbidea 4 ■ Tel.: 943 71 20 55
mlarrasate@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

Oñati

Olakua 14 ■ Tel.: 943 71 60 00
mloinati@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

MENETA
taberna

Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 2500 arrasate

- Eguneroko menuak
- Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
- Pintxoak
- Errazioak
- Domeka gauetan sukaldea itxita



ERDU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIETAN IKASTARO PRAKTIKOAK

- Metodologia komunikatiboa
- Talde dinamika eta erabilera
- Euskararen teoria eta praktika
- Hizkuntza eskakizunak eta EGA

Matrikulazio epea: irailaren 4tik 28ra • Ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00

Garibai, 14-3. • Tel.: 943 77 03 69 • ARRASATE • e-posta: arrasate@aeknet.net

EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA 2006ko IRAILAREN 16tik - 22ra

Aldaketa eskatzen digu munduak

Arrasatek aldaketa eskatzen digu

Birzikleta, bigarren eskuko bizikleta merkatua (3. edizioa)

Merkatu eguna: irailaren 23a

Tokia: Seber Altube Plaza

Ordua: goizez 11:00 - 14:00; arratsaldez 17:00 - 19:30

Noiz eta nola batuko den materiala:

- Zer batuko da?: egoera onean dagoen edozein material. Edozein motatako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepedekoak, haurren bizikleta, triziklo, patin, patinete, kasko, belozimetro, gurpil, eskularruak, mailotak ...
- Noiz eta non batuko da materiala?: Udal azokan
Irailak 16, zapatua: goizez 11:00 - 13:00
Irailak 19, martitzena eta irailak 21, eguena: goizez (11:00 - 13:00) eta arratsaldez (17:00 - 19:00).

Ikastaroa: Gidatzeko era eraginkor eta ekonomikoa

15 pertsonako 3 talde - 4 orduko ikastaroa

1. taldea: Irailak 22, egubakoitza: 17:00 - 21:00

2. taldea: irailak 23, zapatua: 10:00 - 14:00

3. taldea: irailak 23, zapatua: 16:00 - 20:00

Izenematea: Seber Altubeko Biztanle Arreta Zerbitzuan, BAZen.

Izen emateko epea irailaren 19an bukatuko da.



ALDATU

Guztiok bat eginik, **Arrasate** Klima Aldaketari aurre egiteko gauza izango da. Autoa gutxiago erabiliz. Garraio publikoa baliatuz. Bizikletan ibiliz. Edo oinez. Autoa aparkatzea da kontua. Horixe ari zaigu eskatzen mundua.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y
OBRAS PÚBLICAS



ingurumena.net
Gure eliza da
Ez da on inoiz ere inoiz



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Fertxu Rodriguez eta Beñardo Kortabarria > Ford Mugarri Arrasate eskubaloit taldeko entrenatzaileak

"Euskadiko Txapelketan azkarrago jokatu beharko dugu, hor dago alde handiena"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Ford Mugarri Arrasatek Lehenengo Territorioetik Nazional B Mailara jauzi egin berri du, eta Beñardo Kortabarria eta Fertxu Rodriguezek gidatuko dute taldea. Beñardok urteak daramatza entrenatzaile lanetan; Fertxuk, berriz, joan den urtean utzi zuen eskubaloia, Arrasaten, Arraten eta Aloña Mendin jokatzeko ibili eta gero.

Beñardo, hainbat urte maila txikiagoetan entrenatzen ibili eta gero talde nagusira itzuli zara. Zer aurkitu duzu?

Egia esan, nik utzi nuenetik talde nagusia asko aldatu da, orduko sei jokalarik baino ez daude-eta. Baina, gainontzeko jokalarik gehienak nirekin izan dira maila txikiagoetan; horrenbestez, taldea nahiko ondo ezagutzen dudala uste dut.

Aurten, gainera, Fertxuren laguntza izango duzu taldea zuzentzerako orduan.

Halaxe da. Laguntza handia izango da niretako, aste barruko entrenamenduak berak gidatuko dituelako. Horrekin batera, orain dela gutxira arte maila gorene-



Kortabarria eta Rodriguezek hartuko dute Arrasateko aulkian Andoni Arandok utzitako lekua.

XABIER URTZELAI

tan jokatzeko ibili da Fertxu eta ondo daki goiko kategorian horietan ibiltzeko zer behar den. Alde horretatik, bere esperientzia garrantzitsua izango da taldearendako.

"Txakur zaharra denak asko du irabazita; gure taldean esperientzia da behar duguna"

Fertxu, urte mordoan kanpoan jokatzeko ibili eta gero Arrasatera itzuli zara. Jokatzeko tentaziorik ez?

Seguru izango dudala kanpxara jokatzera irteteko tenta-

zioa, eta horregatik bete ditugu fitxa guztiak, badaezpada ere.

Arrasateko taldearendako Euskadiko Txapelketa kategoria berria da.

Halaxe da, eta maila horretara lehenbailehen moldatzea izango da erronketako bat. Kontuan izan Ohorezko Ligan jokatu izan duten jokalariek daudela Euskadiko Txapelketan, esperientzia handia dutenak; txakur zaharra izateak asko balio du kategorian horretan.

Gaztea izatearekin batera, Arrasateko taldea irabaztera ohituta dago.

Dagoeneko hasi gara horretan lanean, jokalariek konfiantza handiarekin ikusten ditugulako. Eta, hori arriskutsua izan daiteke, aurtengo norgehiagoka askotan sufritu egin beharko dugu-eta.

Baina, lan egiteko moduko taldea duzue, ala?

Bai, nik ez dut uste gainontzeko taldeekiko alde handia egongo denik. Esperientzia apur bat behar dugu, baina talde txukuna dugula uste dut.

XAKEA > ARRASATE HIRIA TXAPELKETA

Txapelketako faboritoek ez dute lehenengo jardunaldian ezustekorik izan gura

Arrasate Hiria Txapelketako bigarren jardunaldiari ekingo diote asteburuan, norgehiagoka erakargarriekin

X.U. > ARRASATE

Oihartzun handi barik hasi da aurtengo Arrasate Hiria Xake Txapelketa, dagoeneko seigarrena. Jardunaldiek aurrera egiten duten neurrian, baina, seguru txapelketa berotzen joango dela.

Joan den astean jokatu zuten torneoko lehenengo jardunaldia, eta 22 lehiakideren artean, faboritoek ez zuten kale egin. Gauzak horrela, FIDE maila duten xakelarien artean norgehiagoka bakarra izan zen, nazioarteko maisu den Alejandro Franco madrildarrak eta Zaragozako Javier Lariosek jokatu zutena. Hala, txapelketako faborito den Alejandro Francok ondo eman zuen lehenengo kolpea, Aragoikoa mendean hartuta.

Aipatzeko moduko partidekin jarraituz, rankingean biga-

ren lekuan dagoen Fran Miguel aretxabaletarrak Manuel Nafarrate arrasatearra izan zuen kontrario, eta Fran Miguelek ere irabazi egin zuen. Azkenik, Arrasate San Andres Xake Taldeko lehenengo jokalariek, Josu Tornayk, klubeko beste kide bat izan zuen lehiakide, Juan Manuel Ruiz gaztea, hain zuzen; eta Tornayk ez zuen barkatu.

BIGARRENA JOKATZEKO

Txapelketako estreinaldia egin da, xakelariak bigarren jardu-

naldiari ekingo diote asteburuan, eta hainbat partida interesgarri aurreikus daitezke. Batetik, Josu Tornayk erronka ederra izango du torneoko faboritoaren aurrean. Horrekin batera, Fran Miguelek Txema Hernando izango du aurrean, Aretxabaleta eta Arrasate aurrez aurre. Hirugarren taulan, berriz, zarauztarren arteko derbia izango da, Ander Zulai eta Fran Ladron de Guevara izango dira-eta lehian. Horiekin batera, baina, beste partidek ere eman dezakete zeresana.

MENDIA > BESAIDEKO OROITZAPEN EGUNA

Domekan dute mendizaleek urteroko hitzordua

Mendian hildako lagunak omenduko dituzte, 51. aldiz, Besaideko gainean

X.U. > ARRASATE

"Domekan Besaidera datozenek ez dute ogitartekorik edo edatekorik ekarri behar izango, txosna jarriko dugu-eta". Hori xe esan digu Erdella mendi taldeko presidente Maite Arginzo-

nizek. Goizeko 11:00etan meza esango dute, eta Elorrioko Besaide dantza taldeko dantzariak izango dira, trikitilariak lagunduz, goiza girotzen.

MENDIKO JOKOAK

Eta, 12:00etan hasiko dira mendiko jokoak: "Herri kirol modukoak dira, baina mendiko materiala erabiliko dugu; hau da, soka tiran, adibidez, arnesa erabiliko dugu. Bide batez, jendea animatu gura dut mendi jokotan parte hartzera".

GAK

Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

- Era guztietako garbiketak
- Zuen komunitateko administrazioa
- Konponketa orokorrak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



BERRIA Duela lau urte itxi zituzten lehengo igerilekuak eta orain arteko putzua zapatuan itxiko dute, instalazio berriak erabiltzeko gertu daude dagoeneko eta.

OIHANA ELORTZA

ZERBITZUAK > BIHAR, ZAPATUA, INAUGURATUKO DUTE AGORROSIN

Estreinatzeko prest daude baldosarik gabeko Euskadiko lehen igerilekuak

Zapatutik aurrera zabalik egongo da, nahi duten guztiek erabiltzeko

Herritarrendako arreta bulegoa Agorrosinen dago eta taldeendako, udaletxean

OIHANA ELORTZA > BERGARA

San Martin egunean, zapatuan, inauguratuko dute Agorrosin. Umeak izango dira igerileku estreinatzen lehenak, 10:00etatik aurrera eurentzako puzgariak eta ur jolasak egongo direlako. Inaugurazio ofiziala, baina, 12:30ean izango da eta Aldundiko eta Udaleko ordezkariak egongo dira. Zapatuan eta domekan zabalik egongo da Agorrosin, nahi duenak barrura sartu eta eraikina ikusteko, eta astelehenean 07:00etan zabalduko dute erabiltzaileendako.

Zazpi milioi euro eta urte eta erdi erabili dute eraikina egiteko

Zapatuan inauguratuko duten eraikina zazpi milioi euro kostatu da guztira, 480 euro herri-

tar bakoitzeko, gutxi gorabehera. Kopuru horretatik, bi milioi euro Gipuzkoako Aldundiak jarri ditu eta gainerakoa Udalak. Datorren udaberrian zabalduko duten bainuetxea egiteko ia milioi bat euro beharko dituzte eta beste 400 milioi euro hurrengo udan zabalduko duten kanpoko ingurua txukuntzeko.

Denborari buruz, 2002ko irailean itxi zituzten igerileku zaharrak eta 2003ko otsailean zabaldu zuten bihar bertan itxiko duten behin-behineko igerilekuak. Eraikin zaharra botatzen 2004aren bukaeran hasi ziren eta 2005ean hasi ziren berria egiten.

Udalak kudeatuko du zuzenean Agorrosin ekintza-gunea

Udalak kudeatuko du zuzenean Agorrosin. Hango langile batzuk udal langileak izango dira eta beste batzuk kontratatutako enpresetako langileak, orain arte bezala. Guztira 33 lagunek egingo dute lan Agorrosinen: hiru garbitze lanetan, hiru atezaintzan eta idazkaritzan, bi mantentze-lanetan, gerente bat, hiru sorosle, zortzi begirale eremu lehorrerako, bost begirale eremu bustirako eta zortzi lagun taberna eta jate-txean lan egiteko. Lehen bederatziz langileak udal langileak

izango dira eta besteak enpresa askotariko langileak.

Kirola, aisialdia eta kultura uztartuko ditu Agorrosinek

Zapatuan inauguratuko duten eraikinari Agorrosin ekintza-gunea izena jarri diote, ez delako kirol-gune bat bakarrik, aisialdia eta kultura ere batzen dituelako.

Bi baten leloa lortzeko egin dute lan eraikina diseinatzeko: kirola eta aisialdia eraikin berean. Kirolari begiratura, adibidez, errendimenduko ikuspegia eta osasun eta aisialdi ikuspegiak bateratzen ditu. Horrela, lehiaketako igerilarien beharrak, jai-

berrienak, ikasi gure dutenenak eta urrituenenak betetzen ditu. Gainera, beheko solairuan eremu bustia eta lehorra daude: bustian igerilekuak eta bainuetxea egongo dira eta lehorrean gimnasioak eta erabilera askotariko aretoak. Baina kultura ere sartu dute eraikinean eta *Hiru baten* kontzeptua burutu dute horrekin: Xipizaro ludoteka Agorrosinen egongo da aurrerantzean eta taberna hainbat ikuskizun antolatuko dituzte, besteak beste. Goiko solairuan egongo diren beste guneak dira: ekitaldi aretoa eta kirol elkarteendako bulegoak. Bergarako federatuak 800 kirolari dira eta 17 kirol elkarte daude. Baliabide informatikoak eta batzar gela izango dituzte elkarteek han.

Bi kirol bulego eta ordutegi zabalagoa hemendik aurrera

Kirol Zerbitzuko langileak Agorrosinen egongo dira hemendik aurrera. Hantxe egongo da herritarrendako arreta bulegoa eta hara joan beharko dute bazkide egiteko, ikastaroetan izena emateko edo herriko kirol eremuak alokatzeko; frontoiak, adibidez (943 77 70 95). Udaletxean elkarre, enpresendako eta ikastolendako arreta bulegoak egongo da eta eskola kirol teknikaria eta kirol teknikaria egongo dira udaletxeko bulegoan (943 76 91 67).

Ordutegiari dagokionez, astelehenetik egubakoitza arte

SMS bidez abisatuko dute ikastaroa egongo den edo ez

Astelehenean bertan hasiko dira kirol ikastaro eta jarduerak. Batzuetan gertatzen da, edozein arrazoi dela medio, ezin dela ikastarorik eman egun jakin batean. Bada horrelakorik gertatzen denean, SMS bidez abisatuko diote ikasleari egun horretan eskolarik ez dagoela. Horretarako, komeni da izenemate orrian segapotoaren zenbakia ere jartzea. Abisu horiek e-postaz ematea pentsatu zuten hasieran baina SMSak askoz eraginkorragoak direla ikusita, sistema hori erabiltzea erabaki dute.

Momentu honetan 1.500 herritarrek dute kirol txartela; horietako milak txartel mankomunatuak dute eta gainerako 500ek Bergarako kirol txartela. Agorrosin ekintza gunea zabaldu ostean, ordea,

erabiltzaileak bikoiztu egingo dituztela uste dute. "Uste dut 3.000 bazkide izatera iritsiko garela", dio Unai Asurmendi kirol teknikariak.

Interesa, behintzat, agertu dute herritarrek. Iraileko lehen bi astetan jende asko joan da zerbitzuek galdetzer, ikastaroetan izena ematera edo bazkide egitera. 1.100 plaza dituzte ikastaroetan, adibidez, eta dagoeneko 1.200 eskuorri eman dituzte. Atzo, eguena, zozketatu zituzten plazak eta gaur, egubakoitza, eguerdian behin betiko zerrendak jarri behar zituzten. Orain ikusiko dute zein ikastarok izan duten arrakasta handiena eta aztertuko dute talde gehiago egin edo ez. Astelehenean izena emateko bigarren txanda zabalduko dute eta eman ahala gordeko dute lekua.

07:00etatik 22:00etara egongo da zabalik Agorrosin eta zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

Ordenagailuz kontrolatuko dute kontsumoa

Energia aurrezteko, hegoaldera begira egin dute eraikina eta sabaia egurrezkoa da. Horrez gain, 18 eguzki xafla fototermiko jarri dituzte eraikinaren goiko aldean, igerilekuek behar duten ura berotzeko. Kalkulatu dute ur kopuruaren %80, batez beste, sistema horrekin berotuko dutela. Iraileko lehen egunetan egin duen beroarekin, adibidez, igerilekuetako ura %100ean berotu dute xaflek eta soberan gelditu den beroa dutxetara bideratu dute gero.

Eraikinak zenbat eta noiz kontsumitzen duten datuak ordenagailu batek jasoko ditu. Hori ez ezik, eraikin osoa kontrolatzeko ahalmena eta ordenagailu horrek, eta munduko edozein tokitik egin daiteke kontrola Internet bidez.

Zabaleran bi metro eta hamar kale ditu igerileku handiak

Igerileku handiak 25 metro ditu luzeran eta 21 zabaleran. Hamar kale ditu guztira eta zabaletara nahiz luzetara antola daitezke. Sakonerari dagokionez, berriz, gehiengo sakonera 1,60 metro da eta gutxienezkoa 1,20 metro. Putzu handiak ia 1.000 metro kubiko ur hartzen ditu eta 26 graduan egongo da ura. Txikia, berriz, 33 graduan egongo da eta jaioberriei igeri egiten erakusteko prestatuta daukate. Igerileku txikiak 19 metro ditu luzeran eta zazpi zabaleran; 90 metro koadro guztira.

Igerileku barruan ez dago baldosarik eta inguruan eta aldageletan dagoena berezia da; baldosa zimurtsuak jarri dituzte eta erabiltzailea erosoago ibiliko da, ez dira eta labainkorrak. Horiek erabiltzen Euskadiko lehen eraikina da Agorrosin. Bestalde, irisgarritasun neurri guztiak betetzen ditu. Zerbitzu guztiak maila berean daude, ez dago koskarik. Igogailua dago eta igerilekuko eskailerak barruan daude sartzea errazteko.

DATU BATZUK

> TAMAINOA

Eremu lehorrak 1.000 metro koadro ditu eta igerileku eremuak beste 1.100. Agorrosin osoak, hala ere, 200.000 metro koadro ditu. Hor sartzen dira: igerilekuak, gimnasioak, goiko solairua, futbol zelaia, belar futbol zelaia eta berdegunea.

> KOSTUA

Zapatuan zabalduko dutena egiteko 7.000 euro inbertitu dituzte eta horietatik 2.000 Gipuzkoako Aldundiak jarri ditu. Bainuetxea eta kanpoko berdegunea egiteko beste 1.400 euro beharko dituzte.

> LEHENENGOA

Euskadiko lehen da igerileku barruan baldosak ez izaten eta aldageletan arroak izaten.

Hatz marka erakutsita sartu ahal izango da barrura

Agorrosinera sartzeko ez da txartelik erabiliko astelehenetik aurrera, behatza baizik. Argaz-

ki bat eta hatz marka aterako dizkiote erabiltzaileari Agorrosinera doan lehen egunean. Hortik aurrera, erabiltzaileak hatza berterik ez du erakutsi behar izango barrura sartzeko.

Bestetik, igerilekuen gunean, gimnasioan nahiz ekintza askotariko gela bakoitzean musika mota ezberdina jar dezakeen soinu ekipa berezia ere badago.

Auto-finantzaketaren politika hasiko dira aplikatzen 2007an

Gaurtik urtea bukatu arte eraikina erabiltzeko zenbat ordaindu behar duten argi dago: txartel mankomunatua dutenak txartel horrekin sartuko dira eta Bergarako bakarrik zutenek eta bazkide ez zirenek abendura artekoa atera beharko dute. Tarifa horiek ere zehaztuta daude dagoeneko. Zehaztu barik dagoena da 2007tik aurrera txartelak zenbat balioko duen eta txartel mankomunatuarekin sartu ahal izango diren bazkideak Agorrosinera edo txartel propioa izango duten. Hori datozen asteetan erabakiko dute.

Irailearen bukaeran edo urriaren hasieran bilera bat egingo dute Debagoieneko kirol teknikariek. Ordurako, Bergarako Udalak erabakita izango du Agorrosinera sartzeko ordaindu beharreko hila oroko kuota. Oraingoa baino altuagoa bada, udal bakoitzak erabakiko du prezio horretara parekatuko diren eta txartel mankomunatuan sartuko diren guztiak edo ez.

2007tik aurrera auto-finantzaketaren politika aplikatzen hasiko dira eta horrek izango du zerikusia hurrengo urteko tarifa erabakitzeko orduan. Eraikinaren ezaugarri kuantitatiboak eta kualitatiboak hartuko dituzte kontuan tarifa jartzeko eta hor sartzen dira zapatuan zabalduko dituzten zerbitzuak eta datozen hilabete eta urteetan egingo dituztenak. Beraz, 2007tik aurrera kobratuko duten kopuruaren zati bat izango da ordaintzeko bainuetxea (ur txorrotatuzko terapeutikoak, jakuzzia, saunak) kanpoko eremu berdea (berdegunea, aldagelak, bainugelak), belar artifizialeko futbol zelaia, fitness aretoa eta kanpo zelaia, besteak beste.

AGORROSINEN HAINBAT XEHETASUN




IZENEMATEAK

Jende asko joan da ikastaroetan izena ematera eta bestelako informazioa eskatzera, eta, batez beste, bazkide ere egin dira. Arratsaldean eta iluntzean joan dira gehienak, eta ilarak sortu dira.



IGERILEKUA, AZPITIK

Igerilekuek ez dute lur lauzarik, baldosarik, eta altzairu herdoilezinez eta PVC bereziz eginda daude. Horri esker, ez dute putzua hustu behar matxura non dagoen jakiteko, azpitik ikusiko eta konponduko dute.



LEGIONELAREN AURKA

Legionelarik ez sortzeko, ur hodian gelditzen den ura botatzen duten sistema jarri dute dutxetan, *txilibitu* sistema. Lanean ibili direnen artean asmatu dute, iturgin eta teknikarien artean.



GIMNASIOAK

Behin-behineko fitness aretoak 180 metro koadro ditu eta erabilera askotariko 150 metro koadroko bi aretoak 75eko lautan bihur daitezke. Moldatzeko errazak izatea da gimnasioen ezaugarria.



EGUZKI XAFLAK

18 eguzki xafla fototermiko jarri dituzte ludotekaren ondoan. Xafla horiekin berotuko dute igerilekuek behar duten uraren %80 pasa, batez beste. Udan, esaterako, %100ean berotuko dituzte igerilekuak.



IRISGARRITASUNA

Eraikinak bi solairu ditu eta solairu bakoitzean ez dago ez maldarik ez koskarik; lur azalaren mailan daude zerbitzu guztiak. Kartelak braillez ere idatzita daude itsuedako, euskaraz eta espainolez.



'BI BATEN'

Eraikinaren beheko aldean daude eremu bustia eta lehorra; parez pare daude. Bustian igerilekuak eta bainuetxea egongo dira eta lehorrean gimnasio aretoak. Goian, ludoteka, taberna, aretoa eta bulegoak.



TABERNA

Ia 200 metro koadro ditu tabernak. Avenida SL enpresa arduratuko da. 150 menu emateko tokia du. Urtean zehar ikuskizunak antolatuko dituzte eta herriko topaleku bihurtu nahi dute. Ondoan terraza dago.

FRANZES IRAKASKUNTZA

Mizpildi 3, 1. ezkerria • BERGARA

2006-2007 ikasturtea

Ikastaroaren hasiera: urriaren 2a

Izenematea: irailaren 29ra arte
Informazio gehiago: 10:00-12:00 eta 18:00-20:00
943.76.30.55

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA ONATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

JAIK > SAN MARTINAK

Danborradak, globo aerostatikoa eta herri bazkaria San Martin jaien bigarren zatian

Aitor Zabaleta, Pol-Pol mendu elkartea, Antxoni Zumelaga eta Bixente Lazkano dira aurtengo ohorezko anaikideak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Zapatuan egin zuten San Martin jaietako azokarekin hasi zituzten San Martin jaiak eta gaurtik domeka arte jarraipena izango dute. Urtero legez, danborrada

nagusia izango da gaur, San Martin egun bezperan. Zortzi talde atarako dira eta abanderatuak base-rritar erropak jantzita joango dira aurten ere. Umeen danborrada zapatuan egingo dute eta 135 ume joango dira herriko ikastetxeetatik. Udal Musika Bandaren kontzertua, 14 urtetik gorakoendako sokamuturra eta herri bazkaria dira, zapaturako antolatu dituzten beste ekitaldi batzuk.

Herri bazkaria txosnen batzordeak antolatu du eta gaur egun egingo dute 15:30ean. Txosna batzordeak salatu du San Martin jaiak herritarren parte-

hartzea bultzatu barik antolatu izana eta ekitaldi politiko bat jai egitarauaren barruan sartzea. Salatu dute Udalak ez diela utzi Munibe plazan txosna jartzen baina pentsatutako ekitaldi asko egingo dituztela esan dute, gaur iluntzerako prestatu duten parodia, adibidez.

Zapatu gauean, bestalde, su artifizialak botako dituzte, 22:30ean, Agorrosingo futbol zelaitik. Segurtasun neurriak betetzeko, inguru horretan apar-katuta dauden autoak kentzeko dei egin dute udaltzainek.

LAU OHOREZKO ANAIKIDE

Domekan, Erreileno eta Tosioien Kofradiak VII. batzarra egingo du. Urtero moduan, herriko lau ordezkari ohorezko anaikide izendatuko dituzte, eta aurtengoak dira: Aitor Zabaleta auto gidaria, Pol-Pol mendizale taldea, Zumelaga jatetxeko Antxoni Zumelaga eta Bixente Lazkano soinu-jolea. Eguerdian osoko bilkuren aretoan jasoko dituzte dominak. 115 lagun inguru bilduko dira guztira. Arratsaldean, bestalde, globo aerostatiko bat ekarriko dute Seminarioko patio-ara eta aukera egingo da, doan, herria goitik ikusteko.



DANBORRADA Zortzi elkartek hartuko dute parte.

GOIENKARIA



GOIENKARIA

13,6 kiloko kalabaza frontoian

13,6 kiloko kalabaza oparitu diote Maria Jesus Valleri. Frontoiko tabernako bezeroak kalabazaren pisua antzematen ibili dira egunotan, eta azkenean Tasiok, ONCEkoak, etxetik eraman du pisua, haren pisu zehatza jakiteko. Maria Jesusek onartu du pintxotan banatzeko zaila dela kalabaza, baina "krema egingo dut, guztiondako", agindu du.

> HISTORIA

Duela 30 urteko alkate mugimenduko DVDak udaletxean daude

Duela 30 urteko alkateen mugimendua jasotzen duen liburua-ekin batera, foruen abolizioa kontatzen duen DVDa aurkeztu zuten eta DVD horiek udaletxeko atezainari eska diezazkioke herritarrak. Doan dira. *Alcaldes en lucha* liburua den-detan dago salgai.


> HIRIGINTZA

Zabalotegi kaleko errepideari ezetz esango diote zapatuan

Zabalotegi eta Boluko auzotarrrek auzo biak zeharkatuko dituen errepide berriaren aurka daudela esateko kale agerraldia egingo dute zapatu eguerdian, Agorrosinen. Agintariei esan nahi diete horrela ez daudela ados arau subsidiarioek jasotzen duten proiektuarekin.



Kurtsoa irailaren 25ean hasiko da



Izenematea irailaren 20an 18:00etan
AGORROSINEN

Harremanetarako deitu 669 35 19 22 telefonora

MUSIKA > KONTZERTUA ZAPATUAN

Delorean eta Basque Country Pharaons, bihar gaztetxean

Txapa Irratiak antolatutako kontzertuaren ondoren DJ festa izango da, goizaldera arte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Delorean taldearen musika dantzagarria iritsiko da bihar, zapatua, gaztetxera. Zarautzarrek euren azken diskoa aurkeztuko dute Bergaran: *Into the plateau*.

Ekhi Lopetegik (ahotsa eta baxua), Tomas Palomok (gitarra eta teklatuak), Unai Lazkanok (sintetizadorea) eta Igor Escudero (bateria) osatzen dute Delorean taldea. 2000. urtean sortutako taldea da, eta handik urtebetera kaleratu zuten lehenbiziko lana: *Silhouettes*. Ondoren *Delorean* (2004) eta *The metropolitan death* (2005) izenburuko diskoak grabatu zituzten. Hasieratik kritikak harrera beroa egin zion Delorean taldeari, eta The Cure, New Order, Radio 4 eta Rentals taldeen ukituak antzeman dituzte zarautzarren kantuetan.

Unaik eta Tomasek zera azaltzen dute: "The Rapture bezalako taldeekin konparatzeak amorratu pixka bat ematen digu, baina normala da. Guk entzun ditugun talde berdinen eragina daukate haiek eta igartzen da hori. Baina ez dezatela esan The Rapture taldearengandik ezer jaso dugunik...".

Pop estilo iluna eta doinu dantzagarrien arteko kantuak egiten dituzte eta *Into the plateau* diskoari dagokionez, 1980ko hamarkadako musikaren eragina, gitarra ilunak eta punk estilotik geratu dagoen jarrera nabariak dira

BASQUE COUNTRY PHARAONS

Basque Country Pharaons taldeak ere joko du biharko kontzertua. Aurretik Mermaid, Jugos Lixiviados, Na Tua Man eta Los



DELOREAN Zarautzarrek *Into the plateau* beraien azken diskoa aurkeztuko dute bihar, gaztetxean.

Roslis taldeetan ibilitakoak dira eta gaur egun beste talde batzutan ari dira Unai (Big Member), Ander (Galactus), Txetxu (Green Manalishi) eta Iñigo (Atom Rhumba). Zuzeneko indartsua

daukate, punk rocka, heavya edota soul ukituarekin. Besteak beste, The Pogues, Creedence, Wilson Pikett, Dictators, The Cynics eta Grand F. Railroad-en bertsioak joko dituzte gaztetxean.

Bihar zapatuko emanaldia 23:00etan hasiko da eta amaitutakoan festak jarraituko du; goizaldera arte, DJ festa iragarrita dute Txapa Irratiko kideek, kontzertuko antolatzaileek.

DANTZA > MOISES AZPIAZUAREN OROIMENEZ

Hamar bikote lehian dantza solteko txapelketan

Udal Pilotalekuan jokatu da datorren egubakoitzean, irailaren 22an

E.M. > BERGARA

Moises Azpiazu zenaren oroimenezko XXII. Dantza Txapelketa jokatu da hurrengo egubakoitzean, hilaren 22an, Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita.

Hamar bat bikote arituko dira lehian, tartean Ibane Baseta-Mikel Igartua eta Izarne

Medina-Jon Arrillaga bergararrak. Janire Urbietta Xabier Azurmendi segurarrarekin osatuko du bikotea eta ikusteko dago Aitzol Enak Miren Illarreta donostiarrekin parte hartzerik izango duen.

BI ERAKUSKETA

Bestalde, bi erakusketa zabalduko dituzte hurrengo astean: irailaren 18tik 30era pintura lehiaketako lanak izango dira kultura etxean eta irailaren 22tik urriaren 1era kirol argazki lehiaketako irudirik onenak jarriko dituzte Aroztegin.

> DANTZA

Haurren dantza taldean parte hartzeko izenematea zabalik

Herriko dantza taldeek eta Jardun euskara elkarteak elkarlanean bultzatuta, haurren dantza taldea izango da berriz ere aurtengo ikasturtean.

Izena emateko epea zabalik dago eta dantzan aritzeko interesa duten neska-mutilek Jardun elkartera edo 943 76 08 19 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

> ERAKUSKETA

Saharako irudiak eta bideoa Aroztegin, domekara arte

Domekara arte Bubisher elkarrearen erakusketa ikusteko aukera dago Aroztegi aretoan. *Sahara. Herri bat; bi errealitate* izenburupean, elkarteko kideen argazkiak eta Manu Izagirrek egindako bideoa daude ikusgai. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara eta domekan 12:00etatik 14:00etara izango da Aroztegi zabalik.

'Berriketari' taldekoak astero elkartzeko gara euskaraz egiteko



'BERRIKETARI' PROGRAMA.

Euskaldunberriei euskaraz egiteko guneak eskaini nahirik, Jardunek, Udal Euskaltegiak, AEKk eta Bergarako Udalak bultzatutako egitasmoa da. Euskaldun zaharrez eta euskaldun berriz osatutako 3-4 laguneko talde txikitik antolatuta dago eta talde bakoitza astean behin elkartzen da euskara praktikatzeko. Jende boluntarioa da, elkarri lagunduz ondo pasatzen duena.

EBPN

euskara biziberritzeko plan nagusia, Bergara

Informazio gehiago:

www.bergara.net

Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66



BERGARAKO UDALA

TXIRRINDULARITZA > SAN MARTIN SARIA

Lehendakari Txapelketako azken aurrekoa

Domekan, 10:00etan hasiko dute 41. San Martin saria. Lehendakari Txapelketako azken aurreko proba izango da; Oñatin egingo dute azkena

XABIER URTZELAI > BERGARA

Denboraldi osoko nekea gainean, txirrindulariak deseatzen daude denboraldiari agur esateko, baina oraindik azken ahalegina gertatzen zaie egiteko. Eta, Bergaran eta Oñatin botako dituzte azken izerdiak. Hasteko, domekan izango dute Lehendakari Txapelketako azken aurreko proba, San Martin Saria. Lasterkariak 10:00etan hasiko dute proba, Matxiategin. Eta, ibarreko errepideetan barrena 106 kilometro egin eta gero, Asentzioko gaina izango da mendate bakarra. 13:00ak inguruan helmugaratuko dira, Matxiategin baita ere.

Gauzak horrela, Azpiru taldean dabiltzan lasterkariak gogotsu daude domeka iristeko. Iker Amutxastegik, taldeko zuzendariak, eman dizkigu bertako ziklisten berri: "Unai Arantzabal ez da Bergaran izango, Gipuzkoako selekzioarekin izango delako Italian. Pena ematen zion etxean ez korritzeak, baina aukera hori ezin zuen galdu".

Azpirun dabiltzan ibarreko gainontzeko ziklistak, baina, irteera puntuan izango dira domekan, gogotsu, etxean lana ondo egiteko asmoz. Eta, taldeko zuzendaria ere baikor da, aurrean ibiliko diren itzaropenarekin.



MENDATE BAT Ziklistek Asentzion izango dituzte malda gogorrenak.

GOIENKARIA

Bergara Hiriko protagonistak berriro ere aurrez aurre

Gaur (19:30, Udal Pilotalekua), Bergara Hiriko finalerako sailkatu ziren pilotariak indarrak neurtuko dituzte berriro ere. Hala, 22 urte azpiko kategorian Larrañagatarrek eta senior mailan Aiok eta Apraizek errebantxa hartu ahal izango dute.

Aurreko finaletan izandako ikuskizuna erreferentzia hartuta, norgehiagoka txukunak izango direla aurreikus dezakegu. Orduan, Ollok, Etxeberriak, Renobalesek eta Gutierrezek jantzi zuten txapela.



XABIER URTZELAI

> ARETO FUTBOLA Ipintzako txapelketa zuzendaritza berriarekin

Datorren urriaren 21ean hasiko da Ipintzako Areta Futbol Txapelketa, eta izena emateko epea urriaren 9ra arte egongo da zabalik. Jakin, txapelketa berrituta datorrela, hasteko, antolatzaile berriak izango dituelako. Lagun talde batek hartu du ardura, eta gogotsu hasi dira lanean.

> SASKIBALOA Datorren asteko partidurako sarrerak Depor tabernan

Bruesa GBCK Ukrainako Kiev taldearen kontra jokatuko du datorren irailaren 24an Bergaran, eta norgehiagoka horretarako sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai Depor tabernan.

Norgehiagoka 12:00etan jokatuko dute, eta sarrera bakoitzak 6 euro balioko du.

> ESKUBALOA Bergarak Zarautzen kontra jokatuko du lagunarteko torneoa

Bergarak eta Zarautzek lagunarteko torneoa antolatu dute biharko, poliki-poliki Liga Txapelketetarako erritmoa hartzen joateko.

Hala, gazte mailako taldeek 17:00etan jokatuko dute lehenengo norgehiagoka. Gero etorriko da nagusien partidua, 18:30ean.

> XAKEA Bergara Hiria eta Nazioarteko Xake Txapelketa domekan

Zapatu arratsaldean gazte-txoendako xake txapelketa antolatu badute ere (16:00), domekan etorriko dira hitzordu nagusiak. Hala, 11:00etatik 14:00etara jokatuko dute Bergara Hiria Xake Txapelketa. 16:00etan, berriz, Nazioarteko txapelketa jokatuko dute, Iralako gimnasioan.

INPRIMATEGIA

- INPRIMAKIAK OROKORREAN
- INPRIMATZEAK PAPER JARRAITUAN
- EZKONTZARAKO GONBIDAPENAK
- ENKOADERNAZIOAK
- KAUTXUZKO ZIGILUAK

Garbil

Artzamendi 4 20570 Bergara
Tel.: 943 76 23 28 faxa: 943 76 54 87
E-posta: imprentagarbil@euskalnet.net

PAPER - DENDA

- BULEGOKO MATERIALA LANTOKIRA
ERAMATEN DUGU
- IRAILEAN ESKOLAKO MATERIALEAN
ESKAINITZA BEREZIA
- ENPRESA-OPARIAK
- INFORMATIKARAKO OSAGARRIAK

argazki zaharra

Kanpoko igerilekuak eraikitzen

Agorrosin ekintza-gunea inauguratuko dute bihar. Baina gune horrek izan du aurrekaririk. Kanpoko zein barruko igerilekuak egon dira bertan orain artean, eta oraindik geratzen da orduko arrastorik.

Argazki horretan barruko igerilekuen eraikina ageri da eraiki berritan; eta haren kanpoko igerilekuak egiteko lanak hasita. Barruko igerilekuak 1971n inauguratu zituzten eta kanpokoak handik gutxira. Inguruotan estali gabe eraiki zituzten lehenak izan ziren. Garai hartan sortu zen, era berean, Bergara Kirol Elkartearen barruan igeriketa taldea.

1975ean gobernadore zibila izan zen Bergarako igerilekuak bisitatzen.

Argazkia: Juan Idigoras (Udal Artxiboa)
Testua: Irati Agirreazaldegi.
Urtea: 70ko hamarkada.



bere ustez



Jon Suinaga

Agorrosin

Lau urte pasa eta badugu berriz igerileku munizipala. Lau urte! erraz esaten da. Inaugurazioan dotore eta irribarrez itxieraren konplize batzuk egongo dira.

Komentatzen da inguruko herrietan baino garestiagoa izango dela txartela. Udaletxetik lasai egoteko esanez mezua bidali dute: garestiagoa izango da zerbitzu gehiago daudelako, baina ez aurtengo hirukoitza edo laukoitza. Lasai gelditzeko mezua?... Beldurtzeko modukoa!

Udalarendako bergarrek gehiago pagatzea logikoa da. Bakoitzak ordaindu behar luke erabili behar duen zerbitzua, ez eskaintzen diren guztiak. Inguruan horrela da. Tarifa bat dago igerilekurako eta beste bat gimnasia-rako. Bergaran bakarra egongo da.

Hala ere, zorioneko gara. Zentro berri, modernoa eta ekologikoa dugu. Beraz, gozatu eta... osasunarekin urratu!



Ondo pasau
San Martinak!



BERGARAKO UDALA



AKULU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIETAN IKASTARO PRAKTIKOAK

- Metodologia komunikatiboa
- Talde dinamika eta erabilera
- Euskararen teoria eta praktika
- Hizkuntza eskakizunak eta EGA

Matrikulazio epea: irailaren 4tik 28ra • Ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00

Arrizuriaga jauregia Espaloia • Tel.: 943 76 05 18 • BERGARA • e-posta: bergara@aeknet.net

alfonbrak ZANGITU etxeko oihalak



Helbide berria: Telesforo Aranzadi 2

Bergara • Tel.: 943 76 08 69

D. IRALA KALEA

IBARGARAI KALEA

DATUA

8

LAGUNEKO TALDEA

Jaurlaritzak jarritako ezinbesteko baldintza da zortzi laguneko taldea osatzea Auzolan egitasmoan jarduteko. Gure herrian lauk onartu zuten, bi eskoriatzarrak dira eta beste biak bergararrak.

bi bergarar dabilta Auzolan-en; seik Aretxabaletan bertan jarraituko dute lanean, eta beste biak Eskoriatzara joan dira prestakuntza bukatu eta gero. Lan kontratua abenduan bukatuko zaie.

GARBITU ETA MARGOTU

Lanean hasi aurretik heziketa-okupazionala jaso dute guztiek, garbiketa industrial hain zuzen. Auzolan egitasmo barruan ere heziketa teorikoa eta okupazionala izan dute. Ofizioko begiralea eta koordinatzaile lanak egiten dituen hezitzailea du lagun taldeak eguneroko lanean. Eskua hartzeko uztailean praktikak egin zituzten eta irailean bete-betean hasi dira lanean. 6 orduko lan jarduna daukate, 08:00etatik 14:00etara.

"Hirigintza saileko ardura-dunekin adostu genuen zein lan egin zitzaketen. Batez ere garbitasun, margotze eta txukunketa lanak egingo dituzte, bai Udalarenak diren eraikinetan, bai kale eta parkeetan", dio Mirari Aias-tui gizarte langileak. Hala, uztailean Kurtzebarri eskolako sarrera, pasabideak eta komunak garbitu eta margotu zituzten, eta Basotxo erretiratuen elkarteko sarrera eta tabernari itxura berria eman diote. Iraila musika eskolan hasi dute eta aste honetan KZgunea txukuntzen dabilta. "Txintxonak dituzten parkeak txukuntzea, Iturrigorri frontoia garbitzea eta erreka alboko baranda margotzea izango dira hurrengo lanak", dio Aias-tuik.

Udaleko Gizarte zerbitzuek psikologo batekin egiten dute lan besteak beste arazoak dituztenei gizarteratzen laguntzeko. Psikologo honen laguntza jasoko dute Auzolan-en ibili direnek, aurretik diagnostiko on bat egin eta orientazioa eskainiz gizarteratzea bultzatzeko. Sei hilabeteok pasatutakoan lan munduan sartzea izango da helburua.



TXUKUNTZEN Aste honetan KZgunea garbitzen eta txukuntzen ibili dira, eta ondoren, Iturrigorri frontoia edo Ibarra futbol zelaiko instalazioak garbituko dituzte.

M.A.

GIZARTE ZERBITZUAK > AUZOLAN EGITASMOA

Herria txukuntzen dabilta zortzi lagun, Auzolan-ekin

Zailtasundunak lan mundura bideratzea da helburua, eta lau aretxabaletar dabilta

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Aspalditik eskaintzen du Jaur-laritzak Auzolan egitasmoa, baina Aretxabaletako Udalak lehenengo aldiz jarri du abian. Lan mundurako bidea erraztea du helburu egitasmoak.

ko. Proiektua Aretxabaletako Udalak aurkeztu zuen eta bere gain hartu sei langile, eta gero Eskoriatzako Udalarekin hitzarmena adostu zuen; horiek bi lan-

gile hartzearen alde egin zuten. Taldeak beti zortzi lagunekoak izan behar dira, hala eskatzen du Jaur-laritzak. Hori horrela, lau aretxabaletar, bi eskoriatzar eta

KONTUAN HARTZEKO

Lehenengo aldiz jarri du abian Udalak, nahiz eta aspalditik eskaini Eusko Jaur-laritzak

JAURLARITZA ETA UDALA

Udaleko Gizarte zerbitzuek bideratzen dute egitasmoa, eta hainbat arrazoiengatik lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten herritarrei bideratuta dago. Gastu handiena Jaur-laritzak beregain hartzen du -ikastaroak eta langileen soldatak-, baina Udalak ere dirutza jarri beharra dauka gizarte-segurantz ordaintze-

Lan-merkatura bideratzeko baliabidea

Orain dela sei urte jarri zuen abian Auzolan egitasmoa Eusko Jaur-laritzak. Baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez duten pertsonak lan mundura bideratzen laguntzeko jarri zuen. Jaur-laritzaren esanetan lanerako eskubidea herritartasun osoa lortzeko ezinbesteko baldintza da, eta lan-merkatuan ez parte hartzeak bazterketa prozesu baten hasiera ekar lezake. Horregatik Auzolan egitasmoak lanean hasteko bide bat baino gehiago izan gura du, hau da, jendea lan-merkatu normalizatuan sartzeko moduan uzten duen baliabidea.



Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39



SANTUTXU Otolora kaleko sarreran biribilgunea jarriko dute zirkulazioa arintzeko, eta proiektua LKS enpresak egingo du. M.A.

HIRIGINTZA > OTALORA KALEA

Lehenbailehen hasiko da Amaral enpresa Otolora kalea berritzen

Ia bi milioi eta erdiko aurrekontua daukate lanek eta zortzi hilabetean bukatu gura dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Asteleheneko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzarrak Amaral enpresari ematea Otolora kaleko saneamendu eta hornikuntza lanen ardura. Lehenbailehen hasi gura dituzte, eta zortzi hilabetean bukatzeko konpromisoa hartu du Amaralek. 2.479.000 euroko aurrekontua daukate, eta guztira 9.080 metro koadro konponduko dituzte.

HIRU ZATITAN BANATUTA

Lanak bukatutakoan guztiz itxura berria izango du Otolora kaleak. Saneamendu lanekin batera argiteria, telefono kableak eta lorategiak berrituko dituzte, lurzorua txukundu eta kaleko altzari berriak jarri. Lan bakarria izango da, baina hiru zati izango ditu: parroquia parean hasi eta Untzillara doan errepidera arteko zatiari Durana kalearen itxura

emango diote galtzada-harria jarrita; musika eskolaraino joango da bigarren zatia eta Santutxuraino hirugarrena.

SANTUTXUN BIRIBILGUNEA

Bestalde Santutxuko ermita parean biribilgunea egiteko asmoa dauka Aldundiak. Errepideak eta tranbiak bat egingo dute herriko iparraldeko sarreran eta biribilgunearen beharra aurreikusi dute. Proiektua egiteko lanak LKS enpresari eman dizkio Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak.

> ISTRIPUA

Auto batek lagun bat harrapatu zuen domekan, eta beste bi herritarrek ere izan dituzte istripuak

Joan zen domeka eguerdian automobil batek herritar bat harrapatu zuen Errekabarren kalean. Zorionez ez zuen zauri larririk izan. Beste bi aretxabaletarrek ere izan dituzte istripuak azken asteotan: surf egiten zebilela izugarritzko kolpea hartu zuen batek, eta besteak bizikletatik erorita. Ospitalean jarraitzen dute biek.

> UDALA

Goiz eta arratsalde hasiko dira lanean Udaleko zerbitzuak astelehenetik aurrera

Udako ordutegia izan dute ekainean hasi eta gaur arte Udaleko zerbitzuek, baina astelehenetik aurrera ohikora itzuliko dira. Goiz eta arratsalde egingo dute lan bai udaletxean bertan dauden sailetan, bai kultur etxe, liburutegi, gazteria eta kirol zerbitzuetan. Udaletxeko harreran 17:00ak arte erantzungo dituzte herritarren eskaera eta galderak.



M.A.

Espaloiak zebrabideen mailara

Abiadura murrizteko zebrabideak daude Santa Kurtz kalean, eta gehiago ere jarriko dituzte. Hori horrela, lehen behera jaitziko espaloiak jasotzea erabaki du Udalak -horrela aholkatu diote-, eta horretan dabilta. Bai oinezkoentzat, bai gorpildun aukiekin doazentzat erosoagoa da maila berean egotea espaloia eta zebrabidea.

2006-07 IKASTURTEA MAILA ETA ADIN GUZTIAK MATRIKULA EPEA IRAILAREN 4TIK 23RA BULEGO ORGUTEGIA 16:30ETIK 19:00ETARA

INGELES

FRANTSES

b **berbetan**
HIZKUNTZ ESKOLA

BERBETAN HIZKUNTZ ESKOLA

BELORRIETA, 4

20550 ARETXABALETA

TEL./FAXA: 943 79 00 69



IKASTAROA

Lotura afektiboak aztertuko dituzte

Hilaren 20an hasi eta eguaztenetan izango dira eskolak azaroaren 29a arte

M.A. > ARETXABALETA

Udaleko Gizarte Zerbitzuek lotura afektiboan gaineko ikastaroa antolatu dute emakumeentzat. Hilaren 20an hasi eta eguaztenetan emango ditu eskolak Pepa Bojo psikologoak azaroaren 29a bitartean. Iralabarri plazako 5. atartean elkartuko dira 15:00etatik 17:00etara. Izena emateko, Gizarte Zerbitzuetara deitu 943 71 18 62 edo eguaztenean ikastaroan agertu behar da.

PEPA BOJO

Pepa Bojo psikologoak gizon eta emakumeen arteko harremanak landu izan ditu, eta emakumei zuzendutako hainbat ikastaro eskaini; iaz egin zuten autoestimua gainera hark eman zuen.

> BERBALDIA

Martuteneko kapilaua etorriko da martitzenean

Elizbarrutiko espetxe pastoraltzak antolatuta, Luis Mari Medina Martuteneko kartzelako kapilaua etorriko da datorren martitzenean, hilak 19, berbaldia egitera. Interesatuak parrokiako lokaletara joan behar dute, 18:00etan. Donostian dagoen Martuteneko kartzelak 300 preso baino gehiago ditu, eta bertako bizi baldintzen berri emango du kapilauak.

Bestalde, aste bukaeran parrokia eta auzoetako elizetan egingo duten diru-batzea Caritasen helburu berezientzat izango da.

KIROLA > JAIALDIA EGINGO DUTE IRAILAREN 23AN

Liverpool Taldea Xabi Alonso izeneko lagun taldea sortu dute, eta bazkide bila dabilta

Dagoeneko 50en bat bazkide ditu oraintsu sortutako lagun taldeak, eta jaialdia antolatu dute hilaren 23rako herriaren aurrean aurkezteko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Futbolaren inguruko beste lagun talde bat sortu dute herrian: Liverpool Taldea Xabi Alonso. Hurrengo asteburuan aurkezpen jaialdia egingo dute, eta bazkideak gura dituzte.

LIVERPOOL TALDEA GUSTUKO

Real-zaleek Ametzuetako taldea sortu zuten iaz, eta orain, Ingalaterrako Liverpool taldearen zaleak elkartu dira. Taldea erata dago dagoeneko eta bazkide bila dabilta orain. "Askok Liverpool gustuko genuen Xabi Alonso joan aurretik, eta orain euskaldun bat han egonda, zer esanik ez... Xabi bultzatuko dugu lagun taldearekin", esan digu antolatzaileetako batek. Dagoeneko 50en bat bazkide ditu talde berriak, gehienak aretxabaletarrak, eta asko Ametzuetako taldeko kide ere badira.

HIRUNAKO PARTIDUAK

Hurrengo astebururako, irailak 23, Xabi Alonso jaialdia antolatu dute. Taldearen aurkezpen



LAGUN TALDEA Liverpool taldeko zaleen lagun taldea sortu dute; R. Polo da presidentea eta A. Sanchez idazkaria.

M.A.

ekitaldia izango da, eta bazkide gehiago egiteko modua. Egitarau txukuna gertatzen dabilta, eta ekitaldi garrantzitsuenetakoa hirunako txapelketa izango da. Zapatu goizean jokatuko dituzte partiduak Herriko Plazan, baina aurrez eman behar da izena. Hiru kidez osatutako taldeek elkarren aurka jokatu dute, eta bi maila egin dituzte partiduak jokatzeko: kimuak edo alebinak, haurrak edo infantilak eta kadeteak alde batetik; eta gazteak eta seniorrak bestetik. Lehenengo taldekoek debalde dute izena ema-

tea, eta bigarrenekoek 3 euro ordaindu beharko dute hirukoteko. Neska, mutil, zahar edo gazte, edonork eman dezake izena Orly tabernan, eta azken eguna hilaren 21a izango da, eguna. Argibide gehiago gura izanez gero, 676 16 81 16 telefono zenbakira deitu behar da.

GIRONDIS-LIVERPOOL PARTIDUA

Irailaren 23ko jaialdia herritarren aurrean agertzeko bidea da, baina ez daukate horretan gertatzeko asmorik. Hain zuzen, hurrengo hilerako Bordelera

bidaia antolatzen hasita daude. Urriaren 18an, eguaztena, partidua jokatu du Liverpoolek Girondins taldearen aurka. Lagun talde berriko kideek autobusa antolatu gura dute Bordelera joan eta bai Liverpool, bai Xabi Alonso bultzatzeko. Orly tabernan jasoko dituzte interesatuen izenak, eta azken eguna irailaren 24a izango da, domeka. Ez dakite zenbat sarrera bidaliko dizkieten Liverpooldik, baina lehenetsuna lagun taldeko kideek izango dute; ondoren, taldeko bazkide ez direnak sartuko dira.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PAGALDAI
Opari denda
Burrindegia

B.CAVALLI SOUL

Durana 33 • Aretxabaleta • 943 79 10 14

EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik zure zerbitzura

CAPOEIRA > ERAKUSTALDIA ETA IKASTAROAK HERRIAN

Capoeira ezagutarazteko hainbat ekitaldi egingo dituzte egunotan

Ikasturterako antolatu duten ikastaroa iragartzeko eta giroa jartzeko, erakustaldia eta ikastaroa egingo dituzte asteburuan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Ezagun da Eskoriatzan badagoela capoeira egiten duen talde ekimentsu bat, Sensala Euskadi. Bada, ikasturte honetan kirola eta borroka artea batzen dituen praktika hori herrian bultzatzeko ahalegin berezia egiten dihardute. Are gehiago, ibarreko beste herri batzuetan ere saiatzen dabilta.

Orain hasi berri dira ikasturte osorako ikastaroarekin. Astelehenero eta eguaztenero eman-

go dituzte eskolak pilotalekuko gimnasioan. 19:00etatik 20:00etara bitartean, 16 urtetik beherakoendako; eta 20:00etatik 21:30era, berriz, helduendako. Horren izenematea zabalik dago. Interesatuak Sensala Euskadi taldearekin harremanetan jar daitezke. Horretarako, hiru bide dituzte: www.senzalaeuskadica-poeira.info webgunea, senzala-euskadi@hotmail.com posta helbidea edo 652 77 22 95 telefono zenbakia, hain zuzen ere.

ASTEBURIAN, IKUSKIZUNAK

Horren aurretik, gaur, egubakoitza, Sensala Euskadi taldeko lagunek eta Rio de Janeiroitik (Brasil) etorritako bi irakasle, Pedrok eta Juliok, erakustaldia egingo dute herriko plazan. Ekitaldi hori 19:30ean hasiko da. "Horren helburua da capoeira herritarrei gerturatzea eta

herrian giro apur bat ere sortzea, zerbait desberdina eskaintzea, azken batean", azaldu zigun Sensala Euskadi elkartearen presidentea Igor Ezpeletak.

Egubakoitzeko erakustaldia ez da izango asteburuko aukera bakarrik erakustaldia eta beste herrietako lagunek capoeira bertatik bertara ezagutzeko izango dutena. Bihar, zapatua, eta domekan, aipatutako Brasilgo irakasleek ikastaro berezia egingo dute pilotalekuan, 11:00etatik 14:00etara bitartean.

Asteburuko ikastaroko ikasleak bi taldetan banatuko dituzte: ezer ez dakitenak, eta oinarrizkoa dagoeneko ikasi dutenak. Umeek 25 euro ordaindu behar dituzte, ikasle eta langabeteek 30 euro, eta langileek 35 euro. "Ikastaroa herritar guztiei zuzenduta dago, nahiz eta bakoi-tzak bere erritmoa hartu".



Lukas Prest taldea desagitea erabaki dute

Eskoriatzako Lukas Prest taldeko lagunek jotzeari uztea erabaki dute. Taldekideetako batzuk beste zeregin batzuetan dabilta, eta ezin dute taldearekin jarraitu. 2003an sortu zutenetik gaur egunera arte talde gero eta oihartzun handiagoa izan du, eta epe oso motzean bi lan kaleratu dituzte, punka eta hardcorea aldarrikatuz. Agur gisa, *Shit TV* abestiaren bideoklipa zintzilikatu dute www.mundurat.net/lukasprest helbidean. Ea etorkizunean beste proiekturen bat abiarazten duten!



GUSTURA PILOTALEKUAN Gustura joaten dira bazkaltzera.

GOIENKARIA

ERRETIRATUAK > HAINBAT OMENALDI EGINGO DIZKIETE

Erretiratuen jaiak erdigunean eta Mendiolan

Urriaren 1ean pilotalekuan egingo dute eta etzi, domeka, Mendiolan izango da

I.B. > ESKORIATZA

Urriaren 1ean Udalak herriko erretiratuei omenaldia egingo die. Urtero egiten dute ospakizun hori pilotalekuan.

11:00etatik 12:30era salda banatuko dute Olazar erretiratuen elkartean. Horren ostean, 12:30ean, meza esango dute San Pedro elizan, eta 14:00etarako bazkaria prest izango dute pilotalekuan. Ziur primeran bazkalduko dutela, baina ez hori bakarrik: bazkal ostean, Udaleko ordezkariak opariak banatuko dituzte eta lagun gutxi joango dira etxera esku hutsik.

Jaia bukatzeko, dantzaldia izango dute eta izango da

iluntzera arte atsedetik hartuko ez duenik.

Ospakizunean esku hartzeko ezinbestekoa izango da 65 urte edo gehiago izatea. Interesatuak Olazar elkartean eman beharko dute izena hilaren 18tik 22ra, 11:00etatik 12:30era bitartean.

DOMEKAN, MENDIOLAN


Horrez gain, etzi, domeka, Mendiolako erretiratuek euren eguna ospatuko dute. Meza izango dute, eta horren ostean bazkaria Olamendi elkartean. Han opariak banatuko dizkiete eta Laja eta Landakanda bikotearekin erromeria izango dute.

> AUTOBIDEA

Bidegik ez die elizateetako ordezkariak aditzera emandako kezkei erantzunik eman gura izan

Aurrekoan jakinarazi genuen elizateetako hainbat lagun haserre daudela autobidearen lanen ardura duen Bidegirekin. Mazmela-zubia egin ez izanak, Zarimuzko tunelaren alboan ezabatutako zuhaitzek, Antontxu baserriak eta Euskolabel izendapena duten ustiapenek arduratzen dituzte gehien. Horrekin batera, Bidegiri eskatu diote zarata eta ingurune-inpaktu azterketak egiteko.

Bidegiko ordezkariengana jo dugu argibide bila, baina esan digute ez dutela ezer erantzun gura. Bestalde, azpimarratu dute autobideko lanak ez direla atzeratu, eta 2008ko urtarrilaren 1ean autobidea zabalduko dutela.



FAGOR 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
GipuzkoaTel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01

bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

Unai Azkarate > Musikaria eta margolaria

"Musika pasioa eta dibertsioa da; margotzea, berriz, barnekoagoa"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Unai Azkarate bergararra ezaguna da, batez ere musika egiten ibiltzen delako. Baina margotu ere egiten du. Hain justu, Inkernun margolanen erakusketa jarri du. Horrez gain, gaur, egubakoitza, bi musika proiektuekin arituko da Inkernun.

Asteburuan Eskoriatzan margolanen erakusketa eta bi kontzertu egingo dituzu. Ohikoa da halako eskaintza zabala?

Ez. Egia esanda, asteburu baten herri berean hainbeste gauza egingo ditudan lehenengo aldia da. Inkernu tabernakoekin kontzertua egiteko berba eginda geneukan, eta halako baten aipatu zidaten margolanen erakusketak jartzen dituztela, eta margolarien bila zebiltzala.

Berez, oso zaila da margolanak erakusgai jartzeko aretoak edo tabernak aurkitzea. Hortaz, ez nuen aukera galdu gura izan. Kasualitatez batu da guztia asteburu berean.

Zer-nolako erakusketa jarri duzu?

Zortzi lan handi eta beste zortzi txiki jarri ditut erakusgai. *Collage*-ak dira eta guztiak gai batekin lotuta daude. Hain zuzen ere, aurretik egindako lan figuratiboetatik zatiak eta trazuek moztu eta eraldatu ostean, horiekin konposizio abstraktuak egin ditut. Emaizta bitxi samarra da. Irailaren 7tik urriaren hasiera arte egongo dira ikusgai. Kontraste oso gustuko dut, eta hori lan

horietan islatzen da. Hori bilatzen saiatu naiz.

Margolanen erakusketaz gain, gaur, egubakoitza, bi kontzertu egingo dituzu herrian...

Niretzat kontzertu bakarra egingo banu bezalaxe da. Mahaster Riverren emanaldietan hasieran ni bakarrik aritzen naiz, eta horren ostean taldea batzen zait. Kasu honetan Azkater Pelox bakarlarri moduan kantu gehiago eskainiko ditut, baina guztiak beste talde batzuenak izango dira: Delirium Tremens, Ruper Ordorika, Zarama, David Bowie, Rolling Stones... Azkater Pelox jai-giroko proiektua da, dibertsioa bilatzen duena.

Mahaster River, berriz, beste mota batekoa da, ezta?

Bai, Mahaster River serioagoa da, edo hobe esanda, musikalagoa da. Are gehiago, diskoa grabatu berri dugu eta Gaztelupeko Hotsak-ek kaleratuko du. Disko



Argazkian Unai Azkarate eta Inkernuko Iñaki Kortazar.

I.B.

"Mahaster River taldeak diskoa grabatu berri du, eta Eskoriatzan aurkeztuko dugu lana"

"Azkater Pelox proiektua jai-girokoa da eta hainbat talderen kantuak joko ditut"

hori aurkeztuko dugu Eskoriatzan. Hamabi sokako gitarra erabiltzen dugu. Bluesa, soula, jaza, flamenkoa... lantzen ditugu euskaraz eta ingelesez. Bateria barik, akustikoan, ikusleengana gerturatzen saiatzen gara.

Zer gurago duzu margotzea edo musika egitea?

Bi diziplinek asko betetzen naute, baina margotzeak lan handiagoa ematen dit. Musika pasioa eta dibertsioa da niretzat. Margotzea barnekoagoa da.

Eskoriatzarrak Arantzazura erromesaldian 1948an

Eskoriatzarrak aspalditik joaten dira erromesaldian. Hala erakusten du Teresita Arroiabek utzi digun argazkiak. 1948koa da argazkia eta Arantzazun fraide zegoen Bolibarko Frai Isidrokin egin zuen. Argazkian, beste askoren artean, Don Kruz Bolibarko abadea (erdian, txapelarekin) eta alboan alkate Bizente Pagaldai.



FRAI ISIDRO

> ERROMESALDIA

Domekan Arantzazura joateko autobusa antolatuta

Alboan argitaratu dugun argazki zaharraren harira, jakinarazi digute aurten ere hainbat eskoriatzar Arantzazura joango direla erromesaldian.

Hitzordua domekarako, hilaren 17a, egin dute. Egun horretan autobusa irtengo da Eskoriatzatik. Horrez gain, bazkaria ere izango da. Interesatuek Biteri dendan izango dute txartelak erosteko aukera. Autobuserako txartelak 10 eurotan daude salgai, eta bazkarikoak, berriz, 20 eurotan. Biak eskuratzeko aukera ere badago, jakina.



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



EUSKARA > KALEEN, AUZOEN ETA BASERRIEN IZEN ZUZENAK HERRITARREN ESKURA

Leku izenen modu arautuak esku-orri batean jaso dituzte

Udalak etxez etxe banatuko ditu diptikoa eta edozein lekutan ipintzeko pegatina

Idatzizko erabilerarako lagungarria izan arren, ahozkoan ez du zertan eragin beharrik

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Udalak, aurki, etxez etxe banatuko ditu herriko kaleen, auzoen eta baserrien izen arautuak jasotzen dituzten diptikoak. Horiekin batera edozein lekutan ipini eta eskura eduki ahal izateko pegatinak ere emango ditu. Etxeetan ez ezik lantegietan, erakundeetan, elkarteetan... ere zabalduko dute informazio hau.

Diptiko eta pegatina horiek Kristina Pavok Antzuolako toponimia aztertzeke egindako lana dute oinarri. Izan ere, Antzuolako leku izenak batzea, aztertzea eta horien forma idatzia arautzea izan dira Pavok egindako lanaren helburuak. Herritarrek gehien erabiltzen dituzten izenak jaso eta eskura ipini nahi izan ditu Udalak ekimen horrekin.

Lana otsailean kaleratu arren, aspaldikoa da beharra. "Irimoegi auzoaren izena, esaterako, ez zegoen finkatuta. Baserriarrei eurei galdetuta ere sekulako izen dantza azaldu zen eta arautu beharra zegoen", esan digute Euskara Zerbitzuan.

AHOZKOAN ERAGINIK EZ

Udaletik azpimarratu nahi dute esku-orrietan idatzizko formak datozela; beraz, ez duela zertan eragin ahozko erabileran. Horren adibide modura esan digute, "herriko auzo berri baten izen arautua Mañarieta da. Beraz, helbidea idazterakoan edo izena idatziz jaso behar denean horrela erabiliko dugu. Baina ahozko

erabileran ez du zertan eragin. Batzuek Manitta esaten jarraituko dute, beste batzuek Manitxa eta besteek Mainitta".

Toki izen horiek jendeari jakinarazteaz gain, horiek erabiltzeko gomendioa ere egin nahi diete herritarrei, zuzentzat horiek onartu baitituzte.

TOPONIMIA LIBURUA

Bestalde, antzuolarrei gogorazi nahi diete otsailean Euskaltzaindiak aurkeztutako *Antzuolako Toponimia* liburuaren zuzenketekin eranskin bat argitaratu dutela eta eranskin hori eskuratu nahi dutenek udaletxera, liburutegira edo Itzar liburu dendara jo behar dutela.

bere ustez



Fernando Lete

Kanta-kantari lagun talde paregabea

Do, re, mi, hanka oker hori. Fa, sol, la, zuzendu zaiola. Atzo bertan zela iruditzen zait, baina, urteak abia da handian doaz, ia, 20 urte daramagu Patxi Azkarateren batutapean eztarriak astintzen.

Simon Artola zenari esker batzuek partiturak irakurtzen badakigu; beste batzuek ez. Ongi dakigu gure abesbatza xumea dela baina saiatzen gara musika eta koruko kideon arteko harmonia lortzen eta zabaltzen.

"Saiatzen gara musika eta koruko kideon arteko harmonia lortzen eta zabaltzen"

Urtetako ibilbide luze honetan, konposaketa eta konpositore askoren artean, bereziki, herrikoak kontuan izan ditugu: Cesareo Gabarain, Kaxiano eta Alfonso Ugarte.

Ikasitakoekin kanta-kantari izan gaituzue, han eta hemen: omenaldi, kontzertu, Gabonetako jaialdi, auzoko saio, Bergaran, Orendainen, Arizkun... Urte askotako bidaia baina lagun talde paregabea gozatua.

Kontuak kontu, udarako oporrak bukatu zaizkigu eta partiturak prest daude. Txoko honen bidez gonbite bat luzatzen dizuet, kantatzea gustuko duzuenoi. Lasaitasunez ager zaitezke udal-txean datorren asteazkenean gaueko 8:30ean. Besoak zabalik izango gaituzue. Animateu eta etorri kantura.

GARRAIOA > AUTOBUS GELTOKI BAKARRA

Lau aparkaleku kendu dituzte autobusak pasatzeko

Datorren astean itxi egingo dute plaza zirkulaziorako, errekako obregatik

I.A. > ANTZUOLA

Irailean hasi da autobus zerbitzu berria, eta, Antiguako eta Beheko auzoko geltokiak kenduta, bakarra ipini dute Olanaren etxearen ostean.

Oraingoz geltoki hori baino ez dutela mantenduko esan digute Udalean; baina baliteke epe luzera aldaketak egitea. Herri sarreran obrak egiten dituztenean autobus geltokia herriaren kanpoko aldera pasatzeko asmoa dago, autobusak herri barruan ez sartzeko.

AUTOAK MARKATUTA

Autobusek ibilbide berria egiten dutenetik izan da arazo bat

edo beste. Bizilagunek jakinarazi digutenez, hainbat auto markatu dituzte autobusek. Pesa autobus konpainiako logistika zuzendariak, Alejandro Nayak, esan digunez, "autobusen luzera ezberdina da eta luzeenak zailtasunak dituzte biratzeko". Arazo honi aurre egiteko eskola aldamean lau aparkaleku kendu zituzten eta hesi bereziak ipintzekoak dira. "Hala ere, gidari batzuek ez dituzte aparkatzeko arauak errespetatu eta autoak kolpatu dituzte autobusek". Pesakoen nahia da "zerbitzu ona eskaintzea. Horretarako, eskatu nahi diegu antzuolarrei errespetatzeko aparka ezin daitekeen lekua".

Bestalde, Udaletik gidariei jakinarazi nahi diete datorren astean plaza itxi egingo dela zirkulaziorako, errekako obrak direla-eta. Orduan jakinaraziko dituzte noranzko aldaketak.



JOSE MARI ALBERDI

Kanpaldia Lizarran Arrolarekin

Arrola mendizale elkarteak kanpaldia antolatzen duen joan zen astebururako. Lizarran izan ziren 15 lagun eta hango kanpinetik bi egunetan irteerak egin zituzten. Lehenengo kanpinetik abiatu eta Kalaberetara eta Puyko gurutzera; bigarrena, berriz, Montejurra azpitik eta Leatxen barrena. Eguraldia lagun, arratsaldeak igerilekuan eman zituzten.

LEKY-BERRI
MERENDEROAJanariak
eta
edariakTf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
AbadErrekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



SEI KUPEL Plazan, tabernen kanpoko aldean eta gaztetxean ipiniko dituzte kupelak; sei guztira.

GOIENKARIA

JAIK > HAMARGARREN SAGARDO EGUNA IZANGO DA

Herriko produktuak eta sagardoa bihar plazan

Udalak herriko produktuen azoka antolatu du goizerako; arratsaldean Gazte Asanbladako eskutik sagardoa egongo da herrian barrena

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Hamargarren urtez antolatu du Gazte Asanbladak Sagardo Eguna. Zapatuan da hitzordua eta berrikuntzarik izango da.

Ohi bezala, plazan ipiniko dituzte edalontziak salgai eta 17:45ean kupelak zabalduko dituzte. Sei kupel egongo dira: Haizea eta Patxi tabernen artean bat; Intxorta elkartearen eta Zeleta tabernaren artean beste bat; Bolatoki tabernan bestea; eta gaztetxeak hiru ipiniko ditu: bi plazan eta gaztetxean bertan hirugarrena. Kupelik ipiniko ez duten tabernetan sagardoa doan emango dute.

LEHIAKETA ETA JOLASAK

Patata tortilla lehiaketa ere urterokoa da, baina aurreko berrikuntzarekin dator: patata tortillarekin

kin zerikusia duten jolasak antolatu dituzte. 19:30ean jakinaraziko dute zein diren lehiaketako irabazleak, eta sagardoa dagoen bitartean eta afalordura arte edateko aukerarik ez da faltako.

Egitaraua

11:00 Azoka.
11:30 Produktuen salmenta.
14:00 Bazkaria
17:45 Sagardo kupelen zabalitzea.
18:00 Patata tortilla lehiaketa eta jolasak.
19:30 Sari banaketa.
21:30 Afaria.
00:00 Kontzertua gaztetxean: Kabul eta talde sorpresa.
Ondoren, karaokea

21:30erako dago iragarrita aforia; menua sagardotegikoa da. Afalostean, kanturik ere ez da faltako eta 00:00etan kontzertua egongo da gaztetxean. Kabul taldea izango da bat eta bestea egunean bertan jakingo dute bertaritzen direnek. Kontzertuaren ostean etorriko da aurtengo beste berrikuntza: karaokea. Kontzerturako sarrerak 3 euro balio du.

HAMAR POSTU BAINO GEHIAGO

Arratsaldeko ekitaldiak Gazte Asanbladakoek antolatuko dituzte, baina goizean ere izango da jai-girorik. Udalaren eskutik herriko produktuen azoka egongo da plazan. Hamarretik gora postu ipiniko dituzte eta horietan barazkiak, fruta, pastelak eta ezta egongo dira. 11:00etan jarriko dituzte produktuak ikusgai eta 11:30ean hasiko da salmenta. Kaleetan barrena herriko trikitilariak jardungo dute. Azokan parte hartzen duten baserriarrek bazkaria egingo dute elkarrekin.

KIROLA > UDAZKENEKO ESKAINTZA

Epea zabalik kirol ikastaroetarako

Gimnasia, karatea, oinarrizko soin hezkuntza, yoga, aerobika eta tai-chi-a, daude aurtengo eskaintzen artean

20:00etatik 21:00etara 15 urtetik gorakoendako. Saio guztiak kiroldegian egingo dituzte.

OINARRIZKO SOIN HEZKUNTZA

Txikiak kiroldegian izango dituzte ordubeteko saioak ostegunetan 17:00etatik 18:00etara; baina baliteke ordutegia aldatzea. Urriaren 7an hasiko dira eta bertan jakinaraziko diete.

Astelehen eta eguaztenetan yoga eta tai-chi saioak izango dira. 19:00etatik 20:30era eskolan eta 19:30etik 21:00etara kiroldegian hurrenez hurren.

Izena emateko udaletxera jo behar da irailaren 29a baino lehen; izan ere ikastaroak urriaren lehen astean hasiko dira. Ordainketa, berriz, banketetik egingo da; adinekoen gimnasia izan ezik; hauek Bolatoki ordainduko dute.



LEIRE KORTABARRIA

Galtzada-harri berriak San Roken

San Roke kalean galtzada-harriak aske daudela-eta kexak jaso ditu Udalak. Baita saneamendu, estolda zein telefono kutxetak apurtuta daudelako eta autoak gainetik pasatzean zarata ateratzen dutelako ere. Arazo horren aurrean, Udalak erabaki du kutxetak berritzea eta sendotzea eta harri zaharrak kenduta berriei ordezkatzea.

> OSASUNA

Pedikuroa irailaren 29an egongo da eguneko zentroan

Erretiratuaren elkartetik jakinarazi digute pedikuroaren ohi hitzordua aldatu egingo dute. Urriko lehen barikuan behar den hitzordua irailaren 29an izango da. Ordu-tegia eta lekua ez dira aldatuko eta sendagilea 15:00etatik aurrera eguneko zentroan izango da. Beharra duenak Nati Arrietari deituta (943 76 80 77) hartu beharko du txanda.

> LEHERKARIA

Espainiako gerrako obus bat aurkitu dute Torrealdean

Joan den martitzenean, irailaren 12an, 16:00ak inguruan, Torrealdeko etxeak eraikitzen diharduen langile batek aurkitu zuen leherkaria. Ertzaintzaren Lehergailuak Indargabetzeko Unitate Berezikoa hara joan ziren eta obusa erretiratu zuten. Ertzaintzatik esan digute Espainiako gerrako leherkaria dela, eta noizean behin agertzen direla horrelakoak.

Erromeria Lakiolamendin!

Legazpi eta Antzuola artean dagoen Ardanbideta zabalean.

Irailaren 17an, 12:30ean hasi, eta egun osoan, baso-lanen erakusketa, apustua, bertsolariak, jokoak eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebekin!

Autobusa, bazkaria eta taberna.

Anima zaitetz!

Euskarazko webgune berri baten alde.

GIZARTEA > ERRETIRATUEN KULTUR ASTEA

Aramaioko oinarrizko gizarte zerbitzuak aztergai datorren astean

Datorren barikurako, berriz, txangoa antolatu du Alaiak Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak: Karrantzara (Bizkaia) eta Kantabriara joango dira

UBANE MADERA > ARAMAIO

Aramaioko oinarrizko gizarte zerbitzuen gaineko hitzaldiaren bitartez hasiko dute aurtengo Aste Kulturala. Hitzaldi hori eguaztenean da, hilak 20, 17:00etan, kultura etxean. Eta Susana Martinezek egingo du berba; udaletxean egoten den gizarte laguntzailea da bera, Zuia-ko Koadrilakoa.

Alaiak elkartearen helburua da erretiratu eta pentsiodunek Aramaioko oinarrizko gizarte zerbitzuen gainean dituzten zalantza guztiak argitzea eta gura duten informazio guztia eskuratzea. Antolatzaileek gura dute, baita ere, jendeak ekarpenak egitea, gizarte arloan Aramaion zer gura-ko luketen eskuratu jakiteko.

ADINEKOENDAKO ESKAINTZA

Hain zuzen ere, hizlariak, Susana Martinezek argitu digu berak ordubete inguruko hitzaldia emango duela eta gero, herritarrek ordu erdi inguru izango dutela galderak egiteko. Jakinarazi digu honako puntuak landuko dituela, besteak beste: etxez etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroak, zaharren egoitzak, dirulaguntzak eta Imseroren programak.

MIKOLOGIA BERBAGAI

Horrekin batera, beste hitzaldi bat ere antolatu dute Erretiratu-ten Aste Kulturalerako, mikologiaren gainekoa, kasu horretan eta Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, Anton Belendez

adituak egingo du berba. Hitzaldi hori izango da datorren eguenean, hilak 21, 17:00etan, kultura etxean.

TXANGO BIZKAIRA

Eta bukatzeko, gaur zortzi, bari-kua, Bizkaiko Karrantza ibarerra txangoa egingo dute. Egitaraua honako hau da: 09:00etan Aramaioko frontoitik atera, Karrantzara iritsi eta Pozalaguako kobazuloak bisitatuko dituzte; haren ostean asmoa da Karpin Abentura izeneko parke tematikoa ikustera joatea (dinosaurioak eta beste erakusten dituzte parkean) eta ondoren, Biazeko museoa bisitatzea. Hori guztia egingo dute bazkal aurretik; izan ere, arratsaldean, Castro Urdialesera (Kantabria) joango dira. Txangora joan gura duenak irailaren 18a (egun hori barne) baino lehen eman behar du izena Euskadiko Kutxan eta 25 euroko diru sarrera egin.



JENDE UGARI Hamarretako goxoaren inguruan elkartu ziren herritarrek. J.L.

ANDRE MARI EGUNA > KOFRADIAREN BATZARRA

Ur barik, baina giro onean ospatu zuten Andre Mari

Urte luzean ermita txukuntzeaz arduratu den Maria Jesus Errastiri omenaldia egin zioten

U.M. > ARAMAIO

Aurreikuspenak bete eta 80 lagun elkartu ziren Andre Marin domekan. Tartean, herritik kanpo bizi diren kideak izan ziren; Madrilatik, esaterako, 14 bat lagun etorri ziren. Hamarreta-

koa eta batzar orokorra egiteaz gainera, 50 bat urtean ermitaren garbiketaz arduratu den Maria Jesus Errastiri omenaldia egin zioten. Bestalde, Udalekoek ura eramane behar izan zuten, ermitan ez zegoen-eta urik.

TRATU TXARRAK > EMAKUMEEI LAGUNTZEKO TELEFONOA

Etxean tratu txarrak jasanez gero: 900 840 111

Eusko Jaurlaritzak abiarazi duen zerbitzu horren berri eman gura die Udalak herritarrei

U.M. > ARAMAIO

Etxean tratu txarrak edo/eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko telefono bidezko zerbitzua abiarazi du Eusko Jaurlaritzak. Udalerri guztietara dabilta horren informazioa bideratzen gero, tokian tokiko Udalek herritarrei helarazteko; eta halaxe egin gura du Aramaioko Udalak.

Jakinarazi digu zerbitzu hori doakoa dela, eguneko 24 orduetan dei daitekeela, eta urte osoan. Telefono horretan laguntza emozionala emango zaie emakumeei, aholkularitza eta informazioa, jasaten dabilen tratu txarren egoera horri aurre egiteko. Era berean, tratu txarren egoera gertatzen dabilela dakien edozeinek dei dezake.

KULTURA > POSTA LEHIAKETA

Txirritola Euskara Elkartearen lehiaketako postal irabazlea Galiziatik bidali dute


Oraingo asteko martitzenean egin dute zozketa; modu horretan ekin dio ikasturte berriari euskara elkarteak

U.M. > HERRIA

Pozik daude Txirritola Euskara Elkartearen kideak aurtengo postal lehiaketaren emaitzarekin; izan ere iaz baino postal gehiago jaso dituzte: 31. Jakinarazi digute postalak Euskal Herritik, Estatutik eta atzeritik bidali dizkietela: Nafarroa, Galizia, Tenerife, Suitza, Caceres... Hain zuzen ere, oraingo astean bertan egin dute zozketa irabazlea aukeratzeko eta Galiziatik bidalitako batek irabazi du. Irabazleen izenak honako hauek dira: Aitziber eta Itziar Axpe, Eider Etxebarria, Gaizka, Dani eta Eneko. Saria izango da asteburu bat baserriturismo batean.

TXALAPARTA IKASTAROA

Bestalde, jakinarazi digute, baita ere, beste urtebetez, Txirrito-



GALIZIA Cies irlak erakusten ditu postal irabazleak.

ITSASO LOPEZ DE BERGARA

la Euskara Elkarteak txalapar-ta ikastaroa antolatu duela.

Sei egunetan emango dituzte eskolak, Edurne Uribarreniturrieta eta Alex Mendikute aramaiorren gidaritzapean (iazko

irakasle berak dira). Interesa duenarendako astelehenean, hilak 18, 18:30ean egin dute hitzordua, Iturrosteko plazatxoan. Ikastaroa doan dela jakinarazi digute.

> DIRULAGUNTZAK
500.000 euro banatuko ditu Aldundiak 19 udalerriren artean

Milioi erdiko aurrekontua bideratuko du Aldundiak honako lanetarako: hirigintza planeamenduko tresnak idazteko eta gauzatzeko eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanak idazteko. Dirulaguntza horiek eskuratzeko 72 eskaera jaso zituen Aldundiak eta 19 aukeratu ditu, tartean, Aramaio ere badago. Besteak beste, laguntzon helburua da Udalaren hirigintza jardura sustatzea eta ingurumenaren gaineko eragina ere kontuan hartuta.

> UR-BILTEGIAREN EGOERA
Errekara bideratutako edateko ura berreskuratu egin dute

Herriko ur eskasiaren aurrean, etxeetara beharrezko errekkara bideratuta zegoen edateko uraren kopuru bat berreskuratu egin du Udalak. Neurri horri esker, Arragako ur-biltegiaren edukiera handitzen joan da eta oraingo asteko astelehenerako beteta zegoen biltegia. Hori horrela, oraingoz ez dute ur-mozketarik egin behar; hala ere, euri-eskasia dela-eta, etorkizunean arazorik izan ez dadin, ur-kontsumoa zaintzen jarraitzeko eskatu du Udalak.

OSPAKIZUNA > ERRETIRATUEN EGUNA

Herriko erretiratuak elkartuko dira bihar Marulanda jatetxean

Bazkaria antolatu die aurtan Udalak; bazkalostean karta-jokoan egingo dute batzuek eta kontu-kontari egongo dira besteak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Urtero antolatzen du Udalak herriko erretiratuari eskainitako eguna, eta bihar, irailak 16, bazkaria izango dute. Aurreko

urteetan Toki Eder elkartearen egin izan dute, eta aurtan Marulanda jatetxean gertatuta zeukan Udalak. "Hainbat berrikuntza egin ditugu jaietan: txirrin-

dulari lasterketaren data aurreratu, zezentxoak ekarri... Eta erretiratuaren bazkaria jatetxean egitea geneukan pentsatuta, Marulanda hain zuzen", azaldu digu Jon Sasiain zinegotziak. Martitzen iluntzean, baina, erretiratuaren elkarteko ordezkariak batzara izan zuten, eta Toki Ederren egiten jarraitu gura dutela jakinarazi zioten Sasiaini.

NAGUSIENA, NARCISO BEITIA

Hogeita hamarren bat lagun hurreratuko dira Toki Eder elkartera, herriko gehienak. Azken urteotan bezalaxe guztien artean nagusiena Asteisolo baserriko Narciso Beitia da. Udaletxean dituzten datuen arabera 93

urte ditu, eta urtero legez bertan izango delakoan daude antolatzaileak. Aurrekoetan trikitilariak izan dituzte lagun bazkalostean, aurtan, ostera, ez dira etorriko: "Trikitilariaren ordezkari hobe ematea gura genuen, jatean, baina antza denez gustura bazkaltzen dute elkartearen", dio Sasiainek.

Gatzagako erretiratuek karta-jokoan egitea dute gustuko, gizonak musean eta emakumeak briskan, edo garai bateko kontuak gogora ekarri eta herriko azken berriak elkarren artean komentatuko dituzte. Egunari bukaera emateko oparitxo bana banatuko diete antolatzaileek, eta zozketak ere egingo dituzte.

> BIDAIA

Salies de Bearn ezagutzera joango dira Sorginak

Frantzia dagoen Salies de Bearn ezagutzera joango dira Sorginak taldeko emakumeak. Orain arte udaberriaren egin izan duten irteera atzeratuta zeukaten, eta irailaren 23 eta 24an izango da. Zapatu goizean aterako dira Gatzagatik autobusean, eta Baionatik Paue hirira bidean dagoen Salies de Bearneko gatz ekoizpena ezagutuko dute. Iluntzean Hondarribira joango dira lo egitera, eta domekan Hendaia bisitatuko dute txalupan. Zumaian bazkaldu ostean etxerako bidea hartuko dute.

Izena lehenbailehen ematea gura dute Sorginak taldeko antolatzaileek, hortaz, interesa duten emakumeek dei egin diezaiotela Mari Karmeni: 943 71 50 04.

> INTERNET

Postalak zela bilatu eta bidali erakutsiko dute KZgunean

Datorren astelehenean, hilak 18, postalak zela bilatu eta bidali Internet bidez erakutsiko dute herriko KZgunean. Aitor Madrid KZguneko arduraduna hurreratuko da, eta 17:00etatik 18:00etara bitartean egingo du ikastaroa. Euskaraz izango da, eta edonor hurrera daiteke. Bestalde, egun horretan 16:00etatik 20:00ak arte egongo da Aitor KZgunean, hortaz, baten batek zalantzak argitu gura baditu hurrera dadila Pilar kaleko 3. atartera.

Hurrengo hilabetean, urrian, beste ikastaro batzuk egingo dituzte: 9an, ViaMichelinen zela bidaiatu, eta 23an, helbide elektronikoa zela eta zertarako erabili.



M.A.

Jende gutxitxo, baina giro bikaina jaietan

Eguraldi bikainarekin ospatu dituzte gatzagarrek Andramaixak, eta Jon Sasiain Kultura Saileko zinegotzia pozik dago ekitaldiek sortu duten giroarekin: "Giro bikaina izan dugu, zalantza barik, baina penatxoia ere badugu aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili delako. Urtero etorri izan diren herritarren senide edo lagunak ez direla gurekin izan esango nuke".

Zezentxoaren ikuskizunera gustura hurreratu zen jendea, baita goizaldeko bostetan ere, eta trialsin ikusle ugari izan zituen: "Gauza berriak antolatu behar dira jendea honaino ekartzeko, hortaz, hurrengorako guttiz ezberdina den zerbait pentsatu beharko dugu", dio Sasiainek. Hala, azaroko San Milixanak aldaketa askorekin aurkeztuko ditu Udalak.

Irailaren 11a:
098 zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, irailaren 11a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetak bat!

098 zozketako saridunak	099 zozketako sariak	Baldintzak
<p>Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lurdes Otxoa Elkorobarrutia (Aretxabaleta) • Sebastian Guridi Ifurrategi (Oñati) 	<p style="text-align: center;">DONOSTIAKO AQUARIUMA bisitatzeko bi gonbidapen. (saridun bakoitzari bi emango zaizkio)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra. • Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan. <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 10px;"> <div style="border: 2px solid #0056b3; padding: 5px; background-color: white; color: #0056b3;"> <p style="font-size: small;">Harpidedun egiteko:</p> <p style="font-weight: bold; font-size: large;">902 36 38 51</p> <p style="font-size: x-small;">09:00etatik 18:30era.</p> </div> <div style="border: 2px solid #0056b3; padding: 5px; background-color: white; color: #0056b3;"> <p style="font-size: small;">Harpidetza kuota:</p> <p style="font-weight: bold; font-size: large;">24 euro</p> <p style="font-size: x-small;">2006 bukaera arte</p> </div> </div>

astelehenean, aste bukaera osoa



BI TXAKUR Jesus Mari Plazaola, txakurrekin. *Linda* izango da Euskal Herriko Txapelketan, eta ustez, *Mutiko* izango da errelebu hartuko duena, ofizioa ikasi eta gero.

XABIER URTZELAI

ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA > DOMEKAN, EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA ZALDIBARREN

"Txapelketan artzainak txakur ona izan behar du, eta elkar ulertzen jakin"

"Oñatiko txapelketa irabazi arte ez dut atsedetik hartuko, hori falta zait-eta"

"Artzainak, neurri batean, plaza-gizona izan behar du"

"Txakurra txikia denean ez da jakiten balioko duen ala ez"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Udalako Palazio baserrian egin dugu Jesus Mari Plazaolarekin (Arrasate, 1956) hitzordua. Eguaztena da, eta azkenaldian osasun arazo txikiekin dabilelako harrapatu dugu Plazaola etxean: "Ea medikuak egubakoitzean alta ematen didan". Izan ere, domekan egingo dute Zaldibarren Euskal Herriko Artzain Txapelketa, eta irailaren hasieran Gipuzkoakoan bigarren sailkatu eta gero, ez du domekan kale egin gura: "Datorren astean Oñatiko Txapelketan egon gura badut, Nafarroako, Arabako, Bizkaiko eta Iparraldeko txapelketetan bigarren sailkatu direnkin lehiatu beharko dut. Guztion artean lan onena egiten duenak

eskuratuko du Oñatirako txartela, baina gaitza izango da".

'LINDA' TXAKURREKIN

Esan beharra dago artzain txakur txapelketetan txakurra dela sailkatzen dena, eta ez artzaina.

Hau da, Plazaolaren txakurrak, *Linda*-k, beste artzain batekin hartu ahal izango luke esku txapelketan. Baina zer behar da artzain txakur ona izateko?: "Txakurra txikia denean ez da jakiten artzain txakur izateko balio-


ko duen ala ez. Nagusiago egiten doan neurrian, artaldean zelan maneiatzen duen, txakur argia ote den, lanerako gogoa izaten ote duen... Horrelakoetan jartzen dugu artzainok arreta". Eta, zer behar du artzainak?: "Hasteko, txakurrekin lan egiteko denbora, geroago eta laburragoa izaten dugu-eta. Horrekin batera, ezinbestekoa da txakurrekin elkar ondo ulertzea eta baita agintzen jakitea ere. Eta, neurri batean, artzainak plaza-gizona ere izan behar du".

GOIENKARIAK hau jaso orduko Jesus Mari Plazaolak jakingo du medikuaren baimena ba ote duen. Lasai egon dadila, azken batean *Linda* izango da-eta gora eta behera ibiliko dena.

KONTUAN HARTZEKO

Oñatikoa irabaztea falta zaio

Jesus Mari Plazaolak zazpi bider jantzi du Gipuzkoako Txapelketako txapela, eta beste sei alditan izan da Euskal Herriko onena. Udalakoak, baina, badu arantza bat: "Oñatiko Txapelketa oso garrantzitsua da, eta bost bider txapeldunorde izan banaiz ere, sekula ere ez dut txapelketa hori irabazi". Plazaolak ez du erretiroa hartzeko inongo asmorik: "Oñatikoa irabazi arte ez naiz geratuko. Baina lehenengoak bigarrena ere eskatzen du, horrenbestez...". Aspertzen ez den bitartean, Plazaolak ez du txapelketetan makila alde batera uzteko asmorik.



Urrutiko Unibertsitatea baina etengabeko harremanean!

UNED-Bergara

- ▶ 30 karrera Unibertsitario baino gehiago
- ▶ Ikasketa-Plan berrietara sartzeko aukera
- ▶ Doktoretza ikastaroak, graduondokoak, masterrak...
- ▶ Tutoretza Telematikoa eta jarraipen presentziala

INFORMAZIO HITZALDIA:

Koldo Mitxelena Kulturunea
Donostia
Irailak 18, astelehena. 19 h.
■ Sarrera doan ■

FUTBOLA > PREFERENTEA

Ligaren estreinaldian ibarreko hiru ordezkariak galdu egin zuten; inork ez du gura bigarren porrota

Mondrak eta UDAk Atxabalpen jokatu dute domekan; Aloñak, berriz, Anaitasuna izango du aurrean

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Preferente mailako motorra oraindik hotz dagoela iritsiko da denboraldiko lehenengo derbia. Domekan, Mondrak eta UDAk denboraldiko lehenengo aurrez aurrekoa izango dute (17:00). Liga-koa bai, behintzat. Eta, horrelako partiduak lehenago edo geroago jokatu egin behar badira ere, seguru nago entrenatzaileak ez direla pozik ibiliko, taldeak osatuago daudenerako utzi gura izaten dituzte-eta horrelako lehia garrantzitsuak.

Egia da domekako partiduak ez duela aparteko garrantzirik izango; hau da, bestetan moduan hiru puntu egongo dira jokoan. Hori bai, joan den astean lehenengo norgehiagoka galdu eta gero, domekan esku-hutsik geratzen denak korrontearen kontra hasi beharko du igeri egiten, atzetik aurrera. Eta hori da uztailean entrenatzen hasi zirenetik gura izan ez dutena: denboraldia txarto hasi, alegia.

EMAITZA EZ DA DENA

Hau da, Mondrak eta UDAk galdu egin bazuten ere, bi talde horiek erakutsitako joko mailak adierazten du emaitza ez dela dena. Izan ere, UDAk ondo agindu zuen Pasaiaren kontrako bigarren zatian, eta Mondrak Trintxerpen 2-0 galdu bazuen ere, Gordobilen mutilek gehiago merezi izan zuten. Talde horiek sailkapenean aurrera begira egoteko moduko hamaikakoa dute.

OÑATIARRAK AZKOITIRA

Oruetaren mutilak ere egoera berdintsuan daude. Joan den urtean oso gutxitan gertatu bazen ere, joan den astean Aloñak etxean barkatu egin zuen Berioaren kontra. Ez zen izan oñatiarrak zelaian gaizki kokatu zirelako, edo gol aukerarik izan ez zutelako. Egia esan, ezer gutxi eginda nagusitu zen Berio, eta seguruenik, horrek amorru handiagoa emango du. Baloi geldiko jokaldi baten etorri zen donostiarren lehenengo gola, eta areaz kanpo joa jaurtiketa baten bigarrena: bi jaurtiketa eta bi gol, ezin da gutxiago eginda hobeto irabazi.

Horrenbestez, Aloñak etxean lortu ez dituen puntuak Txerloia futbol zelaian gura ditu erreku-peratu (zapatua, 16:30). Joan den denboraldiko lana kontuan hartuta, Anaitasunak ozta-ozta eutsi zion kategoriarri, 16. postuan

Mondrak eta UDAk derbian gura dute hasiera makala zuzendu

amaitu zuen-eta denboraldia. Bada, bihar ikusiko dute Aloñako mutilek zenbateraino indartu den talde hori.

GAINONTZEKOAK ERE LANERA

Preferenteak bakarrik ez, gainontzeko kategoriek ere lan egin-

go dute asteburuan, Liga Txapelketak hasiko dituzte. Hala, Bergarak Erregionaleko oilarretako baten zelaian hasiko du urteko jarduna, Zumaian (zapatua, 16:00). Joan den urtean talde hori izan zen mahoneroen kontrario zuzenetako bat; hortxe dute Neka

Galanen mutilek lehenengo erronka.

BIGARREN ERREGIONALA BETETA

Eta, seniorretako kategoria txikiak ere emozioa izango du aurten, ibarreko lau ordezkari lehiatuko dira-eta bertan: Antzuo-

la, Mondra, Aretxabaleta eta Elgeta. Badirudi Preferenteko taldeak hasi direla konturatzen Erregionalean bigarren taldea izateak baduela bere garrantzia. Alde horretatik, Antzuolak eta Elgetak abantaila dute, inork ez dielako jokalaririk kenduko.



**Aktiboan dauden langileentzat prestakuntza ikastaroak
%100 diruz lagunduta**

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion katalogo modularra.

FABRIKAZIO MEKANIKO ARLOA

Tornu konbentzionaleko mekanizazioa	80 or.
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa	80 or.
Z.K.K. tornuan programazioa. FAGOR 8055	40 or.
Z.K.K. tornuan programazioa. FANUC	40 or.
Z.K.K. fresagailuan programazioa. FAGOR	46 or.
Z.K.K. fresagailuan programazioa. HEIDENHAIN	46 or.
Z.K.K. tornuan programazioa eta exekuzioa	46 or.
Z.K.K. fresagailu programazio eta exekuzioa	46 or.
CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa	30 or.
CNC hari bidezko elektrohigiduraren prestaketa eta programazioa	30 or.
Abiadura handiko mekanizazioa	50 or.
CAD. UNIGRAPHICS	30 or.
CAM. UNIGRAPHICS	20 or.
Mekanika diseinua. 3D Modelaketa. Modelatu eta Planoak. SOLID WORKS	30 or.
Mekanika diseinua. 3D Miltzoak. SOLID WORKS	30 or.
Marrazketa 2D irudikapen grafikoa. (AUTOCAD)	40 or.
Planoen irakurketa	50 or.
Saiakuntza Suntsitzaileak eta ez Suntsitzaileak	40 or.
Elektrodo eta erdiautomatikorekin Soldadura	55 or.
Lan arriskuen prebentzioa. Oinarrizko maila	40 or.
Tratamendu Termikoak eta Metalografia	60 or.
Egiaztapen dimentsionala	40 or.
Egiaztapen tridimentsionala. COSMOS	40 or.
Hidraulika	36 or.
Fabrikazio-prozesuak	60 or.

ELEKTRIZITATE ARLOA

Oinarrizko Automatismo Programarriak. S7-300.	35 or.
Automatismo Programarriak Aurreratuak. S7-300.	40 or.
Muntaia Domotikoak. I. Maila. Sistema zentralizatuak	40 or.
Muntaia Domotikoak. II. Maila deszentralizatuak. Bus EIB	60 or.
Etxebizitzeko instalazio elektrikoak	60 or.
PLCen programazioa	60 or.
Roboten programazioa	20 or.
Erregulazio automatikoko elementuak	20 or.
Baimendutako instalatzaile karneta ateratzera zuzendua Esperientziarik gabe.	100 or.

ADMINISTRARITZA eta INFORMATIKA ARLOA

Informatika-aplikazioak administrazio arloan (Windows, Word, Excel, e Internetan)	80 or.
Dokumentuen informatika-elaborazioaren kudeaketa (Word-Excel-Access, aurreratuak)	75 or.
Nominak eta Gizarte Segurantzak	60 or.
Enpresa txikiaren administrazioa eta kudeaketa	60 or.

Hasiera batean, ikastaro guztiak astelehenetik ostegunera emango dira 18:00-20:30ra, erreleboak kontutan hartuko dira. Ikastaroen hasiera matrikularen arabera egingo da.

Informazio gehiago eta inskripzioak: IEFPS Miguel Altuna. Ibargarai,1 • 943767049

email: formakuntza@imaltuna.com



DANBAKA))))))

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa

**PARTE
HARTU
NAHI?**

Izena emateko azken eguna: irailak 19

INFORMAZIO GUZTIA:

www.danbaka.com

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **KEPA JUNKERA**
Hiri bere azken diskoa aurkeztuko du zapatuan Amaia antzokian > 45



> **JOKIN ETXEBARRIA**
La Sextako partiduak euskaraz emango ditu > 52

> **IÑIGO ZUBIZARRETA**
Zaragozan albaitaritzatik ikasi zuen baina gitarra du gustuko. Bostonen egon zen ikasten, eta egun Madrilendihardu hainbat talderekin jotzen > 50



AZALA: ALEX AZKARATE / ARGAZKIAK: GOIENKARIA

'Kutsidazu', orain zinemara

Zinemaldian
estreinatuko dute
filma, irailaren 28an

Mireia Gabilondo
bergarra eta
Fernando Bernues dira
filmeko zuzendariak

EDU MENDIBIL > BERGARA
Donostiako Zinemaldiaren 54. ekitaldia irailaren 21etik 30era ospatuko da eta aurten ere euskal zinematik izango du bere tartetxoa. Iaz *Aupa Etxebeste!* filmaren estreinaldiak ikusmin handia piztu bazuen, aurten Mireia Gabilondo bergararrak eta Fernando Bernuesek zuzendutako *Kutsidazu bidea, Ixabel* filmaren txanda izango da. Irailaren 28an izango da estreinaldia, Kursaal, Zabaltegi sailaren barruan.

Ibilbide luzea darama Josean Sagastizabalek sortutako *Kutsidazu bidea, Ixabel* lanak. Liburua 1994an kaleratu zuen eta 65.000 ale inguru saltzera iritsi da. Euskaldun berriak eta zaharrak identifikatzea lortu duen istorioak antzerkian ere arrakasta itzela lortu zuen eta orain pantaila handirako jauzia egingo du. Zinemaldiko estreinaldiaren ondoren, han eta hemen ikusteko aukera izango da, etengabeko bide arrakastatsuari eusteko asmoz.

'Kutsidazu', orain zinemara

(43. orrialdetik dator)

Kutsidazu bidea, *Ixabel* Mireia Gabilondoren debuta da zinema zuzendari gisa. Iazko uztailean eta abuztuan egin zuten grabaketa, Gaztelun eta Zizurkilan, eta Mikel Losada, Ainere Tolosa, Iñake Irastorza eta Jose Luis Ugartemendia aktoreak dira protagonista nagusiak. Zuzendari lanaz gain, aktore lana ere egin du Gabilondok: *Ixabel* protagonistaren ahizpa da filmean. Milioi bat euro inguruko aurrekontua izan du proiektuak.

Istoria ezaguna da: gazte donostiar bat udan baserri batera doa euskara maila hobetzeko asmoz. Euskara ikasteko zailtasunei eta baserriko bizimoduaren ustekabeei aurre egin behar ko die. Gabilondoren hitzetan, "filma komedia linguistiko-erromantikoa da".

Josean Sagastizabal idazlea bera da narratzailea filmean. Badira hainbat nobedade liburuarekin alderatuta: "Pertsonaia eta istorio gehiago daude nobelan baino eta horrek eman digu jokoa telebistarako bost kapitulu idazteko eta gauzak nobelan bezala laga beharrean pixka bat zabalteko. Kontakizuna trantsizio garaian kokatuta dago eta orduko giro hori erakutsi nahi izan digu baita ere. *Tramatxo* politiko bat ere badago... Nahiz eta jendeak istorioa ezagutu eta zertaz doan jakin, zerbait diferentia ikusiko dute", dio Gabilondok.



URTEBETEKO LANA Bernuesen eta Gabilondoren aginduetara, iazko uztailean eta abuztuan egin zuten grabaketa, Gaztelun eta Zizurkilan.

GOIENKARIA

Filmak 97 minutu irauten du eta telebistarako 50 minutuko bost atal egin dituzte.

ARRAKASTAREN BIDETIK

Horren istorio ezaguna izateak filmari mesede ala kalte egingo dion ere galdetu diogu: "Ez dago jakiterik. Barrutik kontatutako istorio polita da, Joseani berari

gertatu zitzaiona, eta hasieratik bagenekien jende askok ezagutzen zuela. Hala ere, zinemak kontatzeko modu berezia eskaintzen dizu eta gauza berri bat egin ten saiatu gara, baserrien eta mendien kolore desberdinak eta tonu errealistagoa erantsita. Euskaldun zaharren eta berrien artean zubiak erakusten ditu eta

barre egiteko aukera eskaintzen du istorioak. Euskararen egoera normalizatuz doan arren, oraindik ere zaila da euskara ikastea eta jendea berehala identifikatzen da hainbat egoerarekin. Garai hura gogoratzea ere ondo dago... Harremanak, esaterako, desberdinak ziren orduan eta ia-ia epokako film bat egin digu".

ESTREINALDIAREN ZAIN

Egunotan komunikabideen deiei erantzuten nahiko lan dauka bergararrak: "Gogoak daukagu jendeak ikusteko eta ikusleen erantzuna ezagutzeko. Gustura gaude emaitzarekin; buruan geneukan hasierako ideiarengandik gertu dago filma, eta pozik gaude. Ea orain jendeak zelako harrera egingen dion...". Iazko Zinemaldian beste bergarar batek, Asier Altuna *Kixi*-k, egindako beste komedia bat estreinatuta zen: "Kasualitate hutsa da biak komedia izatea. Komedia izanda ere, gureak badauzka momentu serioagoak... Dena dela, pozgarria da euskarazko filmak egitea. Ea gehiago egingen diren, jendea badago eta. Eta ikuslea jenero ezberdinak ikusteko gogoz dago, ez komediak bakarrik...".

Esan bezala, Zinemaldian izango da estreinaldia, irailaren 28an: "Plazarik politena da guretako. Film bat egitea, estreinatzea eta Zinemaldian, gainera... Gehiago ezin eskatu. Ea jendearen gustukoa den. Zinemaldia bukatutakoan doena bat kopia izango dira kalean. Nahiko genuke *Alatriste*-ren moduko indarra izatea... Baina pozik gaude, eta uste dut ondo joango dela".

'Txorixak galduta egozian' dokumentala, eta 'Bosque de sombras' filma ere bai

Zinemaldiak Euskal Zinemari eskainiko dion jardunaldiaren barruan, Jose Mari Gonzalez *Gonza* oñatiarraren *Txorixak galduta egozian* dokumentala ikusteko aukera izango da irailaren 27an. *Kutsidazu*-ko protagonista balitz bezala, *Gonza* urtebetez egon zen Zumarragako Oraa baserrian bizi izaten eta Euskal Herriko baserri giroaren errealtatea erakusten saiatu da. "Baserriaz nuen ikuspegia erabat aldatu da; horrek ez du esan nahi ederra ez denik, baina kaleko jendeak baserriko jendearekiko dugun irudi idiliko eta bukoliko hori hautsi egin da. Erritmo lasaian, naturalean nonbait, garai bateko baserrietako giroa islatu dut". Dokumentala Bilboko Multicines zinemetan dagoeneko ikusi ahal izan da eta urriaren 28an Arrasateko Amaia antzokian eskainiko dute.

Aurretik *Kutsidazu* iritsiko da Arrasatera; Zinemaldia bukatu bezain pronto emango dute: irailaren 29tik 30era eta urriaren 1ean, 2an, 7an, 8an eta 9an. Bestalde, Koldo Serra zuzendari bilbotarraren *Bosque de sombras* lana Zinemaldian izango da. Protagonistak Gary Oldman, Virginie Ledoyen eta Aitana Sanchez-Gijon aktore ezagunak dira eta Elgetak badu protagonismoa, han filmatu baitzizuten pasarte batzuk.



Bosque de sombras Zabaltegi sailean eskainiko dute.

GOIENKARIA

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

1,2,3,4...Real!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic Juepi!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Aitarek ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miami!! | **MIAMOL**
Independentzia! | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazu! (pilota) | **MILAZU**
Suprimua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalagarta | **TXALA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txoootx | **TXOTX**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

DEPOR.IZENA. ZENBAKIA	OSAUNA.IZENA. ZENBAKIA	ANOETA1	MENDI2
BILBAO.IZENA. ZENBAKIA	REAL.IZENA. ZENBAKIA	IPURUA	EIBARPOOL

BELAK	ZORI3	IKURRI3	POPATIK1	AIZKORAK	ADARIAK
ZORI1	ZORI4	KALABER1	POPATIK2	EGUZKLORE3	ELORAN
TOPA	TITULUA	MUSKARIA	SATANAS	ARRANAK	IDIAK

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
 Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki-jalistera bakarrik ordaindu beharke duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.
 * Euskaratutako: 900 94 02 00 telefonora. ** Vodafone: 011 123-45. ** Movistar: 011 603-01.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com



DISKOAREN AURKEZPENA Kepa Junkerak *Hiri* diskoa aurkeztuko du zapatuan, Amaia Udal Antzokian.

K EKOIZPENAK

MUSIKA > ZAPATUAN, KEPA JUNKERA AMAIA UDAL ANTZOKIAN

Munduko hirien gaineko lana aurkeztuko du Kepa Junkerak Arrasaten

Bilboko musikariak bere ibilbidean ezagututako hiri eta herrien gaineko bizipenak jaso ditu folka eta ezaugarri kosmopolitak batzen dituen lanean

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Bihar, zapatua, nazioartean ospe handia hartu duen Kepa Junkera arituko da Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Emanaldia 20:00etan izango da, eta sarrerak 12 eurotan daude salgai.

Junkerak lan handia egiten dihardu eta batek baino gehiagok Errekaldeko (Bilbo) musikaria euskal folkaren nazioarteko enbaxadore izendatu du. Hain zuzen ere, orain dela bi urte *K* diskoarekin Folk Disko Onenaren Grammy Latindarra eskuratu zuen.

roko (Brasil) Marcos Suzanon, besteak beste.

Ez da harritzekoa hainbeste grabazio ekinaldi egitea. Izan ere, *Hiri* diskoan *World music* delakoaren kide ugari esku hartu dute-eta. Beste askoren artean, honako hauek: Patrick Vaillant eta Melonius mandolina-laukoteak, Glen Vêlez eta Brasilgo Marcos Suzano perkusio jotzaileak, Alain Bonnin piano jotzaileak, Ibon Koteron eta Alos Quartet taldeak, Bulgarkaren ahots bulgariarrak, Xose

Manuel Budiño, Enzo Avitabile & I Bottari Di Portico italiarrak, eta Jose Antonio eta Benito Cabreraren tipleak.

MUNDUKO HIRIEN 'USAINA'

Hain jatorri anitzeko musikariek lagunduta, Junkerak aurreikusitako helburua erdietsi du. Ezagututako hainbat hiriren *usain* eta sentsazioak diskora eramatea.

Hiri lanak ahots mestizoa eta folk kutsua du, baina aldi berean urbanoa eta kosmopolita ere bada. Junkerak hainbat kontinentetako hiriak aukeratu ditu ibilbidean aurkitu dituen bizipenak gogora ekartzeko: Buenos Aires, Tbilisi, Reno, Napoli, Kiruna, Ataun, Rekalde, Agadir...

'HIRI' DISKOA BESOPEAN

Egunotan, berriz, Junkerak disko berria aurkeztu dihardu. Lan berriak *Hiri* izena dauka eta hamabost kantuz osatuta dago. Bilboko musikaria Elkarlanean argitaletxera bueltatu da, eta lan hau kaleratzeko Lagun Aro aseguru etxearen babesu jaso du.

Disko hori hainbat estudioetan grabatu eta nahastu dute 2006. urtean zehar: Busturiako Olienen, Arantzazuko Balea Musika Ideiak-en, Donostiako Elkar estudioan, Madrilgo Non, Napoliko (Italia) Red Lizard-en, Santa Cruz de Tenerifeko Multitracken eta Rio de Janei-



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

MUSIKA > BI KONTZERTU BEREZI ASTEBURUAN

The Police taldearen musika 3.60 aretoan

Delorean eta BCP Bergarako gaztetxean, eta Synchronicity Arrasateko 3.60 aretoan

Pharaons arituko dira. Mermaid-en talde paralelo izateko jaiotzen, baina Mermaid desegintzen zenetik indar handia hartu du. Aipatutako taldeko Firehead eta Brainlosterrek gidatuta, punkak eta heavyak bat egiten dute axolagabeki, inguruko guztiari eta euren buruari barre egingez. Ikuskizun oso dibertigarria eskaintzen dute.

I.B. > ARRASATE

Bihar, zapatua, bi musika kontzertu berezi egingo dituzte ibarrean. Bata, Bergarako gaztetxean izango da, San Martin jaiek lotuta. Txapa Irratiak antolatuta du, eta zuzeneko ikusgarriak egiten dituzten bi talde izango dira taula gainean: Zarauzko Delorean eta Iruñeko Basque Country Pharaons. 23:00etan hasiko da jaialdia.


Zarauzko Deloreanek izen handia hartu du. 2000an sortutako laukoteak 80ko hamarkadako post-punkaren ildo berreskuratu eta musika dantzagarria erantsita, The Cure, New Order eta bestelakoen emaitza antzekoa lortu du. Kataluniako B-Core diskoetxearekin kaleratu ditu bere lanak, tartean orain aurkeztu diharduen *Into the plateau* izeneko laugarren lan luzea.

Delorean *revival*-istekin batera, Iruñeko Basque Country

STING-EN THE POLICE GOGOAN

Bestalde, bihar, zapatua, Arrasaten beste kontzertu berezi bat egingo dute. Hain zuzen ere, Sting-ek sortutako The Police taldearen kantuak eskainiko dituzte. Horretarako, eskarmentu handiko musikariz osatutako Synchronicity klon taldea arituko da.

Kontzertua 23:00etan izango da Arrasateko 3.60 aretoan. Lehenik eta behin, Bergarako Mahaster River talde akustikoko diskoa aurkeztuko du. Horren ostean, David Porterok (Sting), Edu Zafrak (Andy Summers) eta Dani Ortimek (Stewart Copeland) The Police taldearen punka, rocka, reggaea eta popa berreskuratuko dituzte nostalgiaz jositako emanaldian. Hala nola, *Walking on the moon*, *So lonely*, *Roxanne*, *Message in a bottle* eta beste pieza klasiko batzuk egongo dira entzungai.



KLONA Synchronicity, The Police taldearen klona.

GRUPOS CLONICOS.COM



Elgeta bidea z/g.
130 posta-kutxa
20570 BERGARA
Tel.: 94376 91 37
Faxa: 943 76 91 38

e-posta:
ttt@grupottt.com
web orria:
www.grupottt.com

TEKNOLOGIAK:

- Bonifikatua
- Zementazioa, karbonitrazioa, tenplaketa.
- Gof-hutsezko tratamendua
- Tenifer nitrazioa
- Nitreg nitrazioa
- Indukzio bidezko tratamenduak
- Kromo gogorra, kromo matea.
- Arteketa eta lapeaketa
- Plasma bidezko proiektzioa
- HVOF bidezko proiektzioa
- HFPD bidezko proiektzioa
- Proiektzio oxiazetilenikoa eta elektrokio

PRODUKTUAK:

- Zurtoin motelgailua
- Presiozko galdaketarako higadura erreminta



Angiozarko **Iban** eta Abadiño **Aizpea** zapatuan, irailaren 16an, ezkonduko dira Abadiñon. Angiozarko lagunen partetik, ea gure abeslaria ondo moldatzen den Abadiñon hemendik aurrera. Zorionak, bioi!



Joxe Aranzadi aretxabaletarra eta **Saioa Umerez** oñatiarra zapatuan ezkonduko dira. Bidaian Kanadara eta Mexikora joango dira. Zuen ezkontza egunean ondo pasa dezazuela desiratuz, zorionak, etxekoan partetik.



Iñigo (Pedro) eta **Maite (Wilma)** zapatuan ezkonduko dira Arrasateko udaletxean, eta gero Gure Ametsa jatetxean izango dute bazkaria. Ondo-ondo pasatu biharko eguna eta zorionsu izan. Zorionak, koadrilakoan partetik.

hildakoak

- **Emiliano Sanchez Pescador.** Bergaran, irailaren 6an. 76 urte.
- **Agapito Blazquez Diaz.** Bergaran, irailaren 9an. 91 urte.
- **Bixente Zuriarrain Muxika.** Oñatin, irailaren 12an. 68 urte.
- **Jose Antonio Loiti Agirre.** Arrasaten, irailaren 12an. 65 urte.
- **Carmen Lopez Gutierrez.** Arrasaten, irailaren 13an. 13 urte.
- **Felix Mateo Minguez.** Aretxabaletan, irailaren 13an. 68 urte.



Josu Otadui eta **Albina Arana** arrasatearrek urrezko ezteiak beteko dituzte irailaren 15ean. Arantzazun ezkondu ziren 1956an, euskaraz, eta organoarekin *Eusko gudariak* abestia jo zuten. Egun horretan senitartekoekin bazkalduko dute Arteaga jatetxean.



Roberto Zugasti oñatiarra eta **Lurdes Sarasketa** zumaia-rra hilaren 9an ezkondu ziren Zumaian. Eztei-bidaian Bali uhartetara joan dira. Zorionak eta ondo pasa! Lagunen eta etxekoan partetik.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otarora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkarte: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 85 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.



ESKELA

Karlos Urrutia Ezkurra

2006ko irailaren 15an hil zen, 76 urte zituela.

*Etxera etorri eta etxeko bihurtu zinen, maitagarri...
Goguen izengo zaittue ardixek, txakurrek...
goguen izengo zaitugu nausixek, umiek...*



Udalako Palazioko familiak.

ESKER ONA

Edurne Galarza Zulueta

Antzuolan hil zen 2006ko uztailaren 26an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2006ko irailaren 15ean.

URTEURRENA

Jose Kruz Iturbe Urtzelai

2005eko irailaren 6an hil zen, 73 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 17an, 12:50ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Victor Lasa Diaz de Mendibil

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 17an, 12:50ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Xabier Iriarte Azurmendi

Arrasaten hil zen 2006ko irailaren 5ean, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko irailaren 15ean.

URTEURRENA

Margarita Urtzelai Alberdi

Luki Garitagoitiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 17an, 12:50ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Julian Cabero Ramos



Iruñean hil zen 2005eko abuztuaren 16an.

Urte bat pasa da gure ondotik joan zinenetik, baina inoiz ez zara joango gure bihotzetik.



Nieves emaztea eta seme-alabak 2006ko irailaren 15ean

bila-bila 7



hitz gezidunak

	Ihintza	Denbora berean	Garbitzeko tresna
	Baliotsu	Gehiagi	Bokal biribila
	Norat atzizkia		Potasioa
	Goizeko otordu		Antzerki
Oheetako bastidore	Mailaz igo		
Zaporetsua	Argitzeko makila		
		Pepe kazetaria	
		Ardi hitz-elkarketan	
Karta joko		Zati, puska	
IRUDIKO MENDIA		Noren atzizkia	
Eireko biztanle			Nitrogenoa
Laido, mesprezu			
		Zein tokitan	

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Parisen Gertatua

Emakume zahar bati diruzorria ostu zioten poltsatik eta korrika urrun zegoen polizi bulegora joan zen, salaketa bat jartzera.

Handik gutxi batera, kafea hartu zuen tabernara ahaztu ote zuen. Tabernara hurbildu zen, sartu eta zerbitzariak irifarre... diruzorria tabernan dagoen mahai baten ahaztu zuela andreari ezan zion.

Atzera berriro polizia-etxera zorroa azaldu zitzaiola esatera. Hara nolako erantzuna jaso zuen:


- Lastima! Lapurretaren ardura bere gain hartu duten bi arabiar badiugu eta!

sudokua

	5				4
6		8			5
3			7	6	
		9		2	8
	3		1	8	2
		7		9	3
9			8	3	
4		3			7
	7				3

hieroglifoa

Zenbatetan huts egiten du?




hizki salda

Zuhaitzen zazpi izen

B	A	R	T	E	A	J	A	A
L	F	R	I	R	A	Ñ	L	L
O	A	B	R	X	E	A	E	T
E	Z	K	I	A	J	F	P	I
K	T	A	S	U	M	O	Z	R
A	I	A	I	K	R	U	E	O
Z	R	S	M	E	P	A	Z	G
X	A	I	T	S	O	R	O	G
I	H	R	L	U	N	L	P	Z

soluzioak



N	O	N		N	I	V	I	R	I
	R	A		R	E	I	E		
A				R	E	A	Z	L	
L		A		A		S	M		
						A	O	Z	G
						G	O	R	A
						R	A		

8	3	1	6	9	4	5	7	5	2
6	7	2	7	2	5	1	2	3	4
2	5	4	3	7	8	1	6	1	9
4	1	3	6	5	6	7	6	2	8
7	2	7	9	8	1	4	6	1	5
5	6	5	3	2	7	8	6	1	4
1	4	9	3	2	7	8	6	5	3
3	9	4	7	5	6	2	6	2	8
6	1	8	2	3	4	5	7	9	1
7	5	2	9	8	1	6	4	3	2

Jeroglifikoak: Bikasutan

Z										
G										
G										
O										
R										
I										
T										
L										
A										
A										
A										
O										
Z										
R										
K										
T										
A										
A										
A										
A										

bono fotoa



Argazkiko zubiak Arrasateko bi auzo lotzen ditu. Nola dute izena auzo horiek?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Heineken garagardoa
33 cl-ko lata

0,59 € 98 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Oskar Oruerendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Euskal Mendi Federazioa.



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-alde.com

Eskaintza

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta

Presta zaitez
Maritxu
Kajoirako!



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Eguzkitza

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

Eskaintza


- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak

Berezitasunak

- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita

Jatetxe Gida



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Tartufo

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

Eskaintza

- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

Berezitasunak

- Arrainetan aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

Egunero zabalik 5:30etatik aurrera



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitaratekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Iñigo Zubizarreta > Gitarra jotzailea

"Zailagoa da albaitaritza arloan lana aurkitzea musikagintzan aritzea baino"

Iñigo Zubizarreta arrasatearrak urte asko darama gitarra astintzen. Oso gaztetxotatik zekien hori zela gustuko zuena, eta bidean Albaitaritza ikasi zuen arren -Zaragozan-, gitarra ikasten jarraitu du. Hala, Bostone-ra jo zuen, hango unibertsitatean instrumentu horren gainean espezializatzea, eta gaur egun Madrilen dihardu hainbat talderekin musika jotzen.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Iñigo Zubizarreta sarritan etortzen da jaioterrira, Arrasatera, baina Madrilen bizi da. Han gitarra eskolak ematen ditu eta hainbat musika talderekin dihardu zuzenean jotzen.

Zer izan gura zenuen nagusitan?

Albaitari. Etxean txakurrak izan ditugu beti, eta, oso gustuko ditudanez, txikitik hala esaten nuen. Baina, horren ostean, musika entzuten hasi eta iritzia aldatu nuen.

Noiz hasi zinen musika ikasten?

Oso gazte. 6 urterekin Arrasateko Musika Eskolara jo nuen, gaztelaraz berba egiten jakin aurretik. 10 urterekin gitarra jotzen ikasten hasi nintzen eta ordutik hona ez dut utzi.

Nerabezeroan musika talderen bat sortu zenuen...

Bai, 12 urterekin koadrilako lagun batzuekin Izenik Gabe taldea egin genuen. Hasieran punka egiten genuen, eta gero rocka. Handik urte batzuetara, 18 urterekin, beste lagun batzuekin Maldaria taldea egin genuen. Hainbat urte ibili ginen entseatzeko, baina azkenean utzi egin genuen. Bi talde haiek ez zuten zuzenean inoiz jo, baina Maldaria taldeak make-ta grabatu zuen.

Kirolaria izan zara?


Bai, 10 urtean eskalatzen ibili nintzen buru-belarri. Mendira ere sarri joaten nintzen. Baina eskalada utzi egin behar izan nuen, tendinitisagatik. Medikuek esan zidan bietako bat aukeratu behar nuela: gitarra edo eskalada. Lehen hartu nuen. Izugarritzeko pena eman zidan, oraindik faltan sumatzen dut eskalatzea. Aspaldian, jiu-jiutsa ia egunero egiten dut.

Zer dela eta erabaki zenuen Albaitaritza ikastea?

Nik gitarra ikastea neukan buruan, baina etxekoek beste zerbait ikasteko aholkatu zidaten. Zoritxarrez, hemen musika beste maila batean dago: ez da ofiziala, badirudi zaletasuna bakarrik dela, horrekin ezin dela aurrera egin... Albaitaritza ikasten nenbilela, uzte-kotan egon nintzen musikan buru-belarri aritzeko, baina azkenean hori bukatu arte itxaron nuen.

Konturatu zinen gitarra jotzea askoz gehiago gustatzen zitzazula edo Albaitaritza ez zela pentsatzen zenuena?

Biak batera. Zaragozan Albaitaritza ikasten nenbilela, gitarra



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 31 urte. **Zaletasunak:** Gitarra jotzea, musika entzutea eta jiu-jitsu. **Betetzeko daukazu amets bat?** Talde handi batekin birak egitea. **Dagoeneko bete duzun ametsen bat?** Musikaz bizi izatea. Zaila da, baina irakasle lanei esker neguan

bizi iraun daiteke. **Gizateriaren asmakizunik handiena?** Gitarra sokak. Eta bestela, antibiotikoak. **Irakurri duzun azken liburua?** *Chacal*. Orain, *Los pilares de la tierra* hasi dut. **Debagoieneko txokorik politena?** Aratz. Eskalatzea jotzen genuen hara.

ikasten jarraitu nuen. Albaitaritza bukatu orduko, gitarra, harmonia eta solfeo maila ona neukan, eta Bostonera ikastera joatea erabaki nuen.

Egin duzu inoiz albaitari lanik?

Zaragozako klinika baten praktikak egin nituen. Lana gustuko dut, baina zailagoa da albaitari lana aurkitzea musikagintzan aritzea baino. Nirekin ikasi zuten gehienek beste zereginen baten dihardute.

Zer aurkitu zenuen Zaragozan ikastera joan zinenean?

Ez neukan inolako aurreikuspenik, baina on egin zidan Arrasateetik irten eta hiri batera joateak. Maisu eta musikari oso onak ezagutu nituen, eta konturatu nintzen gitarraren alorrean gauza ugari neuzkala ikasteko.

Zaragozatik Arrasatera bueltatu eta oso epe laburrean Bostonera jo zenuen...

Bai, Zaragozan hainbat azterketa egin nituen Bostongo unibertsitatean sartzeko. Hemen ez dago halakorik. Begiak zabaldu zizkidaten. Han asko garatu nituen ezagutza eta abilezia. Bi urte egin nituen ikasten eta lanean, eta beste bi urte lanean bakarrik. Gitarra irakasle ibili nintzen bi akademiatan eta hainbat musika taldetan jotzen: fusioa, funkya, rocka, jazz... Baina nire estiloak pop-rocka eta rocka dira.

Bueltan Arrasate txiki gelditu zitzazu?

Ez. Ahal dudan guztietan etortzen naiz, baina musikarekin lan egiteko hirietara jo behar duzu, eta nik Madrilera jo nuen. Bostonen nengoela Ars Amandi taldean jotzea eskaini zidaten. Horrekin batera, Madrilgo musika institutu baten irakasle hasi nintzen. Ars Amandirekin urtebete ibili ondoren, Zaragozako Taco hard-rock taldean hasi nintzen. Hego Amerikan jotzen ibili gara, eta hara joango gara berriro. Beste talde askotan ere ibili naiz: The Low Lads, El Padre Johnny abade xeblearekin... Arrasaten, Radio Wings taldeko lagunekin, *Queens of rock* egin genuen, eta orain *Fat Lizzy* izeneko proiektua daukagu.

Askotan esaten dute musikariak ederto bizi direla...

Mito asko daude, baina musikaria izateko asko praktikatu behar duzu eta diziplina handia izatea ere ezinbestekoa da.

berriak

> 'HARMAILATIK'
Ibarreko lehen derbiaren inguruko kontuak astelehenean

Joan den astean hasi zuten Preferente mailako taldeek denboraldia eta bigarren jardunaldirako badugu derbi interesgarri bat. Asteburuan aurrez aurre izango dira Mondra eta Aretxabaleta, Atxabalpen. Ibarreko taldeen Liga hasiera kaxkarra kontuan izanda, puntu bila aterako dira bi taldeak. Bada, jarraipen zabala izango du partidu horrek asteleheneko *Harmailatik* saioan.

> PROGRAMAZIOA
Martitzenean eta eguenean duzue zita 'Berbaire' saioarekin

Gorka Etxabe kazetariak gaurkotasuneko gaiak jarriko ditu mahai gainean datoreen astean ere. Komunikabideek titularretara eramantuzten gaiak eztabaidatzeaz gain, ibarrekoak ere izango dira hizpide. Mahaiaren bueltan izango ditu datorren astean Miren Elgarresta, Larraitz Ugarte, Jon Iñaki Lasa eta Ainhoa Larrañaga. *Berbaire* saioarekin zita martitzenean eta eguenean duzue.

> ARRASATE IRRATIA
Txokolaterapia, berbaire 'Asteko gainbegiratua'-n

Astean, masaje gozoa eman digu Angela estetika zentrotoko Jon Apraizek. Ohiko olioak erabili beharrean, txokolaterarekin igurtzi digu gorputza; izan ere, horixe da txokolaterapia: erlaxatzeko eta umorea hobetzen laguntzen duen teknika berria.
Horrez gain, Jokin Etxebarria kirol kazetaria La Sexta telebista katean esatari lanean hasi dela-eta, hark esandakoak ere entzungo ditugu.

> ARRASATE IRRATIA
Oihan Vega dugu albistegietako ahots berria

Arrasate Irratiko albistegietan aldaketa izan duzu egunotan. Ohiko esatari Nerea Zubiete eskoriatzarraren ordean, datozen asteetan Oihan Vega angiozartarra dabil zeregin horretan.
Oihan Vega ezaguna da gurean, Goienan. Izan ere, aurretik GOITBn hainbat saiotan esku hartu du. Besteak beste, albistegi zein jai saioetan. Irratian ere moldatzen dela erakusten digu eguero 10:00etatik aurrera.

'MARRAZKI BIZIDUNAK' > EGUNERO

Etxeko txikienendako aukera zabala Goiena Telebistan

'Bihurkorrek',
'Nonochan' eta
'Snorkel': egunero
marrazki bizidunak
GOITBn

GOIENKARIA > ARRASATE
Eskaintza *Bihurkorrek* izeneko marrazkiekin hasten da astelehenean, eguaztenean eta egubakoitzean. Martitzenean eta eguenean, berriz, *Nonochan* bihurria da protagonista. Astean zehar, eguerditan 13:20an eta 20:15ean. Baina ez da hor amaitzen GOITBko eskaintza: asteburuetan goizeko 08:00etan hasita, astean zehar eskaintako marrazkiez gainera, *Snorkel* izenekoak ikusteko aukera ere baduzue.

Hori da Tokiko elkarte osatzen duten toki telebista denon eskaintza txikienendako.



MARRAZKIAK Eguerdian eta iluntzean ikusteko aukera duzue. GOIENKARIA

'16MM' > EGUENA, 22:47

Aitor Arregi oñatiarraren 'Nora hoa Bixente' film laburra ikusiko dugu

GOIENKARIA > ARRASATE
"Zineman lan egiteko ez dago eskolan ibili beharrik. Belarriak ondo garbitu eta begiak ondo zabaldu nahikoa da". Berak horrelaxe ikasi zuela aitortu digu Aitor Arregik. 2000. urtean zuzendu zuen, 300 euroko

aurrekontuarekin, *Nora hoa Bixente*. Hain zuzen, protagonistak egunero etxerako bueltan autostop egiten duen gaztea hartu du. Behin hartzeak ez dio arazorik sortuko, baina egunero...
Aitorri gaztetatik gustatu izan zaio zinema eta azkenean

lanbide bihurtu du. Gaur egun, Moriarti Produkzioak produktio-etxeko kide da. Besteak beste, honako film laburretan hartu du parte: *3b*, *Sintonia*, *Compartiendo a Glenda* eta *Kaiolaren arima*.

Horrez gainera, dokumental bat ere egin du: *Sahara Maraton*. Eta Goya zinema sarietako izendapena jaso zuen *Glub* animaziozko film luzeagatik. Aitor Arregik badaki film laburrak egitekin ezin dela bizi, eta, gainera, lau egunean film bat grabatu beharrik tentsio handia eragiten dio.

telebegi

Unai Moraza > www.eibar.org/blogak/telezaborra

Hiru ohar

Azken boladan telebistek iragarkietara joateko estrategia bitxia hartu dute. *Volvemos en 2 minutos*, horrela publikizitatea zenbat luzatuko den esaten digute. Gaia ondo aztertuta edukiko dute, baina nago metodoak ez duela oso ondo funtzionatzen. Iragarrikiek zenbat iraungo duten ez badakit, *zapping* egin arren behin eta berriz itzultzen naiz kate horretara saioa berriro hasi ote den ikusteko, eta nahigabe ere iragarki batzuk begiesten ditut. Baina kartelarekin ez, badakit bi minutu ditudala beste kateetan zer dagoen begiratzeko, eta ez naiz lehenago bueltatzen.
Betiko gaia, baina aipamena merezi du. Udako ETB-1eko programazioa penagarria izan da. Pailazoak, *dubidubiduba* Betizu Kluba, *Wazemank* errepikatuta, *MHLZ* errepikatuta... Tourreko etapen gaueko errepikapenak baino ez ziren falta.
Irailak 11. 5 urte pasa dira, baina ez naiz aspertzen egun hartako irudiak ikusten. Krudelak, baina ikusgarriak. Hegazkinak eraikinetan sartzan, dorreen erorketa, Famous Pizza-ren kartela hautsak irensten duenean...

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.
Jon Apraiz, txokolaterapiaren gainean; Jokin Etxebarria, kirol kazetaria; Xabier Mugartza, irailaren 11ren gainean; Juanjo Otaño, Eskoriatzako Irakasle Eskolaren 30. urteurrenaren gainean...

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Uda giroan!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Bidaian tartea
Elkarrizketak
Donostiako Aquariumera bisita
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitzea, 15
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Bihurkorrek 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorratza. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 16:45 Albisteak 17:00 Berbaire 17:30 Eltze beroa 17:45 Gaurkoak. 17:47 16mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berria. 20:15 Bihurkorrek 20:45 Gaurkoak. 20:47 Behazulo 21:15 Gatz eta berakata 21:30 mkt 21:45 Berria 22:15 Ilunpean 22:45 Gaurkoak 22:47 Sustraia 23:15 Izan ziren 23:30 Eltze beroa 23:45 berriak 00:15 Amaiera.

Zapatua, 16
08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak bilduma 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean 12:00 Eltze beroa 12:15 16 mm 12:45 Iparorratza 13:45 Harmailatik. 14:15 Klipak. Musika taldeen bideoklipak 14:45 Berbaire 15:15 Izan Ziren. 16:00 Erreportaia 16:30 Gatz eta berakata 16:45 mkt 17:15 Elkartasun bideak 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 19:15 Eltze beroa. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo 20:30 Zera dio eta Motzean 20:45 Ilunpean 21:15 Teknopolis. 21:45 Berbaire: Mahai inguru. 22:15 Elkartasun bideak. 23:15 Erreportajea 23:45 Emisio amaiera.

Domeka, 17
08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparorratza. 12:00 Erreportaia. 12:30 Izan ziren. 13:00 Gatz eta berakata. 13:15 Elkartasun bideak. 13:45 Klipak. 14:15 Marrazki bizidunak. 15:15 MKT. 15:45 Ilunpean 16:15 Behazulo. 16:45 16mm. 17:15 Eltze beroa 17:30 Marrazkiak 18:45 Klip 19:15 Iparorratza. 19:45 Berbaire 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean 21:00 16mm. 21:30 Behazulo. 22:00 Izan ziren 22:30 Teknopolis 23:00 Emisio Amaiera.

Astelehena, 18
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Bihurkorrek. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Erreportaia. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Klipak/mkt. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berria. 20:15 Bihurkorrek. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Harmailatik 21:15 Gatz eta berakata. 21:30 mkt 21:45 Berria. 22:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Erreportaia 23:15 Izan ziren. 23:30 Eltze beroa 23:45 Berria. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 19
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Klip. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Behazulo. 18:15 Eltze beroa 18:45 Albisteak 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berria. 20:15 Nonochan. 20:45 Gaurkoak. 20:47 16mm 21:15 Gatz eta berakata. 21:30 Izan ziren 21:45 Berria. 22:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. Behazulo. 23:15 mkt. 23:30 Eltze beroa 23:45 Berria. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 20
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Bihurkorrek. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 16mm. 16:15 Klip. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 16:15 Klip. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Sustraia. 18:15 Teknopolis 18:45 Albiste aurrerapena 19:00 Klipak 19:15 Erreportaia 19:45 Berria. 20:15 Bihurkorrek. 20:45 Gaurkoak. 20:47 erreportaia 21:15 Gatz eta berakata. 21:30 mkt. 21:45 Berria. 22:15 Ilunpean. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Elkartasun bideak 23:15 Izan ziren. 23:30 Eltze beroa 23:45 Berria. 00:15 Amaiera.

Eguena, 21
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Klip. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustraia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazuloa. 16:15 Klipak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:15 Iparorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berria. 20:15 Nonochan. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Teknopolis 21:15 gatz eta berakata. 21:30 mkt. 21:45 Berria. 22:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 22:47 16mm 23:15 mkt. 23:30 Eltze beroa. 23:45 Berria 00:15 Amaiera.

Jokin Etxebarria > La Sexta katean futbol partiduak euskaraz ematen ditu

"La Sextako estudiotik, kabinatxo batetik, kontatzen ditut futbol partiduak euskaraz"

Bartzelonatik egiten du kontakizuna Jokin Etxebarria kazetari arrasatearrak

La Sextatik futbola euskaraz jarraitzeko behar da Lurreko Telebista Digitaleko dekodifikatzailea

ENEKO AZKARATE > ARRASATE
Joan zen zapatuan ekin zion La Sextak futbol partiduak euskaraz eskaintzeari, seinalea Lurreko Telebista Digitalez ikusteko aukera dutenendako. Jokin Etxebarria kazetari arrasatearrak kontatzen ditu partiduak. Oraingo astean Arrasate Irratiak elkarrizketatu du. Hona hemen harekin izandako solasaldia.

Bartzelonatik kontatzen dituzu partiduak, ezta?

Bai, zapatu eguerdian harzen dut hegazkina Loititik El Prater eta gaua Bartzelonan egiten dut. Gero, domeka goizean berriro Bartzelonatik Bilbora.

Estudio batetik kontatzen dituzu partiduak futbol zelaietatik bertatik eman beharrean. Zelan da hori?

Andres Montes, Julio Salinas eta horiek, La Sextako izarrak, futbol zelaietan izango dira eta haiek gaztelaraz kontatuko dute. Gu, ordea, katalanez, galegoz eta euskaraz emango dugunok, La Sextak Bartzelonan daukan egoitzan izango gara. Handik, kabinatxo batetik eta telebistako monitorean baten aurrean, kontatuko dugu partidua beste hizkuntzatan.

Hala ere, joan zen zapatuan, 10 minutuz zeure ahotsa entzun zen La Sexta-ko emaldian.

Arazo tekniko bat egon zen eta Espainia osoan entzun ahal izan



Irratian eta prentsan jardun ostean, azkenaldian telebistan dihardu Jokinek, La Sextako euskarazko ahotsak. IKER BARANDIARAN

zuten nire ahotsa euskarazko kontakizunarekin, Andres Montesen gainera. Bien ahotsa entzun ei zen tarte batez. Lurreko Telebista Digitaleko emaldian ez zen arazorik izan; bai, ordea, bestean. Eta arazoa konpondu zuten une batez nire ahotsa isilarazita. Pentsatu nuen ez nuela partiduaren kontakizuna amaituko, baina konpondu zen.

"Partidua prestatzeko orduan komeni da ahalik eta informazio osoena edukitzea"

"Arazo tekniko bat tarteko, Espainia osoan entzun zen nire ahotsa joan zen zapatuan"

Ia-ia pentsatzeko astirik izan barik hasi zara, ezta?

Eguenean deitu zidaten eta zapatuan hasi nintzen. Orain dela pare bat aste komentatu zidaten La Sextakoak zapatuko futbol partiduak euskaraz emateko kazetarien bila zebiltzala eta neu prest nengoela esan nien. Joan zen eguenera arte. Dena gertatu da bat-batean.

Orain arte zapatu gaueko futbol partiduak ETBk eman izan ditu.

La Sexta, kate berria izanik, buru-belarri sartu da futbolearen eta apustu gogorra egin du. Futboleko eta saskibaloiko mundialak eman ditu eta orain Espainiako Futbol Ligako eskubideak eskuratu ditu ETBren ordainetan.

Baina TV3-k eta Canal 9-k ere ematen dituzte zapatuko futbol partiduak.

Arrasate Irratitik Patxi Alonsoren telebista katera

Arrasate Irratian hasi zen eta *Asteleheneko Goienkaria* sortu zenean, han jardun zuen, kirolean, pare bat urtez. Azken hilabeteak ETBn eman ditu. La Sextako futbol partiduen euskarazko ahotsa da. Denok ezin dugu entzun, ordea. La Sexta Lurreko Telebista Digitalaren bidez hartzeko dekodifikatzailea dutenek bakarrik. LTDren seinalea betiko antena errepikagailuetatik banatzen da (Muru, San Migel, Belar...), baina, gure kasuan, Muru da horretarako prestatuta dagoen bakarra. Horregatik, Arrasaten eta Aretxabaletan bakarrik ikus daitezke gurean futbol partiduak euskaraz.

Entzun izan da La Sextak eta ETBk, biek, emango ote zuten zapatuko partiduak, baina ez dute akordiorik lortu. La Sextak ez ei du hori gura. La Sextak, dirua galdu arren, berak bakarrik eman gura du partidua, Ligako eskubideak edukitzea delako modurik onena jendeak etxeetan antena bereziak jartzeko La Sexta ikusteko. Azken finean, katea promozionatzeko modua da eta apustu gogorra egin du.

Euskaltelek ez du futbola euskaraz ematen?

Ez, La Sexta gaztelaraz bakarrik ikus daiteke kable bidez, ez dago hizkuntza aldatzeko aukerarik.

Oraingo zapatuko partidua prestatuta daukazu?

Deportivo eta Vila-Realen artekoa da partidua eta banabil apurka-apurka ikasten. Gainera, beti egon behar duzu ondo prestatuta eta informazioa edukitzea ona da, ze partidua kaskarra bada eta kontatzeko ezer gutxi baduzu, beste zerbaiti buruz jardun behar baituzu. Ondo dokumentatua egotea komeni da beti.

Euskal taldeak txarto hasi dira.

Ziganda ez da Gabonetara helduko. Erronka zaila du, ze Agirrek oso goian utzi baitzuen Osasuna. Athletecek? Uda gorabeheratsu eta liskartsua izan du. Paper zaila dauka Sarriugartek. Realarekin esperantza handiagoak dauzkat, Bakerok argi dauzkalako gauzak; erdialdean amaitzeko moduan ikusten ditut txuri-urdinak.

Realeko zale batzuk, hala ere, ez dira oso fin portatu taldearekin.

Beti kritikatu izan dut Anoetak zaleen jokabidea. Eredua San Mameskoa da, partidua amaitu arte taldea animatzen duela. Eta partidu ostean txistuak merezi baditu txistu egiten du. Anoetak hori ikasi behar du, etxekoei modu horretan txistu egitea larria da gero! Rekartek ez du hori merezi.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/BZ-sistemas	/ezkutuorly	/gutzizeder	/multiopicas	/udalatz
/argi-plastik	/dragon-oriental	/gallastegi	/irudisport	/ohiak	/udalaitz
/arregi	/garaja	/ganesha	/korozabaleta	/okipark	/urdeki
/atai	/maulanda	/dukiena	/gorkagarai	/vitoria	/markiegi
/azkarate	/pando	/ego	/gorkataxi	/mayte	/urbietia
/joseba	/elejalde	/gorkatari	/merkeopari	/richimaier	

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten



“Gomendatzen dizut...” SARIA

www.aizue.com

EPEA: Irailak 28.

Konta egiguzu hor zehar ikusi duzuna!

Hondartza, mendi hori...
Aterpetxe, kanpaleku, ostatu hau...
Ibilbide, paraje, paisaia hura...
Herri, hiri, txoko hura...

Saria:

Zure gustuko oporralditxo.

Gomendioak jasotzeko azken eguna: irailaren 28a

Informazio zehatzagoa:

- www.aizue.com
- Arrasateko Gazte Bulegoa: 943 77 00 65 edo www.gaztebulegoa.com
- Bergarako Gazte Informazio Gunea: 943 77 91 57 edo gzerbitzua@euskalnet.net

Zure gomendioaren zain gaude!

Argazkian: Bled (Eslovenia)
Argazkiaren egilea: Aimar Elortza



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



BERGARAKO
UDALA



Gasteiz On
IRAILAREN 18TIK 23RA, VITORIA-GASTEIZKO

modaren astea

2006KO UDAZKEN-NEGUKO MODA JOERAK

TOKIA ARTIUM. ARTE GARAIKIDEKO ZENTRO-MUSEOA

<p>20:30</p> <p>18</p> <p>2006KO UDAZKEN-NEGUKO JOEREN AURKEZPENA</p> <p>Ileapainketa: Óscar G Makilajaea: Ixion Estetika Zentroa</p> <p>Magia ikuskizuna Arkadioren eskudik José Uruñuela Udal Danza Kontserbatorioraren Emanaldia</p>	<p>20:30</p> <p>19</p> <p>KALEKO MODA</p> <p>Dotore, Rios Moda /// Boutique Patricia: Bildumen aurkezpena: colección J&G, Futura Linea eta Oly Koki /// Guchi /// Gorbeaia Kaleko moda-erakundeak Boutique Chicas, Ibáñez, Mia Moda Mujer, Milord y Yazar /// Extrapiel</p> <p>Ileapainketa: Óscar G Makilajaea: Ixion Estetika Zentroa</p>	<p>20:30</p> <p>20</p> <p>MODA SORTZAILE BERRIEN 3. TOPAKETA NAZIONALA</p> <p>Cintia Robles /// Edurne Ibáñez /// Fontenla & Garaban: Marcos López y Jessica Fontenla /// Itaki Astrain /// Itziar Bellia /// Iván Vaz /// Nahia Iriarte /// Susana Pérez</p> <p>Ileapainketa eta Oinetakoaren Joeren Aurkezpena: Óscar G eta Valentino's</p> <p>Ileapainketa: Óscar G Makilajaea: Ixion Estetika Zentroa</p>
<p>20:30</p> <p>21</p> <p>STREET MODA</p> <p>Wilco, X-treme /// For /// Glisse /// Lencería La Góndola /// Funk /// Vox</p> <p>Ileapainketa: Eternian eta José Hornas Salones Asociados Makilajaea: Ixion Estetika Zentroa</p>	<p>20:30</p> <p>22</p> <p>MODA GAZTEA</p> <p>Blondie, Miriam Ocariz eta Lidia Delgadoen Bildumak /// Cop, Copine Paris, Mod Art /// Xart /// Cloé /// Dedal /// Dubla /// Mandala, Lola</p> <p>Ileapainketa: Eternian eta José Hornas Salones Asociados Makilajaea: Ixion Estetika Zentroa</p>	<p>20:30</p> <p>23</p> <p>2006 UDAZKEN-NEGUKO MODA JOEREN AURKEZPENA</p> <p>Ileapainketa eta Oinetakoaren Joeren Aurkezpena: Eternian eta José Hornas Salones Asociados eta Valentino's</p> <p>Ileapainketa: Eternian eta José Hornas Salones Asociados Makilajaea: Ixion Estetika Zentroa</p>
<p>23:00</p> <p>MODA KOKTELA</p> <p>Café Plaza Postas Kalea, 5</p>	<p>22:30</p> <p>FASHION PARTY</p> <p>Cube Artium Francia Kalea, 24</p>	<p>23:00</p> <p>FALL WINTER PARTY 2006</p> <p>Café Plaza Postas Kalea, 5</p>

LOR ITZAZU ZURE GONBIDAPENAK DENDA ELKARTUETAN

Parte hartzen duten saltokiak: Ache, Albareda, Ana Muguerza, Blondie, Boutique Chicas, Boutique Patricia, Cop, Copine, Cloé, Dedal, Donington, Donington Gorbea, Dotor, Dubla, Euskal Piel, Extrapiel, Fernando, For, Funk, Garden, Glisse, Guchi, Ibáñez, Impacto, Joyeria Ordax, Karmele Boutique, Lencería La Góndola, Lencería Yoar, Lola, Luyando Ópticos, Mandala, Mara Mujer, Marisa, Medical Optica, Mendia Optika - Multiópticas, Mia Moda Mujer, Milord, Mod Art, Modas Ibáñez, Ovilas, Pelelería Crimora, Ramón Peña, Rios Moda, Shiva Boutique, Suite, Sugaar, Trium, Tribal Area, Urbiete, Vox, Wilco, Xart, X-Treme, Yazar, Zuri Boutique.

Oinetakoak Grupo Valentino's-ek utziak: ZTR, Destroy, Charo Duarte eta Valentino's.

Ileapainketa eta Makilajaea: Óscar G, Eternian eta José Hornas Salones Asociados eta Ixion Estetika Zentroa.



Irailak 15-22

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Ospakizuna



LEINTZ GATZAGA

> Erretiratuendako bazkaria antolatu du Udalak, Andramariak bukatzeko

Andramari jaiak ospatu berri dituzte Leintz Gatzagan. Etzi, domeka, azken ekitaldia izango da: erretiratuendako bazkaria, Toki Ederren, 14:30ean. Menua, hauxe: urdaiazpikoa, txorizoa, frijituak, bakailoa, mingaina eta hainbat postre.

Ikuskizuna



ARRASATE

> Bertso-kabaret saioa Emakume Txokoaren ikasturte hasierarako

Emetik bertso-kabareta antolatu dute egubakoitzerako, hilak 22, Herriko Plazan, 19:00etan. Onintza Enbeitak, Iratxe Ibarak eta Oihane Perek egingo dute emanaldia: koloretua, gordina, umoretua eta bizi-bizia.

Jaiak



BERGARA

> Ohiko ekintzak eta berritasunak, San Martin Agirre jaieguneko erakarpak

Bihar, zapatua, ospatuko dute San Martin Agirre eguna. Ohi bezala, umeek danborrada egingo dute 18:00etan. Kirola da beste protagonista, Agorrosingo gunearen eta Udal Pilotalekuaren inaugurazioarekin.

leloa zabaltzen, udan ateratako argazkiak eskatzen dituzte.

Argazkiak Arrano tabernan utzi behar dira irailaren 25a baino lehen.

OÑATI

> Jaietako lelo lehiaketa antolatu du Laixan elkarteak

Jaietako lelo lehiaketa antolatu du Laixan euskara elkarteak, eta etzi, domeka, da parte hartzeko mugaeguna. Horretarako, zuen leloa sartu behar duzue hainbat tabernatan jarri dituzten kaxetan, edo laixan@laixan.org helbidearen bidez. Leloarekin batera, egilearen izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazi behar dira.

Lelo irabazlearekin 4.000 pegatina egingo dituzte, eta irabazleak 60 euro jasoko ditu.

DEBAGOIENA

> Goienaren udako argazki lehiaketa zabalik dago

Udako argazki argitaragabeekin parte har daiteke, koloretan zein zuri-beltzean. Norberak bost argazki aurkez ditzake gehienez. Lanak argazkiak@goiena.com helbidera bidali behar dira, edo Goienaren egoitzaren batera.

Argazkiak eta argibideak: www.goiena.net/blogak/argazkiak.

Antzerkia

ELGETA

> 'Star trip' antzezlanaren egingo dute Espaloia antzokian

Ohiko umore garratzarekin eta ironiarekin, Yllana taldeak *Star trip* ikuskizuna egingo du Espaloia antzokian. Oraingoan, protagonistak astronauta bitxi batzuk dira, misio batekin: unibertsoan bizitza adimenduna aurkitu... eta berau akabatu. Sarrerak salgai daude dagoeneko antzokian bertan, ohiko salneurrian.

Antzerkia hilaren 22an, egubakoitza, izango da.

Bestelakoak

OÑATI

> Bertso afaria antolatu dute biharko, zapatua, Arantzazun

Bertso afaria egingo dute bihar, zapatua, Arantzazun. Sebastian Lizaso eta Jesus Mari Irazu bertsolariak gai librea arituko dira.

Ilunabarrean izango da afaria.

OÑATI

> Umeendako jaialdia antolatu du Txanda merkatariek

Txandak, Oñatiko merkatarien elkarteak, umeendako jaialdia antolatu du. Jolasak, puzgarriak, margoak, kamisetak, gozokiak... izango dira.

Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 17:00etatik 20:00etara.

Erakusketak

BERGARA

> Nekazari giroaren etorkizunaren gaineko erakusketa

Euskadi rural. Siglo XXI. Ezagutu eta eskertu izeneko argazki erakusketa bisitatzeko azken egunak dituzue. Hain zuzen, bihar, zapatua, da azken eguna.

Udaleko osoko bilkuren aretoan dago. Orduetgia: gaur, egubakoitza, 18:00-20:30; bihar, zapatua, 12:00-14:00 eta 17:00-19:00.

OÑATI

> Oñatiko ermita eta dorretxeen erreplikak erakusketa

Joxe Urtzelaik Oñatiko ermiten eta dorretxeen egurrezko erreplikak, erreliebezko koadroak eta maketak ipiniko ditu erakusketan hilaren 18an, astelehena, kultura etxean.

Bisita orduetgia: egunero, 18:30etik 20:30era.

ARRASATE

> Eskolako Agenda 21 proiektuaren gaineko erakusketa

Eskolako Agenda 21 proiektuaren barnean, energia landu zuten herriko ikasleek joan den ikasturtean. Orduan sortutako hainbat material erakusketan ipiniko dute.

Harresi aretoan, hilaren 25era arte.

Musika

ARRASATE

> 3.60 aretoko eskaintza asteberu honetarako

Honako emanaldiak antolatu dituzte: bideoak gaua (gaur, egubakoitza, 00:00etan); Bartzelonako Synchronicity, The Policeren tributu taldearen kontzertua, eta Bergarako Mahaster River taldearena (bihar, zapatua, 23:00etan) eta Xemark eta Aiert (Etxarri) musikarien *Sputnik*

to the Beach emanaldia (03:00etan).

Hurrengo asteburuan, Arkada Social eta Mansillarock-en emanaldia izango dira.

BERGARA

> Bi musika emanaldi antolatu ditu Ziripot tabernak

Honako kontzertuak izango dira: Balza (kpk), d_2 (kpk) eta KRC (ziripot.berg) disko jartzaileak (gaur, egubakoitza, 23:00etan), eta Pablo Akaros "live" (karmarougue), Alkate (klorofilagrow) eta Orlando (ziripot.berg) bihar, zapatua, 23:00etan.

Barrenkalean dago Ziripot taberna.

BERGARA

> San Martinak direla eta, emanaldi bereziak Jam aretoan

Bihar, zapatua, Technimal II delako techno jaialdia antolatu du Jam aretoan. Techno eta Minimal aretoetan

egingo dute, eta 16 DJ ibiliko dira guztira.

Bestetik, etzi, domeka, after hours saioa girotuko dute hiru disko jartzailek 10:00etan.

Zapatu gauean 22:00etan irekiko dituzte ateak.

BERGARA

> Delorean post-punk taldeak kontzertua egingo du

Txapa irratiak antolatuta, Zarauzko Delorean laukoteak kontzertua egingo du bihar, zapatua. Post-punk estiloa lantzen dute, eta dantzarako musika egiten dute, oso harrera onarekin Euskal Herrikan kanpo ere. *Into the plateau* diskoa aurkeztuko dute. Basque Country Pharaohs taldeak ere joko du gau horretan.

Segidan, disko jartzaileak arituko dira gau osoan.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

PROPOSAMENA

OÑATI

> Haurren Eguna ospatuko dute herriko jaien atarian

San Migel jaiak badatoz, eta jai giroa suspertzen hasteko, Haurren Eguna ospatuko dute Oñatin etzi, domeka, Oñatz dantza taldeak antolatuta.

Aurten, 350 ume etorriko dira, 12 taldetan banatuta, honako herrietakoak: Gernika, Berriozar, Legazpi, Gorliz, Aretxabaleta, Arrasate, Antzuola, Sorluze, Urretxu, Azkoitia eta Zarautz. Kalejira egingo dute 12:30ean, eta erakustaldia 17:00etan.

Lehen ekitaldia 12:00etan izango da, Alkate Txikiaren agurrarekin.



Kilometroak 07: irudia aukeran

KILOMETROAK 2007an Bergaran ospatuko da eta logotipoa aukeratu ahal izango dute herritarrek

ERAKUSKETA Irudiak eta bakoitzaren leloa ikusi eta botoa emateko aukera izango da gaur arte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Datorren urtean Bergaran ospatuko da Kilometroak eta Aranzadi Ikastola hasi da dagoeneko jaia prestatzen. Eguntan, Kilometroak 07rako erabiliko duten logotipoa aukeratu ahal izango dute herritarrek. Hain zuzen ere, Aretxabaletako AZK komunikazio enpresak landu dituen logotipo proposamenak aukeratu daude Aranzadi Ikastolako sarrean, San Martin plazan.

Aranzadiko zuzendari pedagogiko Dorleta Mendibilek zera esan digu: "Herritarren parte hartzea bultzatze aldera egin dugu bozketarena. Jende asko etortzen ari da eta hurrengo urtean egingo dugun jaiaren inguruan antolatzen ditugun ekitaldi guztietan horixe egin nahi dugu; herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu parte hartzera".

ERABAKIA HURRENGO ASTEAN

Gaur arte aukera dago logotiporik gustukoena aukeratzeko. Irudiak eta bakoitzaren leloa ikusi eta botoa emateko aukera izango da 19:00etara bitartean Aranzadi Ikastolan bertan. Herritarrez gain, ikastolako ordezkariak eta herriko zenbait artistak ere zeresana izango dute. Herritarren artean boto gehien jasotzen duen proposamenak boto bat izango du, beste boto bat Aranzadi Ikastolako komunikazio taldeak izango du eta hiru boto herriko hiru artistaren esku geratuko da: Unai Azkarate, Luis Laskurain eta Manu Muniategiandikoetxea margolariak boto bana izango dute logotipoa aukeratzeko orduan.

Azken erabakia hurrengo astean jakingo da. Ohikoa denez eta alboko argazkian ikusten

denez, logotipo irabazlea kamisetetan, metxero eta bestelako produktuetan erabiliko da.

AURRETIK, OIARTZUNEN

Urriaren 1ean Oiartzunen ospatuko den Kilometroak jaiaren, hurrengo urterako lekukoa jasoko du Aranzadi Ikastolak. Bergarako hitzordua 2007ko urriaren 7an izango da: "Azken aldiz 1991n ospatu zen Kilometroak Bergaran, eta, kasualitatez, orduan Oiartzuni pasatu genion testigua. Aurten alderantziz izango da. Oiartzungoa pasa eta gero, lanean hasteko ordua izango da, eta horretarako hainbat lantalde sortuko ditugu", diosku Dorleta Mendibilek.

Ibilbideari dagokionez, Mekoalde eta Labegarieta bitarteko trenbide zaharra erabiltzeko aukera aztertzen ari dira.



KILOMETROAK 07 Logotipo irabazlea hainbat produktutarako erabiliko dute.

ahobero

"Nire dimisioa aurkeztu dut, kazetariok nahi zenuten moduan. Jarraitzen badut konnotazio batzuegandik besterik ez da"

Luis Aragones > Espainiako futbol hautatzailea
Denok dakigu zer motatako konnotazioak diren horiek. Dena den, beste hainbat egoeratan agertu duen jarrera eta jenioa agertu beharko luke dimisioa aurkezteko orduan.

iturri onetik

Debagoieneko Ospitale berria egiteko lanak hastear daude

Debagoieneko Ospitaleko eraikin berria egiteko lanak hastear daude. Proiektuaren nondik norakoak azaltzeko Gabriel Inclan Osasun sailburua Arrasaten izango da hurrengo astean.

Ospitale berria egiteko proiektua aspaldikoa da. Gaur egungo eskaerari aurre egin ahal izateko eraikin berria gaurko Ospitalearen atzealdean egingo dute, Nafarroako etorbidean.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Autobusez hara eta hona

Probatzekotan naiz Debagoieneko autobus zerbitzu berria. Aurrez, esan dezaket sekulako aurrerapausoa dela, bai ibar barneko loturak areagotzeko, eta bai ibarra lotzeko inguru eta hiriburuekin. Ez gara orain hasiko ea zergatik ez den lehenago egin; iritsi da eta konforme.

Espero dut ganoraz zainduko dela ordutegia, kalitatez emango dela zerbitzua, eta prezioak egokiak izango direla edonorentzat. Pentsatzen dut oraingo zerbitzua moldatu egingo dela ibarreko tranbiarekin ezkontzeko, hau egin ahala. Berez, tranbia baita aukerarik azkarrena eta garbiena.

Eta nahi nuke autobusa erabil dagigun, autoa lagata, ahal den guztietan. Hori egitean, ez goaz-eta bueltan garai zaharretara baizik aurrera, etorkizun iraungarriagora.

ai, ene!



Edonon zaudela, umea gertuan izateko iltzea

Merkitaritzatzaile batean zaudela komunera joan nahi eta ez daukazula haurra non laga? Beti dago soluzioren bat.

<http://tinyurl.com/kh6q6>



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

San Martin jai zoriontsuak guztioi!



Telleria 23, D5 pabilioia
Labegarieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44 • www.iparproject.com

